

Aranbillaga

**JESU KRISTOREN
IMITAZIONEA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen egilea: Josu Landa Ijurko.

Iturria: *Jesu Christoren Imitacionea*. D'Arambillaga
apheza. Fauvet, 1684.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

JESU KRISTOREN IMITAZIONEA

D'ARANBILLAGA APHEZAK
ESKARAZ EMANA

HIRUGARREN LIBURUA

Doktoren Aprobazioneekiñ

BAIONAN,
ANTONIO FAUVET, Erregeren, Iphispikuaren,
eta Hiriko Inprimatzaillea
baithan egiña

M. DC. LXXXIV.

A MONSEIGNEUR,

L'Illustrissime et Reverendissime Gaspard de Prie-
lle' Evêque de Bayone, Abbé de la Roque, Con-
seiller du Roy en ses Conseils, &c.

ENE JAUNA

Presentak zeren berriak diren hañitzek ordi-
narioski estimatu arren, zuri egiteko ohorea
dudana, zeïña Jesu Kristoren Imitazionea, gure
lengoaïarat emana baita zure estimuaz bere
burua lausengatzen du; zeren familier zaitzun;
hainbertze zelo eta khar handirekiñ Jesusen oiñ
urratsen ondoan zabiltzala, ikhusten zaituenaz
geroz; ezen bere bizitzeko denboran arzain kha-
ritatez betherikako baten miraila bezala agertu
izan bada, Lazaroren heriotzeaz nigar egiten
badu, Jerusalemetik Galilearat joateko bidetan
nekhatzen bada, ardi errebelatua edo galdua bil-
hatzen badu; zure handitasunak haren travaillu
gloriosen imajina eder do noble bat erakuisten
daroku: bere osasunaren bidegabetan Diozesa-

ren errepausuan emateko hartzen dituen bethiereko nekheek; eta han ordenatu dituen maxima ederrek, erakuisten darokute klarki bertze xederik eta fiñik estuela izatu, Jesu Kristoren bizitze trabailluskoak izatu duenik baizen.

Zeruak zure eskuetan eman dituen arimen ontasurarentzat erakuitsi duzun zelo eta kharberoa, eta hekien salbatzeko hartu duzun artha handia, zure Diozesako eliza gizon guziei motibo puxant batzuek izan zaiskote bide batzuen bilhartzeko urrunetik bederen, bere arzaiñaren oiñ urrats ederreak segi ahal dezaketenzat, bere buruzagiaren exenplu ederra pobleui erakuisteko.

Arrazoiñ horrek obligatu nau, ene Jauna, trabaillatzerat ontasun publikoarentzat, ene profesioneak eta karakterak obligatzen nauten bezala, astirik dudanean.

Jesu Kristoren bizitzearen Imitazionea haiñ nezesarioa bada Gurutzearen eta Ebanjelioaren Ume egiaskoentzat, non hetarik eziñ dispensa baititeke giristiñotasunaren izenari ukho egin gabe; hetako erregela ederrak ematen dituen liburu hau esta egundaiño izatu gure Eskaran

orai arteraiño; denbora luzez nigar egiteko arrazoiñ handia izan dut laundoni launi Ebanjelista-rekiñ ikhustez nihar eziñ ausarta zeitekela liburu hunen idekitzerat; beldurtasuna banuen entreprenitzeaz Eskuarat ematea ene aitziñeko eta ene denborako zuhurrek herabe zutenaz; baiñan nola espaita zilegi egiñ bidesko gauzetan bere indarrak konsultatzea, zure Ziburuko Elizan dudan Sakramenduen administratzeko arthak inspiratu darot haren pobluari zor nioela liburu bat haren hiskuntzarat ematea, zeñak lagun ahal baintzake fidelak bertutearen praktikan borthisterat, edo esperen giristiño onen egiterat, Jesu Kristoren exenpluez, zeñak gure akzione guzien erregelatzat bere bizitzea aitziñean ematen baitaroku.

Ene obren lehen biziko hau ofrendatzen diot, ene Jauna, zure handitasunari; eta lehenago Jainkoak fruktutarik; animalietarik eta maiñadetarik lehenbizikoa galdegiten bazuen, legea guardatu nahi dut eta zure oiñetarat ekharri lehenbiziko ene plumaren era ispirituaren obrak; baiñan nola espaitzen nihar tenpluan egiten zituen ofrenda hauk eginik erretiratzen; non

etzuen sentitzen Jainkoaren laguntza eta benedikzioea bere baithan.

Eta bere ofrendan, zure handitasunetik ausartatzen naiz, ene Jauna, esparantza izaterat obra batentzat, zeinak; bertze liburuak duten fortunaren eta zorthearen araberat, gaiski erraileak izaten baikitu; inbidiaz gorago izaren da, haren fagoretan deklaritzen bazare, eta zer ere erran ahal baitezakete, ene liburu hau Eskaraz ematearen gaiñean guziarekin konsolatuko naiz, ohore egiten badarotaku ene launa, sinhesteaz errespektu handirekin ni naizela.

MONSEIGNEUR,
DE VÔTRE GRANDEUR,
Le Tres-Humble, Tres-Obeïssant, & Tres-obligé
serviteur.
D'ARANBILLAGUE Prêtre.

IRAKURTZAILLEARI ABISUA

Egiaski zuhur eta debot direnek badakite nolako erreputazionean eta estimuan izatu den bethiere Liburu hau.

Badakite San Xarles Borromeek, egundaiño izan den saindurik handienetarik batek bethiere berekien erabiltzen zuela, erraten zuela hark perfekti debozionea erakutxi izan zioela.

Badakite oraiño San Philippe de Nerik giristiñorasunaren Relijioneko Ispiritua Liburu huntarik hartu izan zuela.

Gehiago Sant Ignazio Eskaldunen ohoreak eta Jesusen Konpañiako Aita zuhur eta deboten Fundatzailleak bere testamentean bere Ume guziei gomendatu izan ziotela, bera Jesu Kristoren bizitzearen mirail edo errepresentazione egiasko bat izatu ondoan.

Fiñean badakite Kardinal Belarminek eta Baroniusek, estimu eta ohore handiak Liburu huntaz erakuitsi izan ditustela.

Geiago erraten darotzut, irakurtzaillea, lengoaia suerte guzietan badela liburu hau, eta Tur-

koek berek, gure religionearen eta liburuen etsai handiak izan arren, bere lengoaiarat eman izan dutela, ezen egun batez Franzia-ko Enbaxadore bati Maroko Erregeak bere Bibliotekan erakutxi izan zioen Truko-ko lengoia, erraten zioela bere liburu guziak baiño geiago estimatzen zuela.

Hargatik Louis de Grenada handiak erraten zuen liburu hau hagitx estimatzekoa zela arima-ko eritasun guzien kontra erremedioak hemen barna kausitzen diren geroz. Hemen bada dio Manna sakratu bat, zeinetan ispirituko plazer guziak gustatuko baikitugu.

Hemen bada (kontinuatzen du Doktor hunek) argi miragarri bat, zeinaren medioz gure burua ezagutuko baitugu.

Fiñean hemen da salbamenduaren zientzia, giristiño bezala nola bizi eta hil behar dugun, irakasten darokuna.

Eta zer ere laudorio liburu huntaz erran ahal baititeke debozionesko ispirituarekin irakurriko dutenek, erranen dute irakurri ondoan, Erregina Sabak, Salomonen gloria ikhusi ondoan erran

zuena, major est Sapientia tua & opera tua quam rumor quem audivi.

Zure zuhurtzia handiago da zure erreputazio-nea baiño, eta zuk egiten duzunak, ixitzen ditu zutaz erran ditusten gauza guziak.

Egiazki irakurtzaillea ikusiko duzu prinzipalki hirugarren liburu hunetan, lehen bizikoa eta bigarrena Jainkoak grazia-rik ematen badarot iratzakiko diotzat denbora laburrik gabe, erretaula edo mirail eder bat zein-etan klarki zure bihotze-ko mobimendu guziak ikhusiko baikitutzu. Lau-garrenean ikhusiko eta ikhasiko duzu halaber nola zeure desirak eta amudioak Jesu Kristoren alderat bethiere handitu behar ditutzun haren gorphutz sakratua digneki errezibitu nahi duzu-nean Aldeko Sakramendu adoragarrian.

Jainko xoilari ohore eta gloria

APROBAZIONEA

Irakurtu dut ene Jaun Iphispikuaren manuz d'Aranbillaga Jaun Aphezak Eskararat eman duen Jesu Kristoren Imitazionea, hañitz lengoaie-tan, Kardinal Belarminek dioenaz, ematen dena; Liburu bat da Giristiño guziek behar luketena zeruko ispirituaren, eta Eliza Katholikoaren Apostolikoaren eta Erromakoaren sentimendu egias-koaren jakiteko, ordena garbi eta eder batean egiña, eta jukatzen dut merezi duela lehen bai lehen Inprima dadiñ, eta egia hunen lekhukota-sunean sinatu dut presenteko Aprobazionea. Baionan Urtharillaren zaspian. 1684,

E. DE SORHAINDO Kolonje eta Teologian Dokto-rak

APROBAZIONEA

Plazer handirekiñ irakurtu dut jeneralki guziez orai arteraiño estimatua izatu den Jesu Kristoren Imitazionea, Eskararat d'Aranbillaga

Jaun Aphezez Ziburukoak, ordena garbi eta eder batean emana; zeñetan deusere espaitut kausitu Fede Katholikoaren eta giristiñotasuneko bertutearen kontrakorik, baiñan kontrarat lainkoaren ispirituez betheak direnen progotxu handitan da.

Huntarakotz othoisten ditut Kristau guziak Liburu hunen maiz irakurtzeaz, bekhatoreak badire konberti deitezentzat, graziasko estatuan badire borthitz deitezen amoreagatik.

Egia hunetzaz fede gehiago egitekotz sinatzen ditut letra hauk. Baionan Urtharillaren zaspian. 1684.

XURIO

Baionako Eliza Kathedraleko Jaun Erretor eta
Teologian Baxeliarak

APROBAZIONEA

Jesu Kristoren Imitazionea haiñ bertze instrukzione ederrez bethea bada, non Giristiño hura irakurriko duten guziek ikhasiko baitute munduaren mesprezatzen, bere buruaren eza-

gutzen, eta lainkoa baithan gaitz fuerte guzietan konsolatzen hartarakotz merezi du lehen bai lehen inprima dadiñ d'Aranbillaga Ziburuko Jaun Aphezak gure hiskuntzarat eman duenaz geroz, Eskaldunek bertze nazione fuerte guziek bezala duten satisfakzioea haren irakurtzeko eta kon-sideratzeko, bertutean borthitz deitezentzat: egia hunen lekhukotasunean sinatzen dut pre-senteko Aprobazionea. Baionan Urtharillaren zaspian. 1684.

D'ELIZAGARAI Aphez, eta Doktor Teologoak

**JESU KRISTOREN
ETA ARIMAREN ARTEKO
KONBERSAZIONEA**

**ZEIÑETAN KLARKI AGERI BAITA
BARNEKO BIZITZEAN
ZER IRAGATEN DEN**

LEHEN KAPITULUA

Nola giristinoak preparatu behar duen lainkoaren aditzerat

ARIMAK

Adituko dut lainko launak ene bihotzari erra-
ten dioena.

Dohatsua da arima mintzo zaion lainkoa adi-
tzen duena, eta bere konsolazionearen hitza
harenganik aditzen duena.

Dohatsua da beharria, lainkosko hiskuntza
hunen bos sakratua aditzen duena, eta mundua-
ren erranentzat gor dena.

Berris ere diot, dohatsua da beharria, kanpo-
an soinu egiten duen hitza aditzen estuena, bai-
ñan bai bihotzaren barnean instruitzen duen
egia bera.

Dohatsuak dire begi, kanpoko gauzentzat
zarratuak, eta barnekoentzat idekiak direnak.

Dohatsuak dire bizitze ispiritualaren bide
estaliak penetratzen ditustenak, eta bere pieta-
teaten exerzizio saindues, bere arimaren prepa-

ratzeko eta haren kapable errendatzeko zeruko sekretuentzat, artha dutenak.

Dohatsuak dire bere boskarioa lainkoa bait-
han okhupatua izatean ematen dutenak, eta
pensamendu lainkosko hunen medios munduko
egitekoetarik separatzen direnak.

O Ene Arima! konsidera zatzu gauza hauk;
zure sensuen atheak zarra zatzu, eta adi zure
lainko launak irakatsi nahi darotzuna; huna zer
dioen zure maiteak.

JESUS MAITEAREN BOZA

Ni naiz zure salbamendua, zure boskarioa,
eta zure bizia. Zaude ene baithan, eta kausituko
duzu egiasko bakea.

Iragaten diren gauzak abandona zatzu, eta
iraupenekoak edo Eternalak bilha.

Zer dire gauza tenporalak, amets batzuek
baizen? eta kreatura guziak zer baliatuko zaiski-
gu, kreatzailleak abandonatzen baikaitu?

Ukha beras gauza guziei, kreatu zaituenari
osoki iuntatzen zaitzola; zakiskon hari xoilki fidel
eta obedient, egiasko dohatsu zarentzat.

II. GARREN KAPITULUA

Arima lainkoari othoitz egiterat doako, arren mintza dakion bihotzerat

ARIMAK

Mintza zaite launa, ezen Zure zerbitzariak aditzen zaitu.

Ni naiz zure zerbitzaria, indazu argia ikhas dezadan zuk manatzen darotazuna.

Zure ahoko hitz sainduentzat, den ene bihotza humiliatua, eta egizu arren ene ariman barna penetra dezaten, zeruko ihintzak bezala.

Lehenago Israeletarrek Moiseri erraten zioten;

Mintza zakiskigu eta adituko zaitugu, baiñan lainko launa ez guri mintza, hil eskaitezen.

Esta horlakoa ez, ene lainkoa, nik egiten darotzudan othoitzat: baiñan desira humil batekin, Profeta Samuelek galdegiten zarotzun grazia, nik ere galdegiten darotzut, erraten zarotzuan.

Mintza zaite, launa, ezen zure zerbitzariak aditzen zaitu; estakidala Moise, ez eta Profetetarik batere niri mintza, baiñan zu Ene Jauna eta ene Jainkoa mintza zakiskit, zu izatu zarenas geros Profeten argia eta Oraklea, zuk baxharrik hek gabe perfeki instrui nazakezu, eta hek zu gabe etzaiskit deus baliatuko.

Egia da hitzak adiaras detzakete, baiñan nahis grazia, nahis ispiritua ezin eman dezakete.

Erraten dutena miragarri da, baiñan esta hala ere bihotza ukitzen, zerori minzatzen espaitzaisko.

Letrak ematen tuste, baiñan zuk sensua idikitzen duzu. Misterioak publikatzen tuste, baiñan zuk hekien penetratzeko ematen duzu intellijen-zia edo argia.

Zure ordenak eta manameduak ekhartzen daroskigute, baiñan hekien konplitzerat, zu laguntzen zaiskigu.

Irakasten dute bidea, eta zuk han ibiltzeko ematen duzu indarra.

Sensuak ukitzen dituste, eta zuk instruitzen eta ukitzen duzu bihotza.

Arbolaren kanpoko aldea ihintstatzen dute; baiñan zuk ematen diozu abundanzia. Fiñean bere bozaren oihua adiarasten dute, baiñan zuk arimari beharriak ematen diotzotzu haren ungi aditzeko.

Ez beras Moise niri mintza, baiñan zu mintza zakiskit ene Jainko, eta ene Jaun, egia eternala zarena.

Hil esnadintzat, eta agor egin fruiturik gabe, kanpoan xoilki abertitua bañais eta es barnean ukitua eta sustatua; eta oraiño falta dunago errenda esnadintzat Jainkosko hitza aditu ondolan goardatu gabe: zure egia ezagutu ondoan, maitatu gabe, zure legea sinhetsi ondoan, goardatu gabe.

Mintza zaite beras, Jauna, ezen zure zerbizariak aditzen zaitu eta zure hitzek bizitze eterna ematen dute.

Mintza zakiskit, ene arimari zenbeit konsolazione emateko, plazer duzun maneran.

Mintza zakiskit, ene bizi gaistoa egiaski xania dezadantzat, eta handik zure izen sainduak gloria eta ohorea duentzat.

III. GARREN KAPITULUA

**lankoa pleintatzen da, gauza
guziak munduarentzat egiten
ditugula, eta es deus ere
harenzat**

JESU KRISTOK

Ene semea, edo allaba, adizatzu ene hitzak, adizatzu zeruko dulzetasunes betherikako hitzak, munduko zuhurren zientzia presunzione, betherikakoa ixitzen dutenak. Ene hitzak Ispiritua eta bizia dire, eta sensu humanoas estute kontsideratuak behar izan.

Eskitutzu aditu behar, konplazentzia bano bat hetan hartzeko, baiñan ixilki, humilitate behera eta afekzione sustatu batekin errezibitu behar ditutzu.

ARIMAK

Jauna, ala dohatsua baita zuk instruitzen duzuna, eta zure legea irakasten diozuna aflikziona egunetan, zure miserikordia sentiaras

diozozunzat, eta munduko miserietarik zure medios libratua dentzat.

JESU KRISTOK

Nik hastetik irakatsi diotet, eta orai ere bethi minzo natzaiote, baiñan hainitzek bihotza gogor dute, eta ene bozarenzat gortzen dire.

Jainkoa baiño hobeki aditzen dute mundua, eta bere nahi gaistoen segitzerat hobeki dire emanak, ezen es ene ordenantza sainduen praktikatzerat. Munduak ontasun tenporal eta mesprezioskoak ditu prometatzen, eta Pasione handirekin zerbitzatua da, nik suberanoak eta eternalak prometatzen ditut, eta biskitartean estut kausitzen gizonetan hostasunik eta menospreziorik baizen.

Non dire hain bertze artha eta zelorekin zerbizatzen nautenak, nola mundua eta munduko handiak egiten baikituste?

Ahalka adi, Sidon, dio itsasoak, ahalka zaite giristinoaren arima, dio munduak, eta kausa zergatik galdegiten baduzu, huna non den.

Biiaia handiak entreenitzen tuste ontasun guti bat Elizan izateko, eta hainitzek estute

pausu bat egin nahi ontasun eternalen ardieste-ko.

Golardo esteus batentzat, hainitz nihor tra-
bailatzen da; intres xar batengatik engaiatzen
dire hauzitan, eta estute dudarik egiten, espa-
rantza bano batengatik, es deus balio duen
gauza bat gatik, gabas eta egunas sofritzeas.

Biskitartzan, o gizonen itsutasun ahalkaga-
rria; zeruko ontasun bates, ezin estima deiteken
errekompensa bates, Jainkosko ohore bates,
sekulan siñatuko esten gloria bates, kestione
denean, nihork ezin, den penarik mendreena,
bere buruari ematerat, erresoli dezake.

Ahalka zaite beras zerbitzari laxoa, enetzat
egin behar dena gogorregi eta gaitsegi kausitzen
duzuna; gorri zaite ikhustetas mundanoek bero-
kiago bilhatzen tustela hek damnatzen ditusten
gauzak, ezen es zuk salba ahal zaitzaketenak.

Bere ontasun falsoen bilhatzean plazer
gehiago hartzen dute, ezen es, zuk, egiaskoen
posesionean.

Eta biskitartean mais bere esparanzek tron-
patzen ditustela frogatzen dute, eta ene prome-

sek estute nihor egiten, ene baithan esparanza duenari estiot faltatzen.

Prometatu dudana emaren dut, eta erran dudan guzia konplituko, baldin ene fidelitatean eta amudioan askeneraiño egoten bada.

Ni nais prestu guzien errekonpensatzaillea, eta lainkotia guzien frogatzaillea.

Ene hitzak hihotsean eskriba zatzu, eta atenzionerekin konsidera, ezen tentatua izaren zarenan, nezesario izaren zaiskitzu.

Orai konprenditu gabe irakurtzen ditutzunak, bisitatuko zaitudenean eginen ditutzu.

Bi maneras ene hautatuak bisititzen ditut tentaziones eta konsolaziones; eta bi lekzione hei egunean ematen diotzotet, lehena da hekien bizioen erreporxatzea, eta bigarrena, arren bertutean abantza dezaten, exortatzea.

Ene bitza aditzen duena, eta gero mesprezatzten, hura izaren du juje, asken judizioan.

**DEBOZIONEAREN GRAZIA
ARDIESTEKO OTHOITZA**

Ene Jauna, eta ene Jainkoa, zu xoilki zare ene ontasun guzia, eta ni zer nais zuri minzatzera ausartatzeko? zure zerbitzaririk pobreena nais, har xume eta mesprezatu bat nik konprendi eta erran dezakedan baiño esteusagoa.

Guziarekin ohoit zaite, launa, esteus naizela, deusik estudala, eta ezin ahal dukedala.

Zu xoilki ona, justua, eta saindua zara, baituketzuke gauza guziak, eta ematen eta bethetzen ditutzu, bekhatorea xoilki deusik gabe usten dugu.

Orhoit zaite ene lainkoa zure miserikordia infinitues, eta zure grazies ene bihotza bethe zazu, hutsik zure obretan utzi nahi estuzunas geros.

Zure graziak eta miserikordiak sustengatze espanaute, nola neure burua soporta ahal dezaket.

Etzazula urrun zure bisaia eneganik, etzazula luza ene bihotza bisitatzerat; esnazazula zure konsolazionees gehiago bulus, arren ene arima zure begien aitzinean lur bat urik gabe bezala, egin estadin.

Nola zure borondatea konplitu behar dudan;
nola zure prezencian digneki eta humilki bizi
behar dudan, irakats diezadazu; zeren ene
zuhurtzia zu zaren, egian ezagutzen, eta mun-
dua kreatu baiño lehen, eta munduan nintzen
baiño lehen, ezagutu nauzun.

IV. GARREN KAPITULUA

**Nola egian eta humilitatean
lainkoren aitzinean konbersatu
behar den**

JESU KRISTOK

Ene semea edo allaba ene aitzinean egian ibil zaite, eta zure bihotzeko sinpletasunean, bethi bilha nazazu.

Ene egiaren erregela sailduak bere akzione-tan segitzen dituenak, estu etsaiaren atakadarik izaren, eta egiak, tronpuretarik eta gaistoeh gaiski erratetarik libratuko du.

Egiak libratzen bazaitu, egiaski izaren zara libro, eta jendeek zutas erran ahal dezaketen gauzes guti penetan emaren zara.

ARIMAK

Egia da, Jauna, zuk diozuna. Arren, Jauna, egidazu grazia nazen zuk desiratzen nauzun estatuan. Arren zure egiak zurekin instrui, goar-da, eta konserba nazan fiñeraino.

Arren desira gaisto, eta afekzioe erregelatu estirenetarik, libra nazar, eta bihotzeko libertate handi batean ibiliko nait.

JESU KRISTOK

Ni naiz egia suberanoa, justu eta plazer zaita-
na irakatsiko darotzut.

Dolore eta desplazer handirekin konsideraza-
tzu zure hobenak, eta obra onak zuk egin arren,
estimazazu zeure burua esteus bat zarela.

Ezen egia da, hainitz pasionetarat suiet zaren
bekhatore bat zarela, zeiniek bere gathetan
engaiatua baitzaduskate.

Baduzu pendura bat esteuserat zaramatza-
na.

Berehala erortzen zara; berehala benzutua
zara, berehala trublutzen zara, fiñean berehala
kuraia guzia galtzen duzu.

Beras zer ere zuk egiten baituzu, etzazula
handi estima, milla gauza badire zure menospre-
ziotan, zeren zure flakezia hain handia baita, non
haren konprenditzeko espaitzare kapable.

Ez beras zuk egiten duzun gauzetarik deus
ere handi estima.

Estakizula beras deus ere es handi, es prezia-
tu, es miragarri ager, eternal edo sekulako dena
baizen.

Emazu zure plazera egia eternalean, eta zure
baxotasuna den men men guzian zure konfusio-
nearen eta menosprezioaren obieta.

Estuzun beldurtasunik, ez deus hala blama;
ez deus hala ihes egin nola zure bizioei eta bek-
hatuei, zeñentzat abhorrimendu gehiago behar
baituzu, ezen es munduko gaitz guzientzat.

Badire ene aitzinean egiaski estabiltzanak,
kuriositate, eta arrogantziaren ispiritu bates
pusatuak direnak, ene sekretuak penetratu, eta
ene misteriotan diren gauzarik gorenak konpren-
ditu nahi ditustenak, bere salbamenduas kontu-
rik egiten estutela.

Halakoak mais tentazione eta bekhatu han-
dietarat erortzen dire, zeren halako arima super-
bios eta presunzioes betherikakoei, resistentzia
egiten baitiotet, eta hekien etsai deklaritzen
bainais.

Zuk, ene semea, edo allaba duzun lainkoaren
juiamendues beldurtasuna, puxantza guzia due-
naren koleraren aitzinean, ikhara zaite.

launaren obren penetratzerat etzatzula zure pensamenduak altxa, baiñan zure hobenen beheratasuna fundatzeko beheiti zaite, zenbat falta egin duzun, eta zenbat grazia galdu etsaminatzeko.

Badire bere debozione guzia liburuetan, badi-re imajinetan, badin seiñaletan eta figuretan ematen ditustenak, mais batzuen ahoan nais, eta guti hekien bihotzean.

Baiñan badire bertze batzuek, arima argitua, eta bihotza garbi dutela, bethiere eternitatea-rentzat suspireran baitaudes, eta munduas min-zatzeas pena handia baitute, zeïñek naturari ezin errefusa diozoketena, dolorerekin ematen baitiote; haiñek egiasko ispirituak bihotsetan erraten diotena, perfekiki konprenditzen dute.

Ispiritu hark, nola munduko gauzak ostikatu, eternalak maitatu, mundua mesprezatu, eta gabas eta egunas zerua desiratu behar duten, irakasten diote.

V. GARREN KAPITULUA

lankosko amudioaren, eta haren efektu miragarrien deskripzione hagitz ederra

ARIMAK

Benedikatzen zaitut Aita zerukoa, Ene Iesus launaren Aita, zeren ni bezalako kreatura pobreas orhoitu zaren.

O miseriardiaren aita, eta konsolazione guzien lainkoa; graziak errendatzen daroskitzut, zeren batzuetan zure dulzetasunen eta konsolazioneen zenbeit gustus, ni ez kapable izan arren, allegeratu bainauzu.

Benedikatzen eta glorifikatzen zaitut bethiere, zure seme bakarrarekin eta ispiritu konsolagarriarekin, sekula sekuloronean.

O ene laun eta ene lainko, ene maitatzaille saildua, enegana ethorriko zarenean, ene barne guziak boskarios gaindi egiñen du.

Zu zare ene gloria, zu zare ene bihotzeko boskariora. Zu zare ene esparantza, eta ikhus lekua, arriba ahal dakiskidan aflikzione guzietan.

Baiñan nola oraiño amudioan flako eta bertutean inperfekt bañais, badut beharra nezesarioki borthitz eta konsola nazazun, hargatik mais bisita; eta zure zuhurtzia sainduas argi nazazu.

Ene pasione guzietarik libra nazazu, eta afekzione erregelatu estirenetarik senda nazazu, ondoan barnean sendaturik eta ungi purgaturik, aski garbi egin nadin, zure maitatzeko, aski kuraio ungi sofritzeko, eta aski fermu edo konstant fiñeraiño perseberatzeko.

Egias amudioa gauza handia da; amudioa ontasun miragarria da; hark bakharrik pisu dena, arintzen duenas geros, eta mundu huntako akzident diferentak igoalki sofritzen, pena gabe ekartzen du karga, eta gartatz dena estitzen du.

Jesusen amudioa jeneros da; akzione handietarat arimak pusatzen ditu, eta perfektaren desiratzerat, exzitatzen du.

Amudioak bethi goiti du jaidura, eta estu nahi gauza baxoek arrasta dezaten.

Libro nahi da amudioak, eta lureko afekzione guzietarik urrun, haren barneko argia, esten debekatua, eta esten ontasunetan enbrazatua, eta munduko gaitzes abatitua.

Esta zeruan eta lurrean dulceagorik, bortitsagorik, goragorik, hedatuagorik, agradagarriagorik, betheagorik, hobeagorik amudioa baiño, zeren lainkoaganik sorthua baita, eta kreatura guzies gorago altxatzen dela, lainkoa baithan baizen ezin errepausa baititeke.

Maite duena boskariotan da bethiere; kurridabila, bolatzen da, libro da, deusek estaduka.

Guziak ematen ditu guzientzat, eta guziak poseditzen ditu guzietan, zeren ontasun suberano, guziak baiño gorago den hartan, zeñetarik bertze ontasun guziak ethortzen baitire, errepausatzen baita.

Estiote presentei begiratzen, baiñan bere bihotz guzias hek ematen diotzanaganat gortzen da.

Amudioak mais estu mugarririk, baiñan bere suak badarama manera guzies gorago.

Amudioak estu penarik sofritzen, trabailurik estimatzen; bere indarres gorago entreprenitzen du, eta inposibilitatean dela esta eskutatzen, zeren deusik imposible dela espaitu uste, aitzitik guziak permis zaiskola uste du.

Eta hala gauza guzientzat aski zaio bere kuraia, eta maite estuenak langiadurarik baizen estuenean obratzeko, amudioak indarririk aski kausitzen du, duen deseinuaren konplitzeko.

Amudioa, iratzarririk dago, eta loan berean ere estago lo.

Esta nekhatzen trabailu handitan; Esta hersitzen aflikzionetan; Esta trublutzen ematen diotzaten ikharetan; baiñan khar bizi eta sustatu bat bezala goititzen da, zerbeitek arrastatu nahi duenean, orduan bere indarra doblatzen du.

Esta maitatzailka baizen, amudioaren oihuak, konprenditzen dituenik eta halaber susko hitz hauk, zeñak arima biziki lainkoas ukitua denak, hari berari adresatzen baitiotza, erraten dioenean; zu zare ene lainkoa, zu zare ene amudioa, guzia enetzat zare, eta ni ere guzia zuretzat nais.

Ene bihotza zabal zazu, gehiago maita zaitzan; eta barneko gustu ispiritual bates, ikhas dezadan, zein dulce den zure maitatzea, zu bait-han igerika ibiltzea, eta zure amudioaren itsasotan dohatsuki galtzea.

Arren zure amudioak guzia posedi nazan, eta ondoan guzia sustatua, eta neure baitarik rabi-tua, neure buruas gorago altxa nadin.

Kanta dezadan amudiosko kanta. Ene arima altxa bedi zurekin, eta segi zaitzala bere maitea bezala, eta fiñean boskarios eta afekzioes gain-di egiten duela zure laudorietan, kunsumi edo dohatsuki itho bedi.

Maita zaitzadan beras neure burua baiño gehiago, eta estezadan neure burua maita zure-gatik baizen, eta zure baithan, egiaski maite zai-tustenak, maita detzadan, amudioaren legeak, zeïña zure argiaren arraioa baita manatzen dueño bezala.

Amudioa prunt, sinzero, saindu, allegera, agradagarri, bortitz, patient, fidel, prudent, kon-fiant eta kuraïos da, eta sekulan estu bere burua bilhatzen; ezen nihork bere burua bilhatzen due-nean, amudioa batera bertzera bilha dabila, humil da, zuzen eta iustua da, esta es ariñ es laxo; esta gauza banotan alferrik okhupatzen, sobre da, garbi da, fermu da, errepausuan, eta sensu guzien goardian dago.

Amudioa bere superioarentzat obedient da, bere buruaren mesprezio handi bat inspiratzen du.

Sus eta ezagutzes lainkoaren alderat bethea da, konfidentzia fermu bat bethiere bere baithan konserbatzen du, gustu eta sentimendurik gabe denean ere, zeren amudioaren bizia bethi dolo-reas konpañiatua baita.

Gauza guzien sofritzera prest estena, bere maitearen borondatea baizen espalu bezala, esta kapable deithua den lainkoaren adiskidea.

lainkoa egiaski maite duenak, gauzarik garra-tsenak maitetuenarentzat besarkatu behar ditu, eta zenbeit errenkuntra gaisto ethortzen bazaio are, deusek estu gibelatu behar haren adiskide-tasunetik.

VI. GARREN KAPITULUA

**Nola amudioa estagoen gustu
ispiritualetan, baiñan bai ungi
gudukatzeko fidelitatean**

IESU KRISTOK

Ene semea edo allaba, esnauzu behar den jenerositate eta zuhurtziarekin oraiño maitatzen.

ARIMAK

Zergatik es launa.

IESU KRISTOK

Zeren asi duzuna, gauza kontrako den mendreenak kitarasten baitarotzu, eta sopra gutizia-rekin, gustu eta dulzetasun ispiritualak desiratzten baikitutzu, jeneroski maite duena tentazio-netan fermu dago eta estu usten bere burua suprenitzerat bere etsaiaren artifizio gaistoei.

Nola neure grazies fagoratzten dudanean, zeruko plazer bat kausitzen baitu, hala estu deus desplazer egiñ diozakenik ene baithan kausi-

tzen, nois eta ordus ene agortasunes frogatzen baitut.

Maitatzaille zuhurak estu hainbertze kon sideratzen maite duenaren presenta, nola emai learen amudioa.

Amudio hori preziatugo zaio, ezen es horren gatik dituen abantailak, eta bere maitea, konpa rasionerik gabe, harenganik dituen presentak baiño gorago ematen du.

Ni jeneroski maite nabenak, ematen diotza dan gauzak baiño geiago maite nau, eta ene bai tan ematen du bere boskarioa, es ene presente tan.

Zenbait ordus nahi baiño amudio gutiago duzula enegana eta ene saiñduetarat, sentitzen baduzu zeure baithan, etzazula hargatik uste galdu zarela.

Zenabit ordus estitasunes betherikako afek zionea sentitzen baduzu, hori ene grazia zure baithan delako seña le bat da, hala nola zeruko ontasunen gustu bat, zeña aitzinetik sentiaras ten baitarotzut, eta eziñaren gaiñean espaituzu sobra sustengatu behar, zeren hura ematen eta erretiratzen baitut, plazer dudanean.

Bertute egiasko eta merezimendu handiaren marka eta seiñalea da, ariman sortzen diren pasione, eta mobimendu gaiski erregelatu guzien kontra gudukatzea, eta etsaiak inspiratzen daroskitzun malezia guziak mesprezatzea.

Deabruak zer ere gauzaren gaiñean presentatzen darokitzun fantasia eta imajina banoek begirautzu trublerik kausa diezazuten.

Bethiere lainkoarekin izateko deseñu saiñdu bat, eta harenganat xoilki hedatua ikateko intenzione xuxen bat, konserba zazu.

Estuzu uste bear, zeren batzuetan kolpe bates zeruraiño alxatua zaren, eta berehala zure ordinarrosko flakezietarat eroria, hori liluramendu bat den, ezen zure nahiaren kontra hori sofritzen duzu, eta desplazer egiten darotzuiño eta gonbatitzen duzuiño, esta zure galtzeko, baiñan bai merezimendusko suieta.

Iakiñ behar duzu zure etsaiaren deseñurik prinzipalena, zure nahi sailduen ithotzea dela, hala nola baitire sailduen ohoratzea, ene dolorreak mais memorioan iragatea, zure bekhatues dolorerekin orhoitzea; zure bihotzaren goardian iratzarririk egotea, eta fiñean bethi bertutean

abantzatzeko, erresoluzione fermu bat hartzea. Mais Satanek pensamendu gaistoak zure ispirituan ematen ditu, zuri zenbeit nekhe kausatzeko, eta bide huntas orazioneari eta liburu saiñduen irakurtzeko manerari aplika etzakiskon.

Zure hobenen konfesione humilarentzat herra du, eta egiñ ahal baleza komunioetik ere gibelaras zintzake.

Etzazula sinhets, eta estuzun hartas axolarik, hark, zuri mais tentazionea hedatu arren. Sinhets zazu zure ispiriturat etxatzen dituen pensamendu gaisto eta lizunak, harenak direla, eta es zureak.

Errozu, hoa ispiritu lizuna, ispiritu dohaka-bea, desohorean ungi pulunpatua ais, niri halako imajina lizunak errepresentatzeas, ahalkatzen esaizenas geros, tronpur gaistoa, urrun adi eneganik, estuk ene baithan izaren parterik.

Iesusek bethi ene baithan erregiñatuko dik, eta hirekin gonbatitzen dela sustengatuko niauk, eta hi ahalkerias estaliko.

Nahiago diat hil eta tromenta fuerte guziak sofritu, ezen es hire maleziari konsentitu.

Ago ixilik, eta es niri mintza, ezen gehiago esaut adituko.

launa da ene argi, eta salbamendua, noren beldur ahal duket. Ene bihotza eliteke mobi, ene etsaies konposaturikako armada bat saietsean banu ere. launak laguntzen nau, ene libratzaillea hura izaren da.

Soldadu kuraioa bat bezala guduka zaite; eta flako izanes, (zaren bezala) batzuetan erortzen bazare, sartzaite berris lehen baiño kuraia handiagorekiñ hartzen duzula esparantza, borthitskiago ene graziak sustengatuko zaituela, eta konplazenzia banoetarik defenda zaite hala nola superbiotasunetik.

Arima superbiosen errubinatzea, balia daki-zun exenplutzat, eta hekien presunzione erhoak humilitatean fermu zaitzan iduk.

VII. GARREN KAPITULUA

**Nola bake humil bat konserbatu
behar den arimaren
agortasunetan**

JESU KRISTOK

Ene semea, edo allaba estal zatzu bethiere zure debozione eta zure desira saiñdu guziak, etzaitezela behiñ ere goiti altxa, goardia zure mintzoari, eta pensa zazu guti.

Esta zuretzat progotxu handiagorik eta seguragorik, manera huntan zeure burua mespreztzea, eta errezibitu duzun grazias beldur izatea baiño, inkapable izan arren, grazia hura eman izatu zaitzunas geros.

Estuzu zure bihotseko dispozizionea presentzeoenetan sobra fidatu behar, fazilki kontrakorat hura pasa ahal deitekenas geros.

Konsidera zazu graziak zure ariman distiatzen dueiño, zenbat pobre eta miserable kausitzen zaren, hura erretiratzen den pontutik.

Bizitze ispiritualaren perfekzionea estago graziaren dulzetasuna bethiere gustatzeas, bai-

ñan bai hartas gabetua izatean, pazienza eta bere buruarenganako mesprezio batekiñ. Halako maneras bai, non espaikitutzu orduan orazione eta desira Saiñduak utzi behar, baiñan zure egiñ ahala eta kapable zaren bezanbat hetan enplegatu behar duzu, arima truble, inkietamendu eta agortasunean pulunpatua izan arren.

Hainits badire, bere desira onentzat zenbeit kontrariosko gauza kausitzen badute, berehala inpazientatzen baitire.

Baiñan gizonaren bidea esta bethi gizonaren eskuan, lainkoari dagoka bere graziaren ematea, eta plazer duenari graziaren gustua, plazer duenean, plazer duen maneran eta plazer duen neurriaren araberat.

Prudent estiren batzuek debozionearen berotasunes galdu izan dire, zeren egiñ ahal zezaketen baiño gehiago egiñ nahi izan baitute eta aski konsideratzen etzutela, zenbat gauza proporzionerik etzutenak hekien flakeziarekien entreprenitzen zuten, bihotzeko khar edo zeloa lehenago bere gidan segitu izan dute, ezen ez arrazoiñaren argia.

Eta nola lainkoari plazer zitzaien baiño gauza handiagoetarat presunzione izan baitute, berehala errezibitu zuten grazia galdu izan dute.

Berehala pobrezia eta beheratasunerat erori izan dire hek berak, zeiniek arranoek bezala bere ohatzea zeruraino eman nahi izan baitute, agien behekiturik ikhasiko dutela estutela indarririk, ni naizen lekhuraino bere buruen altxatzeko, eta bolatzeko, baiñan bere esperantza guzia ene hegalean itzal eta sustenguan eman behar zutela.

Jaunaren bidean oraino berri eta esperientzia gabe direnak erreiski galduko dire, baldiñ esperientzia eta argia dutenen konzeillus baliatzen espadire.

Bere sensu propioen abisua hobeki sinhesten badute, ezen ez presuna argi gehiago dutenena, hekien salbamendua hirrisku handitan izaren da, baldiñ Jainkoak ematen espadiote grazia bere sentimendu propioei ukho ekiteko.

Gauza raroa da bere burua zuhur dadukate-nak bertzeen gidas humilki goberna deitezen.

Hobeago da argi gutiago izanik ere humil izatea, ezen ez zuhurtziaren tresor guziak bere

buruaren konplazentzia bano batekien poseditzea.

Donu mendre batek geiago balio du, ezen ez handi batek, baldiñ handiagoarekien superbios errendatzen bazare.

Arima indiskreta da, osoki boskarioari abandonatzen zaiona, ahansten zaiola bere lehena-goko pobrezia, eta beldurtasun garbi eta errespetusko hura, zeïña ikharan baitzagoen errezibitu zuen grazia galtzeas.

Halaber flakezia eta eskas handia da bere burua trublazteas, eta errenkuntra faxusethan sobra abatitua ikateas orduan berean konstanzia fermu bates izateas ene sustenguan eta ontasunean.

Sobera segur dena bakhean, laxo eta beldurti izaren da gerlako denboran.

Baldiñ zeure begien aitzinean, humil eta xume egoteko artha bazindu, hala nola zure ispirituko mobimenduak moderazione justu batean idukitzeko, haiñ mais tentazione eta bekhaturat etzinteske eror ispirituko berotasunean kausitzen zarenean, progotxu handia zinduke, baldiñ

pensatzen bazindu zer egiñen duzun denboa dohatsu hura pasatzen zaitzunean.

Eta ilhuntasun eta agortasunean kausituko zarenean, orduan kontsideratu behar duzu ene graziaten argia berris ethor ahal deitekela, zu zeure buruaren goardian ungi egonarasteagatik, eta niri zor zaitan laudorio eta gloria errendatzeagatik, denbora batetako xoilki khendu darotzudanas geros.

Froga hori progotxu eta abantailatuago da zuretzat, ezen es bake desiratzen duzun bethiereko bat baziñdu.

Ezen arimaren merezimendua estago Jainkosko bisione edo konsolazione geiagoen izatean, eskritura saiñduan argituago izatean edo ohore eta dignitatetan altxatua izatean; baiñan humilitate sinzero eta egiazko batean borthitzago izatean, Jainkoaren amudioas betheago izatean.

Haren gloria xoilak intenzione garbi eta xuxenago bates bilhatzean; bere baithan bere burua perfekiago eta beherago esteus errendatzean, eta fiñean menosprezioan plazer gehiago hartzean, ezen es gizonen estimu eta laudoriotan.

VIII. GARREN KAPITULUA

**Nola zein guti bere burua
estimatu behar duen giristiñoak
lainkoaren begietan**

ARIMAK

Auzartuko othe natzaio ene Jaunari minzateer-
rat, ni herrautsa izan, eta gehiago estimatzen
badut ene izatea, ene kontra kausituko zaitut,
eta ene hobenek ekharriko dute lekhukotasun
bat ene kontra, zeinari imposible izaren baitzait
ihardestea.

Baldiñ ne buruaren sentimendu propioak gal-
tzen baditut, baldiñ beheititzen banais, & baldiñ
esteus egiten banais, hala naizen bezala fagore
izaren dut zure grazia, eta zure argiak ene biho-
tzean distiatuko du, eta ene izatearen presunzio-
nesko estimuaren kharrik mendreenak.

Ene esteustasunean ithoko, eta sekulako fun-
dituko dire, thulunbio hortan agerrarasten nauzu
nerori, eta irakasten darotazu zer naizen, zer
izatu naizen, eta zer estatutarat erori naizen,
esteus nais, eta es nakien.

Neure baitarat abandonatzen nauzunean ikhusten dut flakezia bera eta esteusa bera naitzela; baiñan zure begitartetas fagoratzen banauzu, berehala borthisten nais, eta boskario berries gaiñdi egiten dut.

Zure miserikordiaren miragarria, ene Jainkoa, manera huntan ene arima zeure kareses eta fagorees altxatzen eta ohoratzen duzunak geros bere pendura bethiere hark lurrerat izan arren.

Hartan da ageri zure amudioaren efektu handia, nik merezi gaberik milla beharretan laguntzen zaitanas geros, eta fiñean milla hirrisku eta gaitz harrigarrietarik thiratzen, eta libratzen nabenas gerostik.

Ezen neure burua sobera afekzioes maitatus, galdu nais, eta zu xoilki bilhatzean eta amudio garbi bates maitatzean, kausitu zaitut eta kausitu nais, nerori zurekien eta zure amudioak neure esteutasunaren thulunbioan oraiño barnago eman nau.

Hala bada, ene lainkoa, zure ontasun infinituak, ene merezies gorako, konparazionerik gabe, graziak ematen daroskit, eta oraiño zure-

ganik izateko esparantza eta othoitz egiteko, ausarta ahal naiteken baiño gorago.

Zaren ene lainkoa, benedikatua, ezen ni ontasun guzien izateko ez kapable izan arren; gustiarekien zure maiestate eta ontasunaren propitatea da ingrateri berei, ungi egitea, hala nola zureganik urrunduak direnei.

Arren launa, konberti gaitzaitzu zureganat, egiasko ezagutzaille humillak; eta zure amudio-an kharstuak garentzat, ezen zu zare gure salbamendu, gure saindutasun, eta gure indarra.

IX. GARREN KAPITULUA

**Nola lainkoari gauza guziak
ekharri behar zaiskon, hekien
haste eta fiñari bezala**

IESU KRISTOK

Ene semea edo ene allaba zure fiñ askeneko eta suberanoa behar dut izan, egiaski dohatsu nahi baduzu.

Intenzione garbi hunek zure amudioa, bereganat makhurtua, garbituko du.

Ezen zerbeitetan zeure burua bilhatzen baduzu, berehala flakeza eta agortasunerat eroriko zare. Ekharraztu beras gauza guziak enegangat, zure fiñ prinzipalenerat bezala, ezen gauza guziak nik eman daroskizut.

Munduko ontasunak, ontasun suberanotik isuriak bezala konsidera zatzu, eta hek guzias altxaras enegangat, hekien lehenbiziko ithurrirat bezala.

Ni nais ur bizien ithurria, handi eta humeak, pobre eta aberatsak enegangat heldu dire, bizi-tzea ematen duen ur hartarik thiratzerat, eta ni

humilitate borondatezko batekien zerbitzatzen nautenek grazia graziarentzat eneganik errezibituko dute.

Nork ere bere gloria eta bere boskariora nitas kanpoan eman nahiko baitu, partikular eta propi-
zaion zenbeit ontasunetan emateko, hekien esta sekulan boskario egiaskoan borthistua izaren; eta bihotzeko libertateas gozatuko baiñan bet-
hiere hertsiki, eta milla fazoines bortxatu eta enbrasatua izaren da.

Ez beras zure baithan edo bertzetan den ontasun eta bertutearen deusere zeure buruari atribua; baiñan emotzu hek guziak Jainkoari, zeña gabe gizonak espaitu deusik.

Nik eman ditut gauza guziak; niri gauza guziak errendatu behar zaskit, eta zor zaskidan grazien akzione eta ezagutzak garratstasun han-
direkin galdegiten ditut.

Hau da egia zeñaren argiak banagloriaren ilhuntasunak kasatzen baikitu.

Behiñ ene grazia bihotzean sartzen bada, eta hura bide egiaskoan ematen, inbidiaren inpresio-
neek estute geiago ukitzen, esta bere hertsitasu-

nean trublutzen, eta amudio propios esta geiago poseditzen.

Jainkosko kharitateak gauza guziak benzu-tzen ditu, arima handitzen du, eta haren indarrak doblatzen.

Egiaski zuhur bazare estuzu ene baithan baizen izaren boskariorik, eta estuzu ene baithan baizen emaren zure konfidenzia, zeren nihor espaita onik Jainkoa baizen, zeïña laudorio guzios gorago baita, eta gauza guzietan benedikatu eta adoratua izan behar baita.

X. GARREN KAPITULUA

Zein dulze den Jainkoaren zerbitzatzea mundua mesprezaturik

ARIMAK

Berris ere minzatuko natzaizu ene Jainkoa, esnais ixilik egoren ene Jainko, ene Jaun, eta ene erregearen aitziañan, zeina zerurik gorenean bere tronuaren gainean jarria baitago.

A! zenbat handia den zure beldurtasuna dutenentzat goardatua dadukazun dulzetasunaren handitasuna.

Baiñan zer ematen diozute maite zaitustenei, bere bihotz osoas zerbitzatzen zaitustenei!

Zure egiasko adiskideei akhordatzen diotzozuten kontenplazionesko plazerak oseki eziñ explika deiteskenak dire.

Zer erraren dut, ene Jainkoa zuk erazutxi darotazun amudioaren gaindiduras, esteustasunetik thiratu nauzun geros, ni kreatzeagatik, erhotasunetik, zureganat deitzeagatik, zu xoilki

zerbitza zaitzadantzat, eta guzien ondoan zure maitatzeko manamendu dulzea eman darotazu.

O amudio eternalaren ithurria, zer erraren dut zutas? nola sekulan zu ahanzt ahal zaitzaket, nitas orhoitu zarenas geros, korrupzione eta heriotzearen thulunbioan nintzelarik, zure zerbitzariaren esperantza guzies gorago igan zare, hari miserikordia egiñ nahi izan diozun denboran? eta haren merezimendu guziak infinituki pasatu ditutzu, zure adiskidetasun eta grazias ohoratzen duzula.

Horlako fagore handientzat zer errendatuko darotzut ene Jainkoa?

Ezen esta hori guziei akhordatzen diozuten presenta, munduari ukho egitea, eta bizitze solitarioan sartzeko, gauza guzien kitarastea.

Zer konsiderazionesko gauza egiten dut zure zerbitzatzean, kreatura guziak zure zerbitzatzerat obligatuak direnas geros?

Deusik esta nik zu zerbitzatzea, baiñan zuk ni zure zerbitzarien lekuban ematea, eta zu maite zaitustenekiañ juntatzea, haiñ pobre eta ohore horren izateko inkapable nazelarik, gauza handia da eta eziñ aski admira dezakedana.

Jauna, dudan guzia zurea da, eta nik errendatzen darotzudan zerbitzu bera ere zuk egiten darotazun donu partikular bat da.

Eta gustiarekiñ zuk geiago ni zerbitzatzen nauzu, ezen es nik ku.

Zeru eta lurra gizonaren zerbitzuko kreatu tutzu, eta artatsuki zerbitzatzen dute egun guzies, zuk eman diozuten ordenen arabera.

Baiñan oraiño gehiago dena, zure aingeruei manatzen diozute zerutik iausteas haren goardiano eta defendatzaile deitezentzat.

Eta zure ontasunak, ene Jainkoa, ixitzen ditu ontasun hek guziak, nois eta ordus zure bizitze propioa gizonaren salbamendu eta bizitzeko eman baituzu eta prometatut baitiozu zeure burua zure gloria guziarekien emaren diozula.

Milla ontasun haukientzat, zer errendatuko darotzut, ene Jainkoa; oxala ene bizitzeko egun guzietan zerbitza ahal bazinatzat? baiñan, helas! oxala perfekti eta obligatua naizen bezala, xoilki egun bates egiten bazintut.

Ezen egiaski digne zare bethiere zerbitzatu, oharatu, eta laudatua izateko.

Zu zare egiaski ene Jainkoa, eta ni zure eskla-
boa, neure indar guzies zure zerbitzatzerat, eta
zure laudorioen, bethiere publikatzerat, obliga-
tua naizena.

Hori da nik nahi dudana ene Jainkoa, hori
desiratzen dut, eta zuk ene eskas guzia zeure
grazias bethe zazu.

Zer ohore esta, ene Jainkoa, zer gloria zure-
kiñ izatea, eta zuregatik gauza guziak mespreza-
tzea? ezen borondateski zure esklabo egiten, eta
zure lege saiñduari humiliatzen direnei grazien
gaiñdidura handi bat preparatzen diozute.

Zure ispiritu saiñduaren konsolazione eta
dulzetasunes, zure amoreagatik haragiaren
xarma guziei ukho egiten diotenak bethetzen
ditutzu, eta zure gloriaren ohoretan bizitze her-
tsian sartzen eta lurreko ontasun guzies bilhus-
ten direnei bihotzeko hedadura handi bat eta
libertate egiasko bat ematen diokute.

O esklabotasun agradagarri eta Jainkoskoa,
gizona libro errendatzen eta saiñdustatzen
duena.

O bizitze erretiratuaren estatu sakratua, gizo-
na Jainkoaren adiskide, aiñgeruekien igoal, dea-

bruei ikharagarri, eta Jesusen zerbitzari guzies
ohoratua izateko kapable, egiten duena.

O Esklabotasun dohatsua, ezin aski desira
deitekena, ontasun infinito eta gloria eternalak
haren medios ardiesten direnas geros.

XI. GARREN KAPITULUA

**Nola giristinoak lainkoari plazer
egiterat, hala nola bere nahien
moderatzerat, eta haragiaren
gainean bere burua nausi
errendatzerat baizen, estuen
pensatu behar**

JESU KRISTOK

Ene semea edo allaba oraiño ungi ikhasi eskitutzun hainitz gauza irakatsi nahi daroskitzut.

ARIMAK

Zeiñ dire hek launa?

IESU KRISTOK

Ene borondatearen aspian zeurea osoki ematea, zeure burua maita estezazungatik, baiñan nik nahi dudan guzia su eta kharrekien besartea dezazuntzat.

Desirek mais borthiski berotzen zaitustean; konsidera zazu, ea ene gloriak, ala zeure intres propioak ukitzen zaituen.

Niri plazer egitea baizen pensatzen espadusu, nik nola nahi ordenaturik ere, kontent izaren zare baiñan zeure buru propioaren bilhatze sekretuskoa han nahasten baduzu, berehala inketamendu eta trublean kausituko zare.

Emozu beras zeure buruari ungi goardia, zeure baithan. Ni konsultatu gabe, formatu ditzun nahien gaiñean, es sobra sustengatzeas, ondoan urrikirik estuzuntzat, eta su handirekiñ lehen desideratu duzuna, aproba estazazungatik.

Ezen berehala on diruriten mobimenduak estire segitu behar, es eta ere behar khendu gaisto diruritenak.

Mobimendu eta desira onetan ere, on da batzuetan suspenditua egotea, beldurres sobra khexaturik, distrakzioes zeure ispiritua bethe estezazun, edo kanpoan ez aski erregelatua izanes bertzeei eskandala kausa diozuten, edo esperen zuk desiratzen duzun gauzari zenbeit resistenzia kausitzen diozula trubla eta abati etzaitezen.

Biolenzias batzuetan baliatu behar duzu, eta sensuen desirak kuraia handirekiñ gudukatu;

goardiarik egiñ gabe, zer nahi eta zer nahi estuen haragiak, trabaila zaitezen haren ematen, nahi badu eta espadu ispirituaren inperioaren aspian.

Eta haren kastiga eta bortxatzen kontinuatu behar duzu, gauza guzientzat prest deiño, eta gutis kontentatzen, eta zer ere sinpleen baita haren maitatzen ikhas dezakeiño, zer ere sensuei gutienik plazer baitzaiote, murmuratu gabe errezibitzen duela.

XII. GARREN KAPITULUA

**Nola munduko gaitzetan pazient
behar den izan, eta gudukatu
konkupiszenziaren kontra**

ARIMAK

Ene laun eta ene lainkoa ezagutzen dut
pazienza hagitz nezesario dudala, zeren eta hai-
nitz gauza nahi estudan bezalako arribatzen bai-
tzait.

Nik egiñ ahala bakea izateagatik egiñ arren,
ene bizia bethiere gerla eta doloretan izaren da.

JESU KRISTOK

Ene semea, edo allaba zuk diozuna egia da,
baiñan estut nahi tentazione eta aflikzionerik
gabe izatean eman dezazun zure bakea.

Baiñan duzun uste, hainitx tentazione eta
kontrarietates exerzatu eta frogatua zarenean,
orduan bakea kausitu duzula.

Erraten baduzu harenbertze ezin sofri deza-
kezula, nola Purgaroriotako khar eta suak egiñen
ditutzu?

Bi gaitzetarik bethiere mendreena hautatu
behar omen da.

Gaitz sekulakoei ihes egiteko, bizitze hunta-
koak lainkoari plazer egiteko bihotz ones sofri
zatzu.

Uste duzu munduko jendeek estutela guti
edo hainitz pena?

Plazeretan beretan direnak estire hetas
etsant.

Menturas erraren darotazu bertze alde bate-
tik badutela haiñitz dibertimendu, eta bere inkli-
nazione eta nahiak satisfatzen ditustela, eta hala
hekien penak dulzatuak direla.

Baiñan hori hala balis ere, imajinazionesko
dohatsutasun horrek zenbat iraun ahal dezake?

Ikhusiko duku munduko handiek men men
bates, kheak bezala, saltatuko dutela eta plazer
iraganes estutela orhoitsapenik izaren.

Bizi diren denboran ere eskituste gustatzen
garratstasun, nekhadura eta beldurtasunekiñ

baizen, eta mais, zerk ere egiñ baitu hekien boskarioa, hark berak kausitzen du hekien dolorea.

Manera huntan ene justiziak punitzen ditu, arrazoiñ denas geros berek bere garratstasun eta konfusioa, ene ordena eta borondatearen kontra bilhatzen duten plazeraren berean, kausi dezaten.

Zer da hekien plazerak baiño laburrago, falsoago, eta ahalkagarriagorik?

Baiñan itsutasun eta horditasunak, zein etan baitire, estiote permetitzen zer diren konprenditzea, eta arrazoiñik gabeko bestiak bezala, bere pasioneak segitzen ditustela, bere arimen heriotze eternalaren kaltetan haiñ plazer laburrak erosten dituste.

Zato beras, ene semea, edo allaba es behiñ ere zure pasioneak segi, eta erregelatuak estiren nahiei ukha diokozute.

Emazu launa baithan zure boskarioa, eta zure bihotzeko botu eta galdetzeak konplutuko ditu.

Nahi baduzu izan boskario egiaskoa, eta abondanzia handirekien ene lainkosko konsolazioneak gustatu; munduko gauza guziak mes-

preza zatzu, abandona hemengo plazer flakoak, eta zureganat ene benedikzioak isuriko ditut, zure arima ezin etsplika deiteken dulzetasunes betheko.

Zenbatenas kreaturetan satisfa ahal zaitzaketen gauzetarik separatzen baitzare, hanbatenas ene baithan boskario puxantagoak kausituko ditutzu.

Egia da berehala gudu, pena eta tristeziarik gabe hautan eziñ sart zaitezke.

Zure kostuma gaistoa oposatuko da, baiñan hobeagoas benzutua izaren da.

Haragiak sentiaraziko daroskitzu bere erre-boltak baiñan ispirituaren kharras bridatua izaren da.

Suge zaharra bere malezia eta biolenzia guziarekiñ zure kontra armatuko da, baiñan zure othoitzek ihesi egorriko dute, eta trabailu progo-txuskoaren kontinuazioneak zure bihotzeko atherik prinzipalenak zarratuko diotza.

XIII. GARREN KAPITULUA

Nola bihotz ones obeditu behar den, Iesu Kristoren Imitazionetan

IESU KRISTOK

Nork ere ihes egiten baitio obedienziari, hai-
ñak bere buruari grazia ebasten dio; eta nork ere
ontasun propio eta partikularra bilhatzen baitu
komun eta jeneraletik gabetzen da.

Nor ere bere superiorentzat borondate oso
batekien obedient esbaita, erakuisterat emaren
du, bere haragiak estioela obeditzen, baiñan
mais ispirituairen kontra erreboltatzen dela.

Ikhas zazu beres berehala, zu gidatzen zai-
tustenei obeditzen, baldiñ nahi baduzu haragiak
pruntki obedi diezazun.

Fite kanpoko etsai hori benzutuko duzu, bal-
diñ zure bihotza bere buruaren kontra dibisatua
espada.

Zure arimak duen etsagik gaistoena zu zero-
ri zaitu, nois eta ordus ispirituko legeak zurega-
nik galdetzen duenari, errendatzen espaisko.

Etzare sekulan haragi eta odolaren benzu-tzaile izaren, zerori zeure burua mesprezio egiasko batean, eman arteraiño.

Beldur zare bertzeen borondateei osoki abandonatua izateas, zeren amudio erregelatua esten bates, zeure burua maite duzun.

Baiñan zer mirakuilu liteke, baldiñ lainkoaren amoreagatik gizon hari obeditzen baziño herrauts eta esteusa zarenas geros; nik puxantzaz guziak ditudalarik, zeru eta lurra kreatu, gizon egiñ, eta zureganako amudioa dela kausa gizonei beheratasun handirekiñ obeditu ondoan?

Guzietako humilen eta beherena egiñ nais, gizonaren banitatea lainko baten humilitateas benz dezazuntzat.

Ikhas zazu obeditzen, herrauts superbiosa; ikhas zazu zeure buruaren behekitzen, lur eta herrautsa, eta guzien oiñen aspitan ostikatua, izaten.

Ikhas zazu zeure borondateen hausten, eta obedientziaren biktima zeure burua errendatzen.

Bero zaite khar saiñdu bates zeure buruaren kontra eta etzazula sofri urguilutasuna zure bait-han bizi dadiñ.

Egiñ zaite haiñ xume eta beheiti zaite haiñbertze, guziak zure gaiñean ibil ahal deitesken bezala, hala nola karrikako basaren gaiñean baitabiltza.

Zertas pleinta ahal zaiteske, gizon presunzio-nes bethea, zer duzu errateko, indurias bethetzen zaitustenen kontra? haiñbertze bekhatu lizundua zarenas gerostik, haiñbertze induria lainkoari egiñ diozun gerostik, eta haiñbertze-tan ifernua merezitu duzun geros?

Hetarik ene miserikordia xoilak libratu zaitu, zeren zu ene begien aitzinean preziatu izatu baitzare, eta erakutxi nahi izan baitarotzut zenbat maite zaitudan, bethiere egiñ daroskitzudan ontasunen ezagutzan zarenzat, eta mesprezatuazatea pasienki sofritzen duzula, obediencia sin-zero batean eta humilitate egiaskoan kontinualki, zeure burua ematen trabaila zaitezentzat.

XIV. GARREN KAPITULUA

**Nola beldurtasun saiñdu batekiñ
konsideratu behar den, zenbat
lainkoa garbi den**

ARIMAK

Jauna, manera hortan mintzo zaiskidanean, zure justiziaren ihurtziriek itxaratzen naute, beldurtasunak ene hezurretaraiño penetratzen du, eta ene arima ikhara handi batean da.

Harritua nago, eta zeruak berak garbiak estirela zure aitzinean konsideratzen ditut.

Baldiñ aingeruetan korrupzioea kausicu baduzu, eta miserikordiarik gabe hartas punitu, zer izaren da nitas?

Izarrak erori dire zerutik, eta ni herrautsa zer esparantzetan ahal neiteke?

Ikhusi dut presunarik zein biziak hagitz laudatzekoa baitzidurien, zerutik berehala erortzen direla; eta aingeruen ogia jaten zutenak urdeen eskurren jaten atsegiñ hartzen zutela.

Esta beras, launa, saiñdutasunik, baldiñ zure esku saiñduak hura sustengatzen espadu.

Esta zuhurtziarik gu gida ahal gaitzakenik;
zure argiak hura gobernatzen espadu.

Esta indarririk gu sustenga ahal gaitzakenik,
zure puxantzak hura konserbatzen espadu.

Esta garbitasunik segurantzaz, haren defen-
datzeko artha zerorek hartzen espaduzu.

Fiñean iratzarririk egote batek ere eziñ arima
salba dezake, baldiñ haren goardatzeko zerori
iratzarririk espazaude.

Usten gaitutzun bezaiñ sarri, erortzen eta
galtzen gare eta gureganat ethortzen zaren
bezain sarri, alxatzen eta bizitzen.

Ezen inkonstanzia bera gare, zuk xoilki arras-
tatzen eta fiñkatzen gaitutzu.

Epheltasuna bera gare, eta zuk xoilki anima-
tzen eta sustatzen gaitutzu.

Helas! ala nik semtimendu beherak neure
buruas behar baikitut; ala nik ene baithan ahal
deiteken ontasun aphurra, guti estimatu behar
baitut.

Ala nik zure juiamenduen thulunbio behere-
tan, hagitz humiliatua behar baitut, launa, zeñ-
tan bekhatu eta esteusa neure burua kausitzen
baitut.

A! nexatzen naben pisu harrigarria! o itsaso fundamen gabekoa, zeñetan deusik espaitut neure buruas kausitzen, lekhat, manera guzietan esteus bat nazela baizen!

Non izaren da beras hemendik harat ene baithan urguilutasunaren erro hura, hala nola bertute konzebituas ahal dukedan kondidenzia hura?

Banitate hori guzia zure juiamenduen behe-ratasunean funditua da.

Zer da gizona, eta haragi guzia zure begien aitzinean?

Basa glorifika deiteke hura formatzen duenaren kontra?

Nola hitz trunpurek lainkoari osoki obedient zaion bihotz bati banitatea inspira ahal diozake-te? bere aspian dadukan bat, mundu guziak eziñ altxa dezake, eta lainkoa baithan xoilki bere esparantza eman duena gizonen laudorio guzies esta mobituko.

Seguranta da hek eta hekien hitzak xismistak bezala iragaren direla, eta launaren egia eternitatean dagoela.

XV. GARREN KAPITULUA

**Nola lainkoari gauza guzietan
erremetitu behar zaion, eta
deusik esten lainkoak nahi
duenik baizen desideratu behar**

IESU KRISTOK

Ene semea edo allaba nahi dut gauza guzietan erran diezadazun; launa, arren nik proposatzen darotzudana egiñ bedi, zure borondatea hala bada.

Baldiñ, launa, gauza batean ohoratua bazare, zure gloriarentzat egiñ dadilala.

Baldiñ aitzinetik ikhusten baduzu nik galdegiten darotzudana progotxusko zaitala, egidazu grazia hartas zure ohoretan zerbitzatzeko.

Niri kalte egiñ ahal diezakedala, eta ene salbamenduaren etsaia dela ezagutzen baduzu, ene arimatik halako desira eta pensamenduak khien zatzu.

Ezen desira guziak estire ispiritu sainduagani heldu, gizonari on eta zuzenak iduritu arren.

Absolutuki juiatzea, ea ispiritu ona ala gais-toa den, gauza gaitza da, edo zure ispiritu propioa espada zerbeit gauzaren desiratzerat pusatzzen zaituena.

Askenean hainitzak trunpatu izan dire, zeïnek uste baitzuten ispiritu onas gidatuak zirela.

Bethiere zure galdetze eta desirak beldurtasun eta humilitaterekiñ ofrendatu, eta ene disposizionerat erremetitu, zeure borondate propioari ukho egiten diozula, behar daroskidatzu.

Bethiere erran behar darotazu; launa, bada-kizu hoberena zeïñ den. Hau egiñ bedi edo estadin egiñ, zure borondare sainduaren ordenaren araberat.

Indazu plazer duzuna, plazer duzun maneran, eta plazer duzun denboran.

Nola tratatu behar den baitakizu, eta hala egiñ nazazu, zuri agradagarri eta zure ohoreari gehien izaten zaion bezala.

Nahi duzun lekhuan eman nazazu, eta gauza guzietan libertate oso batekin nitas disposazazu.

Zure lainkosko eskuan nais, turna nazazu baterat eta bertzerat plazer izaren zaitzun bezala.

Huna non naizen zure esklaboa, guzietarat prest, neuretzat bizi nahi estudanas geros, baiñan bai zuretzat; zure ontasunari nahi dakiola digneki eta perfetki.

OTHOITZA

O Jesus, zeinaren ontasuna infinitua baita, o ene bihotzerat zure grazia isurt zazu enekien, den, enekien trabaila dadiñ, eta askeneraiño enekien persebera dezan.

Zer ere agradarri baitzaitzu, eta zer ere eneganik gehienik desiratzen baituzu hura bera desiraras diezadazu. Zure borondatea den enea eta eneak zurea dezan segi eta perfeki harekien konforme dadiñ egin.

Nahi edo ez nahi izatea, den bethiere ene baithan, zure baithan bezala, eta estudan sekulan nahi zuk nahi duzuna baizen, eta ez nahi, zuk nahi estuzuna baizen.

Arren egizu, naizen hilla munduko gauzentzat, eta es ezagutua munduas, hala nola zure amoreagatik mesprezatua.

Egizu arren munduko desira ahal dezakedan gauza guzietan baiño hobeki zure baithan errepausa nadiñ, eta ene bihotzak zure galtzarrean bere bake eta boskarioa kausi dezan.

Zu zare bihotzaren bakea, zu zaren errepausua.

Zutas kanpoan gauza guziak gogor eta inkie-tak dire.

Arren gustaras diezadazu lainkosko lo eta errepausu bake suberanoan kausitzen dena, erran nahi da, zure baithan, ene lainkoa, ontasun bakhar, suberano eta eternala.

XVI. GARREN KAPITULUA

**Nola egiasko konsolazionea
lainko xoilak baithan bilhatu
behar den**

ARIMAK

Ene Jainkoa zer ere ene konsolazioneentzat desira eta pensa ahal baitetzaket, estire mundu huntan baiñan bai zeruan nerori baxharrik munduko plazer eta atsegiñ guzies gozatzen banintz ere, segur da, men men bates iragan leiteskela.

O beras ene arima, eziñ kausi dezakezu boskario oso eta perfektik zure Jainkoa baithan bai-zen, zeña pobreen konsolatzaile, eta humilen adiskidea baitha.

Zaude aphur bat, zaude ene arima, zure salbaitzailearen promesen begira; eta ontasun guzies bethea izaren zare zerbetan.

Presenteko ontasun lurreko hauk Jainkoaren ordenuaren kontra desiratzen baikitutzu, zeruko eta eternalak galduko ditutzu.

Presentekoes zerbitza zaite, eta sekulakoak desira tatzu; ezen munduko deusek eziñ osoki

kontenta zaitzakete, zeren espaitzare hetas gozatzeko kreatua.

Kreaturetan diren ontasun guziak poseditzen baziñtu ere etziñteske dohatsu.

Iainko xoilu da zure ontasun suberanoa, eta hark xoilki dohatsu errenda ahal zaitzake ez munduaren maitatzailleek uste eta desiratzen duten bezala, baiñan giristiño fidelek duten bezala eta aitziniñetik arima ispiritual eta garbiek gustatzen duten maneran zeinñen konbersazione eta afekzionea zeruan baitha.

Lurretik heldu den konsolazionea falso eta iraupen gutitakoa da.

Esta dohatsurik eta egiaskorik, gure bihotzaren barnean egiak berak sentiarasten darotzunik baizen.

Jainkosko presunak berekien lekhu guzietarat badarabila bere konsolatzailea, zeinña Jesus baita, zeinñari mais erraten baitio; lagun nazazu, ene salbatzailea, denbora eta lekhu guzietan.

Ene boskariora den munduko allegrantzia guzietarik gabetua izatean.

Zure konsolazionea saltatzen bazait, zure borondatearekiñ konforme izatea, eta zuk gai-

tzetan nitas egiten duzun frogantza, den ene konsolazione handia.

Ezen zure kolerak estu bethiere iraunen, eta zure mehatxuen garratstasuna esta bethierekoa izaren.

XVII. GARREN KAPITULUA

**Nola lainkoa igoalki bake eta
trublean benedikatu behar den**

JESU KRISTOK

Ene semea edo alaba ustazu eurekien nahi dudanaren egitera, ezen badakit zer zaitzun progotxu.

Zuk gizon bezala gauzak ibiatzen ditutzu, eta nola zure afekzioneak mundukoa baitire, zure pensamenduak ere hala dire.

ARIMAK

Egia da, Jauna, zuk diozuna infinituki artha gehiago duzu nitas ezen ez nik nerorek ahal bainuke.

Zure galtzarrerat bere burua etxatzen estue-na, eta zure ontasun bakharrean errepausatzen estena, handiski erortzerat exposatua da.

Egidazu xoilki grazia ene borondatea zure baithan fermu, eta zureganat bethiere hedatua dagoen; eta ondoan plazer izaren zaitzun bezala nitas disposa zazu.

Ezen inposible da niri arribatuko zaitan guzia zure ordenus esten bethiere on eta progotxuskoa.

Baldiñ ilhunbean naizen nahi baduzu, zaren hargatik benedikatua, baldiñ argitan, zaren oraiño benedikatua.

Baldiñ ene arima konsolatu nahi baduzu, zaren laudatua; baldiñ aflijitu nahi baduzu, zaren oraiño laudatua.

IESU KRISTOK

Ene semea edo allaba baldiñ enekien ibili nahi baduzu, manera hortan gidatua behar duzu izan.

Igoalki behar duzu izan dolore, eta boskario-entzat disposatua.

Errepausu berarekiñ errezibitu behar ditzazu edo aberatstasunak eta bethetasuna edo pobrezia eta beharra.

ARIMAK

Jauna, bihotz ones zuregatik zure ordenu sainduaren araberat arribatuko zaizkidan gauza guziak, sofrituko ditut.

Indiferenki zure esku saiñdu eta adoragarri-
tik, on eta gaitza, dulzetasun eta garratztasuna,
boskario eta tristezia, errezibitu, eta guzientzat
graziasko akzione bethierekoak errendatu nahi
ditut.

Xoilki bekhatu guzietarik guarda nazazu, eta
estut beldurtasunik izaren ez herioarentzat ez
eta ere ifernuarentzat.

Zeureganik sekulakotzat etxatzen espanau-
zu, eta bizitzearen liburutik urratzen, arriba ahal
dakiskidan gaitz guziek eziñ kalterik egiñ dieza-
ketet.

XVIII. GARREN KAPITULUA

**Nola Iesu Kristoren eta saiñduen
exenpluen ondoan gauza estia
behar zaitzun sofritzea**

IESU KRISTOK

Ene semea, edo allaba zure salbamenduagatik zerutik jautsi nais, zure miseriak, ez nezesitates, baiñan amudioaren gaiñdidura eta biolenzias hartu ditut, zuri pazienza irakastekotkat, eta mundu huntako pena eta trabailuak bihotz ones sofri dezatzuntzat.

Ezen sorthu nintzen men menetik, gurutzean hil arteraiñoakoan, es nais dolore gabe izatu.

Askeneko pobrezian bizi izan nais.

Mais ene kontra egiten zitusten pleintak aditu izan ditut.

Mantsoki induria eta desohoreak sofritu ditut. Ene ungi egiñak ingratasunes, ene mirakuiluak blasfemioes ene doktrina saindua mesprezios pagatuak dire ikhusi izan ditut.

Jauna, horren pazient zeure bizitzean izatu zarenas geros, eta hortan berean zure aitari obedientzia soberano bat errendatu, justu da ni bezalako bekhatore miserableak, bere burua zure borondate saiñduari obeditzeko sofri dezan eta zuk ordenatu nahi darotazun bezenbat denboras, bizitze mortal hunen karga ene salbamentuarentzat ekhar dezadan.

Ezen bizitze hau trabailuskoa izan arren, guziarekiñ zure graziaren puxantzas merezimenduen suiet bat da; eta flakoen direnek es solament zure eta zure sainduen doloreen exenplues hura behar dute suportatu, baiñan halaber oraiño behar dute estimatu.

Hargatik lege zaharrean zuten baiño konsolazione gehiago dugu, zeinnetan zeruko athea oraiño zarratua baitzen eta harat gidatzen zuen bidea ilhunagoa eta gutiago ezagutuagoa, gutiak zirenas geros haren bilhatzerat penetan ematen zirenak.

Erresuma eternal hartan sartzea lehenbiziko denbora hartako bereko justu, eta sainduei debekatua zen, zeren eta zure odolaren prezioas

eta zure gurutzearen indarras eta glorias baizen eziñ idek ahal baitziteken.

Nola beras niri eta zure fidel guziei egiñ darokuzun grazia aski ezagut ahal dezaket, haiñ bide zuzena eta segura, zure erresuman sartzeko, erakutxi darotzuzunas geros?

Ezen zure bizitze saiñdua gure bidea da, eta zure pazienza adoragarria bide bat da, zeinaren medios zureganat, gure golardo eta khoroarat bezala goan behar baitugu.

Zerorek lehenik bide hori erakutxi espaziñdu, hala nola lehenik hortan ibili baitzare, nor zure segitzerat penetan ematen zen?

Helas! zenbatak izaren ziren zure gibelean, zureganik urrunduk egoren zirenak, zure eman duzun exenpluas animatuak izan espalire?

Ikhusten duzu, ene lainkoa, mirakuiluen nonbre handiaren, eta utzi daroskigutzun instrukzio-neen ondoan, ephel eta langituak garela.

Zer liteke beras, zerorek argi handi hori zure segitzeko bistu espaziñdu?

XIX. GARREN KAPITULUA

**Nola giristiñoak bere burua
pazienziarat disposatu behar
duen**

IESU KRISTOK

Ene semea, edo allaba etzazula pleiñtarik gehiago egiñ, ezagutzen duzunas geros eziñ egiñ dezakezula, baldiñ ene eta ene saiñduen doloreak konsideratzen baikitutzu.

Odolaren isurtzeraiño estiozu oraiño zeure buruari resistenziarik egiñ.

Zure pena guziak deus gutiak dire, bertze hainitzek sofritu ditustenekien konparatzen badi-re, zeinzen gaitzak gaiñdiduran izan baitire, nahis konsideratzen dela hekien handitasuna, nahis diferenzia, nahis luzetasuna.

Zeure ispirituan hekien aflikzione handiak errepasa zatzu, zeure xumeagoak dulzekiago sofritzekotzat.

Baldiñ handiak iduritzen baitzaikitzu, zure pazienziaren eskasak sentimendu hori ematen darotzu.

Baiñan nahis hainitz, nahis guri sofri deza-
zun, duzun bethiere artha kuraioski sofritzea.

Zeure burua ungi sofritzerat disposatzea
zuhurtzia handia da, gaitzak berak ariñago iduri-
tuko zaiskitzu, ungi hetan erresolitua zarenean,
eta merezimendua ere handiagoa izaren da.

Etzazula sekulan erran eziñ sofri dezaket
hunelako presunas ni manera huntan tratatu ika-
tea! hori eziñ suporta ahal deiteken gauza bat
da.

Afruntu handi bat egiñ darot, eta egundaiño
orhoitu esnazen gauzes erreportxu egiñ darot.

Fazilki bertze presunak sofri netzake, eta
bada bertze hainitz ofensa zeñes espainuke
axolarik.

Pensamendu hori arrazoin gabeko imajinazio-
ne bano bat da, zer den pazienziaren bertutea,
eta nork hura errekonpensatu behar duen konsi-
deratzen estenas geros.

Baiñan bai xoilki nor den ofensatu duen pre-
suna, eta zer den errezibitu den ofensa.

Plazer duenaganik, eta plazer duen bezanbat
baizen sofritu nahi estuen presunak, estu
pazienza egiaskoa.

Pazientziaren bertutea poseditzen duenak estu goardiarik egiten ala bere superiorak, ala bere igoalak, ala bere aspikoak, ala gison esteus batek, ala saiñdu batek, ala gaisto batek sofriarasten dioen; baiñan indiferenki mundu guziaganik arriba ahal dakiskion gaitz guziak errezibitzen ditu.

Iainkoaren eskutik horiok guziak errezibitzen ditu, eta uste du irabazi handia egiten duela, zeren eta gauzarik xumeenak lainkoagatik sofrituak direnean, espaitire merezimendurik gabe haren beraren aitzinean.

Zaren beras gudukatzerat bethi prest, baldiñ biktorios gelditu nahi baduzu.

Pena gabe pazientziaren khoroa eziñ ardiets deiteke. Sofritu nahi espaduzu, estuzu khorotua nahi izan.

Khoroa desiratzen baduzu jeneroski gonbata zaite, kuraioski sofri zazu.

Trabailuaren prezioa errepausua da, eta guduaren errekonpentsa biktoria da.

ARIMAK

Arren, ene lainkoa, naturalki imposible diruriena, zure graziak diezadan posible errenda.

Badakizu sofritzeko indar guti dudala, eta gaitz xume batek inkietatzen nabela.

Egizu beras, arren gaitz guziak, zeñes zure izenaren ohoretan ene exerzatzea plazer izaren baitzaitzu, su handirekien desira detzadan, hagitz abantail handia zaitanas geros ene arimaren salbamenduarentzat sofritzea, eta zuregatik persekutatua izatea.

XX. GARREN KAPITULUA

**Nola lainkoari bere flakezia
propioa aithortu behar zaion,
eta halaber munduko miseries**

Konfesatzen daroskitzut, Jauna, ene hoben guziak, konfesatzen daroskitzut ene flakezia guziak.

Mais esteuskeria batek abati eta tristatzen nau. Batzuetan kuraios izateko deliberazioneak hartzen ditut; baiñan tentazionerik mendreenak suprenitzen nabenean estakit zer egiten naizen.

Batzuetan esteuskeriasko gauza batek tentazioneari lekhu ematen dio.

Eta nois eta ere uste baitut aski segur naizela, zeren espaitut perila presentean ikhusten, erremarkatzen dut haize xume batek kolpe bates etxatzen nabela.

Etxa zatzu beras begiak, launa, ene beheertasun eta flakotasunaren thulunbioen gaiñerat, zeñak nik neronek baiño hagitz hobekiago penetratzen baikitutzu.

Duzun zure kreaturas konpasione, eta basatik thira nazazu, han barna sarthua esnagoen eziñ ilkhi naiteken bezala.

Hark mais ximikoak ematen daroskit, eta zure aitzinean ahalkerias estaltzen nau ikhustas haiñ flako, eta puxantza gabe naizen ene pasionei resistentzia egiteko.

Zuk ni zure grazias goardatu, arren konsenti estezadan, gustiarekiñ pena handia dut, bethiere horlako gudu eta hauzian bizitzea.

Hemendik agertzen da ene flakezia, zeren eta imajinazione edo fantasia ahalkagarri gaisto hek fazilkiago ene ariman sartzen baitire, ezen es handik ilkitzen.

O Israeleko lainko puxanta, arima fidelen esposa, zure zerbitzariaren trabailu eta penak ikhus zatzu, eta ene akzione guzietan gida nazazu.

Zeruko indarras borthitz nazazu, haragi miserable hau zeinarekiñ bethiere gure bizitzean gudukatu behar baitugu, ispirituas gorago ene baithan altxa estadiñ, zeinari espaitzaio oraiño obedient.

Helas! ala bizitze hau dohakabea baita, bethiere tribulazione eta miserietan denas geros, zein etan gauza guziak etsaies inguratu eta bethiak baitire.

Gaitz bat pasatu ondoan bertzea han da, tentazione bati bertzea darraiko; eta oraiño etzare haiñ fite etsai baten gonbatetik ilkitzen non kolpe bates etzaren surprenitua kausitzen bertze etsaien nonbre handi bates.

Nola horrenbertze garrastasunes betherikako, eta miseries inguraturikako bizia maita ahal deiteke?

Nola hori bizia deit ahal deiteke, hainbertze izurri eta heriotzeen ama abundanta denas geros?

Gustiarekiñ hainitzek maite dute, eta bere plazer eta errepasuak han kausitzerat egiñ ahala egiten dute.

Mundua akusatua da bano eta tronpura dela, gustiarekiñ pena dute hainitzek haren kitatzea, zeren eta haragiaren desira gaistoak nausi baitire.

Bi pendura sentitzen ditugu gure baithan, zeïnek traiñatzen baikaituste munduaren maitatzerat eta denbora berean mesprezatzerat.

Parte batetik haragiaren nahiek, begietako dibertimenduek, eta bizitzearen superbiotasunak haren maitatzerat ekartzen, eta bertze partetik miseria harrigarriek hura segitzen ditustenek, unhagarri hura kausiarasten darotzute.

Baiñan helas! amudioaren eta dibertimenduen plazer gaistoak badarama hura hañitzen arimatarat, zeïnek pikatzen ditusten arantzeas egiten baitute bere plazera, egiaski egundaiño Jainkoaren dulzetasuna, eta barneko bertutearen edertasuna estute ezagutu ez eta ere gustatu.

Kontrarat mundua perfekiki mesprezatzen, eta ostikatzen dutenek, badakite zer den zeruko boskario hura, zeïña, hura mesprezatzen dutenei ematen baitzaiote, eta ondoan klarki hura maite dutenen tronperia eta ignoranzia handia ezagutzen dute.

XXI. GARREN KAPITULUA

**Nola lainkoaren aitzinean
humiliatzen den arimak, hura
beregana tiratzen duen bere
konsolazionearentzat**

ARIMAK

O ene arima gauza guzietan eta gauza guzien gaiñetik errepausa zaite zeure launa bait-han, ezen saildu guzien errepausu eternala hura da.

O Iesus infinituki dulzea, eta infinituki maitagarria, egizu arren zure baitan bake eta errepausu gehiago kausi dezadan konparazionerik gabe, ezen es kreaturea guzietan, osasunean baiño, edertasunean baiño, gloria eta ohorean baiño; puxantza eta dignitatetan baiño, zientzia eta argietan baiño aberastasun eta argietan baiño, boskario eta dibertimendutan baiño, erreputazio eta laudorioan baiño, plazer eta atseginetan baiño, zuk niri eman ahal dietzakedatzuk-
en esparantza eta promes guziak baiño guk ahal dituskegun merezimendu eta nahi saildu

guziak baiño, grazia eta fagore gure arimek ahal ditusketenak baiño, zureganik errezibi ahal detzakegun dulzetasun eta konsolazione eziñ explika ahal deiteskenak baiño, gehiago estima zaitzadan, ene Iesus maitea.

Nadin errepausa zure baithan xoilki, aiñgeruetan, arxanjeluetan eta zure tronu sakratua inguratzen duten ispiritu dohatsuetan baiño obeki; hitz bates gauza ageri, eta ageri estirenetan baiño, eta jeneralki diren guzietan baiño baldin zu zerori bera espadire, o ene bihotzeko lainkoa.

Ene lainko launa zu xoilki guzies gorago zare zure ontasuna haiñ da infinitua, nola zure handitasun eta puxantza.

Zeure baithan kausitzen duzu keure dohatsutasun eternalaren bethetasuna, eta eziñ huts deiteken ithurri sakratua.

Boskario eta konsolazione guziak zureganik heldu dire. Zu zare edertasun baxharra eta xoilki maitagarria, zu zare majestate eta gloriaren itsasoa, zeinietan bethiere izatu baitire ontasun guziak, eta halaber baitire eta izaren eternitatean bere, perfekzione suberanoan.

Hargatik zuk zerorek ematen, deskubritzen, eta prometatzen daroskidatzun gauza guziak, zu zerori klarki niri agertu, eta zutas ni gogarazi gabe, estire kapable niri satisfakzione oso baten emateko, zeren ene biotza eziñ osoki kontenta baititeke, baldiñ zure kreatura donu guzies gorago, zure baithan xoilki errepausa dadintzat, altxatzen espaduzu.

O Iesus garbiena eta arima xahuen espos maiteena, eta zeruko eta lurreko nausia! nork egiasko libro errendatuko nau, eta nork zu baitaraiño hedatzeko, han errepausa nadintzat, hegala ematen daroskit.

Helas! nois izaren nais hararaiño dohatsu, osoki neure burua okupatua ikhusiko baitut, kon sideratzen dudala, zeñ estia zaren bilhatzen zaitustenen alderat, o ene laun, eta ene lainkoa.

Nois zurekien berris perfekiki juntatuko nais, zure amudioas poseditua naizela neure buruaren sentimendu eta gustu guziak gal detzadantzat manera sensu eta pensamendu guzies goragoko huntan, zeña guziek ezagutzen baitute zu xoilki sentitzeko eta gustatzeko.

Presentean neure bizia suspiretan daramat,
eta ene miseriaren pisu nekhatzen nabena dolo-
rerekiñ ekartzen dut, ezen nigarresko lekhu
behera hunetan, mais badire nekharresko
okhasioneak, zeinek ene arimarat truble tristezia
eta ilhuntasunak etxatzen baikituste.

Manera huntan sensuen peites enbrazatua
neure burua konsideratzen dudala, eziñ liberta-
terekiñ zureganat hurbil naiteke, ez eta ere goza
zure kareza miragarries, zeinetas ispiritu doha-
tsu zure aldean direnak ohoratzen baikitutzu.

O ene lainkoa, etzaren gor ene suspirentzat,
eta zaren lurrean sofritzen ditudan gaitz guzies
ukitua.

O Iesus gloria eternalaren distiadura, arima
desterrusko lekhu huntan afljitua denaren kon-
solatzailea!

Zure aitziñean ene arima adorazione mutu
batean da, eta bere ixilik egoteas mintzo zaitzu.

Nois arteraiño ene bisitatzera ene launak
luzatuko du? ethor bedi ni bezalako pobre esteu-
saganat, eta nazan bere boskarioas allegera,
dezan heda bere eskua, dohakabe bat dezan
athera bere miseriatik.

Zato, ene lainkoa, zato, eziñ duket dohatsa-
tasuneko oren bat, ez men men bat ere zu gabe,
zeren zu zerori bakharrik baitzare ene boskario
guzia, eta zuk zerorek behar bainauzu naurritu.

Miserian langitzen hari nais, eta presondegi-
batean bezala, oiñetan burdinak ditudala kausi-
tzen nais, zure presenziaren argias konsola
nezakezukeiño, eta libertatea errendatu arterai-
ño, zure bisaia dultze eta maitagarria erakusten
darotasula.

Bertzeek bilha eta maita bezate zure plazan
plazer dutena; nitas bezanbatean, etzait deusik
agertzen, ez agertuko maitagarriagorik zu baiño
o ene lainkoa, ene esparantza eta dohatsutasun
eternala.

Bethi nigarres egoren nais, eta ez nais zesa-
tuko zuri othoitz egitetik, zure grazia ene baite-
rat turna deitekeiño, eta ene bihotzari mintza
zakiskon arteraiño.

JESU KRISTOK

Huna non naizen, ene semea edo allaba zure-
ganat heldu nais, zerен deithu baiñauzu.

Zeure nigar eta zure arimako nahiek, zure bihotzeko humilitate eta kontrizioneak zerutik jautsarazi naute eta zureganat thirarazi.

ARIMAK

launa, deithu zaitut, eta zutas gozatzerat desiratu dut, hauk guziak zuregatik mesprezatzerat erresolitu ditudanas geros.

Zerorek iratzarri nauzu zu bilha zaitzadantzat.

Zaren beras benedikatua, ene launa, zeren zure zerbitzariari zure miserikordiaren gaiñdidura hori zure ontasunas egiñ baitiozu.

Zer gelditzen zaio zure esklaboari? zure aitzinean humilitate handirekiñ beheititzea baizen, behiñere bere hobenen eta esteustasunaren orhoitpapena galdu gabe, ezen esta deusik zure iduritakorik, o ene lainkoa, zeru eta lurreko mirakuillu guzietan.

Zure obrak onak diren bezala, zure juiamenduak justu eta egiaskoak dire, eta kreatura guziak zure probidenzia soberanoas gobernatuak.

Zaren beras guzies laudatu era glorifikatua, o Jesus, aita eternalaren zuhurtzia.

Ene mihiak eta kreatura guziek lauda zaitzaten eta eternitate guzian benedika.

XXII. GARREN KAPITULUA

**Nola lainkoak egin daroskigun
ontasun handies orhoitu behar
dugun**

ARIMAK

Zure lege sainduan, launa, ene bihotza idik diezadazu, eta zure manamendu sainduetan nola ibilli behar dudan, irakats dazu, hala nola zure borondate saindua konprendiaras, eta detzadan atenzione handirekiñ konsidera, eta ene ispirituan fagore jeneral eta partikularak iragan, zeñes ene arima bethe baituzu, zor zaitzun ezagutzarekien, grazien akzioneak errenda dietzakizudantzat.

Egia da badakit eta bihotz ones aithortzen dut, esnaizela kapable, zure dohainik mendree-naren digneki ezagutzeko.

Egin darokidatzun ontasun guzies infinituki beherago nais, eta nitas gorago zenbat zaren konsideratzen dudanean, zure handitasunaren kontenplatzen, ene ispirituak faltatzen du.

Ariman eta gorputzean poseditzen ditugun gauza guziak, nahis ontasun barnekoak eta kanpokoak, nais naturalak, nahis naturas goragokoak, egiñ daroskidatzun haiñbertze grazia eta fagore dire, irakasten darozutenak nola ohoratu behar dugun fiñ gabeko ontasunaren ithurri sakratu hura, zeññetarik gure baithan diren ontasun guziak, isurtzen baitire.

Batzuek hetarik gehiago, bertzeek gutiago dute, baiñan guziak zureganik heldu dire, eta nihork eziñ deusik zu gabe duke, ez xoilki ontasunik mendreena ere.

Dohañik handiena errezebitu duena ezin bere merezias glorifika eta bertzees gorago altxa deiteke eta gutien errezebitu duenari erreportxurik ezin eman diozoke, ezen guzietako handien eta hoberena, gauzarik mendreenak bere buruari atribuatzen diotzana da, zeññak grazien akzione bethierekoak zuri errendatzerat humillena eta debotena baita.

Guzietako esteusena, bere burua estimatzen duena, hura da kapableena zure present sakratuen errezebitzeko.

Norbaitek fagore hetarik gutiena errezebitu duela ikhusten badu, estu tristatu eta asarratu behar, ez eta ere halaber gehiago errezibitu dutenei, inbidiarik ekharri behar.

Lehenik zure ontasun fiñ gabekoa admiratu eta ohoratu behar du zeñak nihar konsideratu gabe, abondanzia liberal eta borondatesko bates, bere presentak ematen baikitu.

Guzientzat laudatu behar zaituste, guziak zureganik xoilki heldu direnas geros.

Badakizu nori zer zaion konbeni; zuri dagotzu eta ez guri ezagutzea zergatik bat bertzea baiño gehiago edo gutiago den fagoratua; zeren zuk zerorek xoilki gizon bakotxaren merezien neurria, markatu baitutzu.

Hargatik ene lainkoa sinhesten dut, zuk presuna bati egiñ ahal diozokezuen graziarik handien bat dela, ez ematza haren baithan donu hetarik, zeñek kanpoan distiatzen baitute eta gizonen laudorio eta ammirazioneak bereganat thirutzen.

Baldiñ norbaitek bere burua pobre eta fagore guzies billuzia ikhusten badu, estu ez asarratu eta tristatu behar, baiñan konsolazione eta alle-

grantzia handi bat behar du izan, zerenzuk ene Jesus, pobreak humilak eta mesprezatuak zure adiskidetzat eta zure etxean egotekotzat hautatu baikitutzu.

Egia hunen lekhuko dire, zure Apostoluak, zeinak mundu guziko prinzetzat errendatu baikitutzu.

Gizonen artean bizi izan dire, hekienganik errezibitzen zitusten tratamendu gaistoes pleintatu gabe; humil eta sinple maleziarik eta tronperiarik batere etzutela.

Zure izenaren ohoretan afrunturik handienen sofritzean ematen zuten bere boskario guzia, eta munduak zer ere gehienik abhorritzen baitu, hura hek afekzione handirekien besartzatzen zuten.

Hargatik zu maite zaituenak eta zuk egin ditutzun ontasunak ezagutzen ditustenek, estute bertze satisfazionerik behar, zure borondate saindurat erremetitzea, eta gauza guzien gaiñetik zure desteinu eternalak adoratzeta baizen.

Hartas konsolatu eta satisfatuak behar dute izan, halako maneras bai, non borondates haiñ xume izaterat, behar bailukete desiratu, nola

norbaitek handiena nahi bailuke izan; eta hain kontent behar dute izan ikhustetas mesprezatuak eta nihortas ezagutuak ez izateas, nola anbiziosek nahi bailukete guzies ohoratu eta ezagutuak izan, ezen zure borondateak eta zure gloriaren izenak gauza guziak ixitu behar dituste, eta hetan satisfakzione eta boskario gehiago kausitu behar dute, zureganik errezibitu ditusten, eta ethorkizunean errezibi ahal detzaketen grazia guzietarik baino.

XXIII. GARREN KAPITULUA

Lau abisu inportanziaskoes, bethiere bakearen izateko

IESU KRISTOK

Ene semea edo allaba, orai bakearen eta libertate egiaskoaren bidea nahi darotzut erakutxi.

ARIMAK

launa bihotz guzias othoisten zaitut grazia hori niri egiteas.

JESU KRISTOK

Ene semea edo allaba, duzun harta bethiere bertzeen nahiaren lehenago egiteko, ezen ez zeurearen.

Gutis kontenta zaite, eta bethiere bertzeek baiño gutiago izatea hauta zazu.

Bethiere askeneko lekhua bila zazu, eta guziak baino beherago izate atsegin har zazu.

Bethi desira eta othoitz egizu lainkoaren borondatea zure baithan osoki konpli dadin.

Manera huntan gidatua izaren dena, duda, gabe bakean eta errepausu egiaskoan sarthuko da.

ARIMAK

Zure mintzo labor horrek hainitz perfekzione bere baithan zarratzen du.

Hitzes laborra da, baiñan sensu handis bethea, eta gure baithan produitu behar dituen fruktuetan abundanta da.

Haren goardatzerat fidel ahal bañintz, hain erreiski esninteke nahas.

Halaber bakea galtzen dudan guzian, eta neure burua inkietatua erremarkatzen dudanean, ezagutzen dut doktrina huntarik urrundua naizela.

Baiñan, zu ene lainkoa, gauza guziak ahal dituketzukena, eta bethiere gure arimen progo-txu ispirituala maite duzuna, ene baithan handiaras edo berretaras zazu zure grazia, zuk manatzen darotazuna perfekti konplitzen dudala neure salbamendua egin dezadantzat.

PENSAMENDU GAISTOEN KONTRAKO OTHOITZA

Jauna etzaitezela eneganik urrun, ene lainkoa begira diezadazu eta lagun nazazu; ezen haiñitz pensamendu eta beldurtasun handi ene arima aflijitzen dutenak, ene baithan alxatu izan dire.

Nola haiñbertze etsaien artetik pasatuko nais, hetas kolpatua izan gabe?

Nola hek ihesi egor ahal detzaket?

Erran darokuzu zure Profetas, zure aitziñean ibiliko nais, munduko Prinzeen insolenziak porroskatuko ditut; presondegitako atheak ideki-ko ditut, eta gauzarik sekretuskoenak agertuko.

Beras, launa, pronontzatu duzun Oraklea konpli zazu, eta zure bisaia sakratuaren aitziñetik ni trublutzen nauten pensamendu gaistoak doazen ihesi.

Ene esparantza eta konsolazione bakharra zureganat tribulazione guzietan ihes egitea da, ene konfidenzia guzia zu haithan ematea, ene bihotzeko funsetik zu othoistea, eta pazienziarekin zure konsolazionearen begira egotea.

ARIMAREN ARGITZEKOTZAT OTHOITZA

O Iesus ona, zure barneko argiaren klaritateas argi nazazu; eta ene bihotzeko ilhuntasun guziak kasa zatzu. Ene ispirituaaren ordinariosko distrakzioeak arrasta zatzu, eta tentazione borthitzenen egiñ ahalak hauts zatzu.

Enetzat borthiski guduka zaite, eta bestia gaistoak ihes egor zatzu, erran nahi dut karezatzen eta gu galtzeko lausengatzen gaitusten pasione hek; zure puxantzak bakea eman diezadanzat, eta ene arima garbitzen dela zure tenplu saindu egin dadiñ, eta zure gloriaren ohoretan himno eta kantikoak detzan kanta.

Haize eta tenpestei mana diozozute: errozu itsasoari, kalma adi, eta haizeari, etzakela gehiago egiñ haizerik, eta ene baithan kalma handia izaren da.

Ene ariman distiaras zazu zure egia, hartas argitua dentzat, zeren lur huts eta ilhuntasunes betherikako bat bainais, zuk erran arteraiño, egin bedi argia, eta den egiña.

Isurtzazu zerutik zure grazia, zure ihintz lainkoskoas penetra zazu ene bihotza, debozioneer ures egizu harat uri, lurraren ihintztatzeko, eta fruktu exzelentetan hura abundant errendatzeko.

Ene arima zureganat altxa zazu, zeïña guzia bere bekhatuen pisuan flakatua baita, eta egizu arren haren nahi guziak diren suspendituak, eta zureganat hedatuak, zeruko plazeren dulzetasuna gustatu ondoan lurrekoen pensatzean gorri eta ahalka nadintzat.

Thira eta osoki separa nazazu kreaturen konsolazione iraupeneko estirenerarik: zeren munduko gauza batek ere ene apetitu edo desira eziñ osoki errepausa eta konsola batezake.

Zurekien amudioaren gathe ezin urra deiteken bates junta nazazu, zeren zu zerori xoilki baitzare maite zaituena, bethe ahal dezakezuna, eta gauza guziak zu gabe espaitire itzal edo khea baizen.

XXIV. GARREN KAPITULUA

**Nola kuriositateari ihes egin
behar zaion, eta nola gauza
guziak lainkoaren gidarat
erremetitu behar diren**

IESU KRISTOK

Ene semea edo allaba, etzaren kurios, eta artha inutiles etzaitezela penetan eman.

Hunelako edo horlako egitekoes zer axola behar duzu izan, zure artha partikularrak ene segitzea behar du izan, zer axola behar duzu hunelako edo halako umore fuertetako, eta hala mintzo, eta manera suerte hartas baliatzen dela.

Estuzu zuk egun bates ihardetsi beharko ber-tzerentzat, baiñan zeronek zeure buruas kontu errendatu beharko duzu: zergatik beras inutilki zure burua penatzen duzu?

Nik guziak ezagutzen ditut eta iguskiaren aspian egiten diren gauzak ikhusten, bihotz guzien barne behera sundatzen dut; badakit bakhotxak zer pensatzen duben, zer desiratzen duben, eta zer den haren intenzioneen xedea.

Enegana beras gauza guziak erremittitu behar ditutzu, eta bake eta errepausuan zaude.

Utzatzu presuna inkietak inkietatzerat, nahi duten bezanbat.

Estute hitz bat erranen eta akzione batera egiñen zeñes espaitire obligatuak izaren niri kontu errendatzerat ezen ezin ni trunpa ahal nazakete, etzaitezela penetan eman erreputazione bano baten ardiesterat, edo hanitzen fami-liertasunean sartzerat, edo zenbait presunes maitatua izaterat.

Horiek guziek distrazione handiak ispirituan eta ilhuntasunak bihotzean kausatzen dituste.

Plazer har nezake zuri minzatzeas eta neure sekretuak zuri komunikatzeas, dilijenki ene bisita guardatzen baziñdu eta orduan zeure bihotze-ko athea idekitzen baziñarot.

Zaren zuhur eta prudent, zaren iratzarria othoitz egiteko eta gauza guzietan humilia zaite.

XXV. GARREN KAPITULUA

**Zertan dagoen, bake egiaaskoa,
eta arimaren abantzamendua**

IESU KRISTOK

Ene semea edo allaba, erran diotet ene diszipleuei usten darotzuet bakea, ematen darotzuet bakea, eta ematen darotzuedan bakea, eta munduak ematen duena bezalakoa.

Guziek bakea desiratzen dute, baiñan gutiak dire bake egiaaskoari konbenitzen zaiskon gauzen bilhatzerat penetan ematen direnak.

Ene bakea humilen, eta dulzeentzat da.

Pazienza handia baduzu, bakea kausituko duzu.

Ni aditzen banauzu eta ene hitza goardatzen, bake handi bates gozatuko zare.

ARIMAK

launa zer egiñ behar dut?

JESU KRISTOK

Gauza guzietan zer erraten eta egiten duzun, kontsidera zazu.

Estuzun bertze intenzionerik niri plazer egi-baizen eta nitas lekhora estezazula deusik bilha eta desira.

Estezazula temerarioki bertzeren erran eta egines juia, eta etzaitezela penetan eman bertzeren egitekoes orduan raroki trublaturaren zure eta zure trubleak berak ariñak izaren dire.

Ezen bethiere arima errepausuan izatea gorputzeko eta ispirituko penarik gabe, esta presenteko denboraren kondizionea, baiñan bai ethorkizunaren golardoa.

Estuzula beras uste bake egiaskoa kausitu duzula, penarik batere sentitzen espaduzu; ez eta ere orduan dela zure ontasunik handiena, nihor extajik espaduzu, ez eta ere fiñean zure bizitzea perfekta, dela, zure gogara gauzak arribatzen baitzaiskitzu.

Halaber etzazula zeure burua orduan handi estima, era estuzula uste partikularki lainkoas maitatua zarela, nais eta ordus samurtasun eta

debozioraren berotasun handi bat sentitzen baituzu.

Esta bertutes bethea dena seiñale edo marka hetas ezagutzen, eta esta hartan presuna ispiritalaren perfekzione edo abantzamendua.

ARIMAK

Zertan dago beras launa?

IESU KRISTOK

Perfekzionea dago, zeure burua zure bihotz guzias ene borondateari sakrifikatzean, zeure intresak bilhatu gabe, nahis gauza gutitan, nahis handitan, nahis denboran, nahis eternitatean halako maneras bai, non onei eta gaitzei igoalki begiratu behar baitiozute, eta batetan eta bertzetan graziasko akzioneak errendatu behar baitaroskidatzu, nik igoalki nahi dudanetan zuk hek guziak igoal kausitzen ditutzula.

Hain kuraios eta fermu bazare esparantzan; non zureganik ene graziaren gustu eta sentimendua erretiratzen dudanean zure bihotza oraiño gehiago sofritzerat preparatzeko; zeure burua justifikatu gabe, merezi espazindu bezala

haiñbertze sofritzeas, eta arriba ahal dakiskitzun gauza guzietan, ene saindutasun eta justiziari ohore errendatzen badiozu orduan bakesko bidean egiaski ibilliko zare, berris ere boskario handirekin ene presenziaren argia ikhusiko duzula.

Baiñan zure buruaren mesprezio oso batetar-
rat ethortzen bazare sinhets zazu arimak bizitze
huntan errezibi ahal dezaken bakerik handienas,
gozatuko zarela.

XXVI. GARREN KAPITULUA

**Nola sensuen peitei ihes egiñ
behar zaioten, ispirituko
libertatearen ardiesteko**

ARIMAK

Ezagutzen dut launa, arima perfet bati dago-kala zeruko gauzentzat bethiere aplikatua izatea, ata bizitze huntako egitekoak iragaitzas bai-zen ez egitea, okhupazioneen artean egitekorik gabe egoten dela, ez indiferenziako ispitu bates, baiñan arimaren libertate lainkoskoaren efektu partikular bates, zeñak espaitu nahi krea-tura bathi ere, lainkoari zor zaion amudioaren ordenaren kontra, afekziones junta dakion.

Othoisten zaitut beras, o ene launa, mundu huntako okupazionetarik, han enbrazatua esna-dintzat; gorputzeko behar eta nezesitatetarik plazerak atrapa esnazantzat eta arimaren tenta-zione guzietarik trabailu eta nekeek abati esna-zaten amoreagatik, goardatzeas.

Estarotzut galdegiten guarda nazazula, mun-danoek pasione handirekin bilhatzen ditusten

gauzetarik, baiñan bai behar dohakabe hetarik, zeñak gure izatearen pena eta maledikzione ordenarioskoak baitire, ene arima pisatzen, eta desideratzen duten bezanbat ispirituko libertate hartarat alxatua izaterat, debekatzen dutenak.

O ene lainkoa eziñ explika deiteken dulzetasunaren ithurria, egizu harren estezadan kausi garratstasunik baizen gorputzeko plazeretan, zeñek gauza eternalen arnuditik separatzen bainaute, eta bereganat gaski thiratzen, presenteko atsegin baten itxuras.

Haragi eta odolak ene lainkoa esnazatela bentzu, munduak eta haren gloria falsoek esnazatela trunpa, deabruak eta haren artifizio gais-toek esnazatela surpreni.

Indazu indar kuraioski gudukatzeko, pazientzia bakes sofritzeko, eta konstanzia fiñeraiño irauteko.

Indazu mundu huntako konsolazione guzientzat, zure ispirituaren gantzudura hagitz dulzea, eta munduko amudioarentzat isur diezadazu zure izenaren amudioa.

lateak, edateak, bestimendek eta gorputzeko bertze solejimendu guziak pisu zaisko arima sustatu bati.

Egidazu beras, grazia ene lainkoa, balia nadiñ gure flakeziasko erremedioes halako tenperanziarekin, sekulan sobra desiras harat neure burua ekhar estezakedan bezala.

Osoki ezin kita detzakegu zeren naturaren sustengatzera obligatuak baitzare; baiñan behar baiño gehiago bilhatzea, eta plazer gehien ematen darotzutenak, zure lege sainduak debekatzen doroskigu: ezen bertzela haragia errebolta-tzen da ispirituaren kontra.

Zure esku puxantak, o ene lainkoa, nazan argi eta errekuntra guzietan gida, moderakione justu bat hetan guarda dezadantzat.

XXVII. GARREN KAPITULUA

**Nola lainkoaren poseditzeko,
osoki lainko berari giristiñoak
bere burua sakrifikatu behar
dioen**

IESU KRISTOK

Ene semea, edo ene alaba, nahi banauzu osoki poseditu eman behar zaiskit, osoki deusik zeuretzat guardatu gabe.

Esta deusere munduan hainbertze kalte exat ahal diezakezukenik, nola zeuretzat duzun amudioak.

Zenbatenas afekzione gehiago edo gutiago izaren baituku gauza batenzat, hanbatenas harekien gutiago edo gehiago juntatua izaren zare.

Zure amudioa garbi, sinple eta ungi erregelaturak bada, osoki libro izaren zare etzazula desira permis etzaitzuna.

Etzazula deusere desira barneko libertateas debekaeta bilus ahal zaitzakenik.

Gauza espantatzekoa? nola etzaiskidan osoki, eta bihotzaren barnetik, desira edo posedi ahal dezakezuken gauza guziekien, abandona-tzen.

Zergatik zaude trisezia banotan? zergatik behar baiño okhupazione gehiago hartzen duzu, ene borondateari fermuki junta zakisko eta deusek estarotzu kalterik egiñen.

Gauza bat bertze bat baiño hobeki bilhatzen baduzu eta lekhu batean, bertzean baiño izan nahiago baduzu, zure intresa, eta zure borondate propioa satisfatzeagatik, sekulan etzare errepausan izaren, eta zure khexadurak lekhu guzietarat segituko zaitu, zeren eta desiratu duzunari bethiere zerbait gauza faltatuko baitzaio, eta lekhu guzietan norbait kontra egiñen darotzuna, kausituko baituzu.

Esliteke beras hardiets arimako bakea gauza kanpokoen poseditzean, edo hekien berretzean, baiñan bai mesprezatzean eta bihotzaren errotik osoki hek khentzean.

Estu ordean gutimendu horrek aditzen xoilki ontasun eta aberatstasunen amudioa, baiñan bai halaber ohore eta laudorioarenganako desi-

rarik mendreeana ere, zeren eta nahi hek guziak mundukoak, eta munduarekiñ iragaten direnak baitle.

Baldiñ pietatearen berotasunas gabetua bazare, hautatu duzun lekhua guti progotxutakoa izaren zaitzu eta kanpoan bilhatu duzun bakea esta iraupenekoa izaren, bihotzean egias-ki fundatua espada, erran nahi da ene baitan solidoki bortistua espazare.

Disposizione hori gabe lekhutik xanja ahal zeiteske, etzaiteske hargatik izan onago, ezen estuzu xanjatuko zeure burua.

Lehenbiziko okhasioneak erakutxiko darotzu zer zaren, eta zer gaitzi ere ihes egin nahi izan baitiozu, hura bera kausituko duzu eta oraiño gehiago.

OTHOITZA

launa borthitz zazu ene arima zure lainkosko subaz.

Gizon barrenekoan, konstant eta fermu errenda nazazu.

Progotxusko ez diren okhupazione guzietarik ene bihotza separa eta sustenga zazu abati estadin, eta estezazula premeti, gauza deus guti edo hanitz balio duenaren desirak bereganat thira dezan.

Egidazu grazia munduko gauzak berehala iragaten direla, eta ni ere hekiñ, konsidera dezadan.

Zeren eta espaita iguskiaren aspian deusere fermu edo konstant denik, zeñetan espaita banitaterik eta ispirituko aflikzionerik baizen.

Ala dohatsu eta zuhurra baita, gauza hauk manera huntan konsideratzen ditubena.

Indazu, launa, zuhurtziaren ispiritua, zu ontasun bakhar eta suberanoa bezala konsideratzen zaitudala bakharrik bilha eta kausi zaitzadan.

Egiku arren, gustu eta dulzetasun gehiago zure amudioan kausi detzadan, ezen es munduko gauza guzietan, eta zutas instruitua nazela, arren kreatura guziak bere baithan diren bezala, eta zure zuhurtziaren ordena dadukaren herruntzaren arabera, detzadan juia.

Egidasu grazia, arren lausengatzen nautenak prudenki urrun detzadan, eta gaiki egiten darotatenak pasienki sofri.

Ezen haiña egiaski zuhurra da, zeina arroka bat itsasoan bezala mobimendurik gabe baitago gizonek hartas erraten duten hitz guzietan, eta zeinak espaitio beharria prestatzen lausengatzen duben sirenari.

Hori da bide bat bethi bake eta segurantzan ibiltekoa launaren bide guzietan.

XXVIII. GARREN KAPITULUA

**Nola gizonen gutas erraten
ditusten gauza guziak,
mesprezatu behar ditugun**

IESU KRISTOK

Ene semea edo ene allaba etzaitezela asarra baldiñ zenbaitek zure kontrako zenbait pentsamendu badute, eta zuk nahi estuzun bezala zutas minzaten badire.

Hek baiño zuk gaikiago zure buruas oraiño juiatu behar duzu, eta sinhetsi, zu baño presuna flakoagorik munduan estela.

Bizitze barnekoan eta lainkoaren begietan bizi bazare, guti penetan emanen zare haizeak daramatzan hitzes.

Prudenzia handia da errekuntra gastotan ixilik egotea, eta bere baithan sartzen dela, enegant konbertitzea, munduko solas eta jujamendues trublatsu gabe.

Zure bakea estadilla dependi gizonen solasetarik: nahis ungi, nahis gaiki zuk egiten eta erratenditutzunak explikatzen baituste ere, har-

gatik etzare bertze presuna suerte bat, zarena baizen.

Non da bake eta gloria egiaskoa, ene baithan baizen? bake saildu bates gozatuko da gizonei plazer egitera desirarik estubena, eta halaber hei desplazer egiterat beldur estena.

Amudio erregelatua estena eta beldurtasun banoa, bi ithurri dire, bihotzeko khexadura eta ispirituko distrakzione guziak kausatzen ditustena.

XXIX. GARREN KAPITULUA

**Nola arimak bere atsekabe
guzietan lainkoa othoistu eta
benedikatu behar duen**

ARIMAK

Jauna, ene tentazione eta aflikzione huntarat erok nadiñ permetitu duzu; sekula sekuloronean den zure izena benedikatua badakit eziñ ihes egiñ diozakedala.

Baiñan nezesarioki zureganat behar dut izan erre Korsu, zuk zure graziaren laguntas, hura enetzat progotxusko errenda diezadazuntzat.

Ene arima aflijitua da, Jauna ene bihotzak eziñ errepausurik kausi dezake, tromentatzen naben pasione huntas hagitz presatua naizenas geros.

Eta orai zer erraren darotzut, o Aita soberano eta maitagarria?

Askeneko extremitatean nais, hura gudukatzeke orena orai berean salba nazazu.

Baiñan zuk zerotek huna zure gloriarentzat permetitu duzu zure graziaren puxantza distiarasteko halako peril handitik libratzen nauzula.

Arren launa, zure ontasuna zaitan fagoragarri, eta nazan salba, ezen ni bezalako pobreak, zer egiñ ahal dezake, eta norat goaren nais?

Indazu launa oraiño okhasione huntan pazienza.

Lagun nazazu ene lainkoa, eta estut beldurtasunik izaren, tentazioneas presatua izan arren.

Estatu huntan zer erran ahal diezakezut? bai-zen launa egiñ bedi zure borondarea.

Nik aflijitu, eta tribulatua izatea merezi izan dur, egiaski sofritu behar dut, eta oxala pazienki, tenpesta hau iragan, eta onerat eman deiteken artean; zure eskua hagitx puxanta da ni tentazione hortarik thiratzeko, eta haren biolenzia dulzatzeko, osoki harat eror esnadintzat; haiñ mais grazia hori egiñ darotasunas geros, o ene lainko, eta ene miserikordia; eta zenbatenas niri gaitzago baitzait, hanbatenas zuri errexago zaitzu, zure esku sainduaren xanjamendu hau.

XXX. GARREN KAPITULUA

**Nola aflikzionetan konsolatu
behar den. Eta nola Satanek
beldurtasun bano batzues
tentatzen gaituen**

JESU KRISTOK

Ene semea edo allaba ni nais aflikzionaeko egunetan, arimak bortisten dituben launa.

Zato enegangat penetan zarenean. Gehienik debekatzen zaitubena, zeruko konsolazioneen errezibitzetik, da zeren orazioneen medios enegangat hurbiltzerat, sobra luzatzen duzun.

Ezen zuk ni debozionerat othoistu baiño lehen haiñitz konsolazione biskitartean bilhatzen duzu, eta kanpoko gauzetan zeure burua erre-kriatzen.

Hargatik guti baliatzen zaiskitzu egiten dituzun gauzak, expedienzias ezagut detzaketzuk artheraiño, nik ene baithan esparantza dutenak perilletarik thiratzten tudala nek eta baitharik kanpoan estela laguntza aski denik, konseillu progotxus [...] erremedio iraupeneko de[...]

Baiñan orai tenpesta hori kalmarazi dudanean; hart zatzu berris zure ispirituak, senda zaite ene miserikordien dulzetasunean eta ene presenziaren argian, ezen saihetsean nais esolament zu lehenbiziko zure bakean berris emateagatik, baiñan bai oraiño grazia berries zu bethetzeagatik.

Deusik bada enetzat gaitz denik? Zertan nais igoal laguntzerat prometatzen dutenekien; eta este laguntzen.

Non da zure fedea? zaude fermuki eta luzeroki.

Zaren pazient eta kuraios, eta konsolazionea bere denboran ethorriko da.

Zaude ene begira, berris oraiño erraten darotzut, zaude ene begira, ethorriko nais eta sendatuko zaitut iragaren den tentazioneak afljitzen zaitu; eta zu ikharatzen zaituena, esta beldurtasun bano bat baizen.

Zer irabasten duzu zeure ispiritua tromentatzeas ethorkisuneko eta segur estiren gauzes lekhat xoilki tristezia eta pena penaren gaiñean doblatzen baizen?

Egun bati aski zaio bere gaitza.

Pensamendu bano bat da ethorkizunean bilha goaterat tribulazione edo bokariosko suieten zeñak menturas espaitire sekulan arribatuko.

Baiñan presunaren flakeziaren efektu bat da bere burua joaterat ustea, imajinazione trunpatzen duten hetarat; eta kuraia flakoaren seiñalea da bere etsaiaren lausengez arinki bere burua trunpatzerat ustea.

Ezen Satan esta penetan ematen ea proposatzen dituen pensamenduak gezurreskoak ala egiaskoak diren, lilura edo trunpa ahal badezake. Indiferent zaio gauza presentekoen amudio bates edo ethorkizunekoen beldurtasun bano batzues haren bethetzea, batas edo bertzeas etxaras ahal badezake.

Estadilala zure bihotza trubla, eta estuzun beldurtasunik.

Sinhets zazu ene baithan, eta ene miserikordian duzun konfidenzia.

Nois ere uste baituzu eneganik urrundua zarela, orduan mais zure hurbilenik nais.

Nois ere uste baituzu zare kalteari eziñ kasik
ihesi egiñ diozozukela, orduan mais behintzat da
merezimendurik gehienen ardiesteko denbora.

Aflikzione eta gaitzak arribatzen zaiskitzu-
nean etzazula uste, gauza guziak esparantzatik
kanpoan direla.

Estuzu zure estatuas juiatu behar, presente-
ko inkietamenduas zein etan kausitzen baitzare;
estuzu halaber zeure burua aflikzionerat aban-
donatu behar, nondik nahi dadiñ ethor, non zen-
beit esparantza etzaitzun gelditzen handik ilki-
tzeko.

Etzazula uste osoki ene laguntzas gabetua
zarela zenbeit denboretako aflijitua, zarenean,
edo neure konsolazioneen dulzetasuna zurega-
nik erretiratzen dudanean, bide hortarik pasatu
behar denas geros, zeruetako erresuman sartze-
ko.

Duda gabe zuretzat eta ni zerbitzatzen nau-
tenentzat progotxuago da errekuntra nahi estu-
zun bezalakoes, exerzatua izateas, ezen ez zure
nahien arabera gauzak arribatzen balitzaiskitzu.

Zure pensamendu sekretuskoenen funsa
ezagutzen dut, eta badakit zure salbamendua-

renzat hagitz progotxusko dela, estuzun batzue-
tan ene graziaren gustu batere, beldurres guziak
erreis kausitzen baditutzu superbios egiñ etzai-
tezen, eta zeure buruaren presunzionesko esti-
mu horrek sinhets aras estiezazun etzarena
zarela.

Nik guziak ematen ditut, eta ematen dituda-
nak khen detzaket, eta berris eman plazer zaita-
nean.

Eman dudana bethiere ene baithan egoten
da; eta erretirutzen dudanean, estut zurerik
deus hartzen, baiñan bai enea dena, zeren gra-
zia, eta dohaiñ perfekt guziak eneganik ethor-
tzen baitire.

Beras permetitzen badut zenbeit gaitz edo
aflikzione arriba dakizun, etzaitezela hartas
inkieta, eta zaren kuraios, zeren baitut indarra
zu handik erretiratzeko nahi dudan bezain fite,
eta halaber boskariotarat pena ematen darotzu-
ten gauza guziak ganbiatzeko.

Guziarekiñ justua nais, eta merezi dut gizon
guziak adora nazaten, manera hortan goberna-
tzen naizenean.

Ene egiaren argietan gauzes prudentki jua-tzen baduzu, estuzu aflikzionetan horren borthis-ki tristatu behar, baiñan bai allegeratu, eta niri hetas grazien akziona errendatu. Zuk behar zindukeen boskario baxharra da, nik doloreak egor dietzakitzudan, eta deusetan ere barkhatu gabe afliji.

Ene dizipulu maiteei lehenago erran nioten; maite zaitustet ene aitak ni maitatu nabon beza-la.

Eta biskitartean egorri ditut mundurat, ez han iraganen dizen plazer es gozatzerat, baiñan bai gudu handiak sofritzerat; ez han ohoreak iza-terat, baiñan bai askeneko mesprezioak sofritze-rat; ez han alfertasun eta errepausuan langitze-rat, baiñan bethiere travaillatzerat, eta mundua-ren konbersionea bere kharitatearen fruitua bezala eta bere penitenziaren prezioa bezala, niri ofrendatzerat. Hitz hauk bethiere ene semea diren zure ispiratuan eta bihotzetan finkatuak.

XXXI. GARREN KAPITULUA

**Nola arima altxatzen den
lainkoa baithan debozionetik
sortzen den zientzia; barneko
bizitzea**

ARIMAK

Jauna badut beharra oraiño, zure grazia handiagoak estatu hartarat arribatzeko, zeinetan kreatura bateo ere espainau amarratuko.

Ezen zerbaitek amarratua nadukaiño, eziñ zureganat nahi bezala bola neiteke.

Bolatze dohatsu hori desiratzen zuen Profetak, zioenean, nork emanen daroskit usoaren hegalak, bola nadinzat eta errepausua kausi.

Zer da gehiago errepausuan dagoenik begi sinplea baiño? Nor da liberalago denik, lurrean deusik desiratzen estuena baiño?

Beras arimak gauza kreatu guzies baiño gorago altxatu behar du, eta osoki bereganik separatu, bere baitharik kanporat rabbitua bezala dela, konprendi dezan, zu zarela gauza guzien

kreatzailea, eta deusik estela kreaturetan zure iduritakorik.

Baldiñ arima manera huntan espada perfektu urrundua gauza kreatu guzietarik, esta sekulan egiaski libro izaren zeruko gauzentzat aplikatua ikatekotz.

Hargatik gutiak dire egungo egunean kontenzioneratzat, eta zure egiaren bethiereko adoratzioneratzat goititzen direnak, zeren gutiak baitire kreaturen eta ontasun iraupenako estirenen amudiotik; osoki separatzen dakitenak.

Eziñ estatu hartarat arriba deiteke grazia handi bat gabe, zeinak arima altxatzen eta duen izateas gorago goititzen baitu.

Baldin gizona ispirituko goitidura huntan espada, eta kreatura guzien amudioas, lainko xoilarekin perfektu juntatua egoteko, libro espada, ahal ditskeen argi eta kalitate raroek estimu guti merezi dute.

Nork ere ontasun bakharra, suberano eta eternala, xoilki eta suberanoki maite espadu, bere estatu inperfeteen denbora luzes langitzen hariko da, eta gauza beheerenen amudioan, herrestaka ibilliko da.

lainkoa esten guzia, deusik esta, eta esteusaren lekhua iduki behar du.

Diferentzia handia da presuna debotaren zuhurtziaren artean, zeïña ispiritu sainduaren gantzuduras instruitzen baitu ta Teologo hagitz handi baten zienziaren artean.

Zerutik heldu den argia, edo lainkoak bere graziaren isurduras arimarat isurtzen dubena, konparazionerik gabe nobleago eta exzellentagoa da, ezen ez Ispiritu hunanoaren travaillus ardiesten dena.

Hanitzek lainko xoilak amudioaren eta egiaren kontenplazionean gustatzerat desiratzen dute; baiñan estute artharik egiñ behar luketenaren egiteko halako ontasun handia ardiets dezaketentzat.

Debeku handi bat da, zeren kanpoko gauzentzat, eta sensuek ukitzen dutenetan, orainarioski arrastatzen baitzare, ispiritu eta bihotzaren mortifikatzen, penetan eman gabe.

Estakit zer ispiritus gidatuak garen, eta zer egiñ gogo dugun ispiritualtzat iragan nahi baitugu, ikhustetas haiñbertze denbora eta artha, gauza baxotan eta iraupeneko estirenentan

enplegatzen dugula, eta behinere kasik geure barnean sartzen eskarela, osoki geure burua aplikatzeko eta kontsideratzeko seriooki, gure bihotzean zer iragaten den.

Helas! eskare haiñ fite geure barnean sartzen, non eskaren handik berehala ilkitzen kanporat, eta estugu ispirituko balantza fermu bat idukitzen, garratstasun batekin gure obren examinatzeko.

Estugu kontsideratzen nola gure afekzionaek lurrekoak diren, eta estugu geure buruas nigar egiten, ikhusten dugularik gauza guziak geure baithan lizunduak direla.

Errana da escriptura sainduan haragiak bere bidea korrumpitu ondoan uholde handiak lurra segidan estali zuela.

Beras gure barneko afekzionaek korrumpituak direnean, edo gure arimak bere indarrak galdu ditubenean, nezesarioki haren akziona eta mobimendu guzietan, korrupzionesko uholde bat egin behar dela.

Bihotz garbitik heldu da, bizitze onaren fruk-tua.

Zenbat gauza norbaitek egiñ duen bilhatzen da, baiñan zenbat bertuterekin egin den esta igoalki pensatzen.

Artha handirekin examinatzen da, ea gizon batek baduen bihotz, baduen ontasun, ea ederra, ea sabanta den, ea ungi kantatzen edo eskribatzen duen, eta fiñean ea ungi travaillatzen den.

Baiñan gutiak dire penetan ematen direnak, ea gizon bat ispiritus pobre, pazient, esti, eta Jainkotiar den, halaber ea arima Jainkoarekiñ, juntatua duben.

Naturak esta gizona konsideratzen kanpotik baizen graziak kontrarat barnetik egiten du.

Hura mais trunpatua da, hunek Jainkoa bait-han du esparantza trunpa estadinzat.

XXXII. GARREN KAPITULUA

**Nola gauza guzien kausitzeko
gauza guziak abandonatu behar
diren**

IESU KRISTOK

Ene semea edo allaba, eziñ dukezu libertate perfekta zeure buruari osoki ukho egiten espaziozu.

Bere arimaren jabe errendatzen direnak, eta bere amudio propioas poseditu direnak amarraztuak bezala dire.

Desites eta pasiones betheak dire, kurios, bethi kurri, eta errepausurik gabe, bethi prest bilhatzeko haragiak inspiratzen diotena eta ez Jesu Kristok aldegiten dubena, eta mais bizitze garbi baten deseñua egiten dutela, fundamenik gabeko gauza bat bethi hasten dute, eta bethi gauza hura erortzen zaiote.

Ezen Jainkoaren ispiritutik ethortzen estena eziñ deiteke fesmu, eta berehala galtzen da.

Ez behiñere ahanzt hitz labor eta sensu handis betherikako hau: kita zatzu guziak eta kausi-

tuko ditutzu guziak: utzatzu desirak eta kausitu-ko duzu errepausu egiaskoa.

Mais zure ispirituan iragan zazu egia hau, eta jakiñen tutzu gauza guziak hura pratikatzen duzula.

ARIMAK

Helas! Jauna horlako pietate barbia esta egun bateko obra, ez eta ere hurren jokoa, baiñan kontrarat bizitze sainduan den perfekzionea bere baithan zarratzen du.

IESU KRISTOK

Ene semea edo alaba, perfektenen bidea proposatzen darotzutenean, estuzu berehala kuraia galdu behar, baiñan bertzela estatu gora hartarat zeure burua su handiagorekiñ animatu behar duzu, edo gutienerat desira saindu batekiñ, hartarat suspiretan egon behar duzu.

Desiratzen nuke dispoziione hartan zeintesten, zeure buruaren maitatzaille espaziñe bezala, baiñan bai ene borondatearekiñ, eta ene aitarren ordenarekiñ igoal zeinteskien bezala.

Orduan zure ariman plazerak harnetzake eta zure bizia bake eta boskarioas langundua leitek.

Baduzu oraiño hanitz gauza usteko, eta baldiñ ene amoreagatik hek guziak osoki abandonatzen espaitutzu, estuzu sekula izaren baldegiten duzuna.

Konseillatzen zaitut niri erosteas urre, aberastua zarentzat erran nahi da zeruko zuhurtzia, mundua eta munduko gauzak ostikatzen ditubena.

Haren poseditzekotzat egiozu ukho lurreko zuhurtzia guziari gizonen estimu guzies, eta zeure buruaren konplazentzia banoari.

Badidurit zuri manera huntan mintzatzean konseillatzen darotzudala gauza hagitz preziatua emateas, deusik balio estuben bat hetas erosteagatik.

Eszen zeruko zuhurtzia hau berenes estimurik estubena eta bertzees estimatua izatea desiraten estubena egungo egunean askeneko mesprezioan da, eta kasik gizon guzies ahantzia, eta hanitzek ahos hura ohoratzen badute denbora berean akzioneer gonbatitzen dute.

Guziarekiñ hura da xoilki harri infinituki pre-
ziatua hainitzei estalia.

XXXIII. GARREN KAPITULUA

**Bihotz humanoaren ariñtasunas,
zeiña lainkoa baithan baizen
eziñ arrasta baititeke**

IESU KRISTOK

Ene semea edo allaba, etzaitezela sobra fida, zure presenteko dispoziñonearen gaiñean, ezen berehala bertze batetarat xanjatuko da.

Mundu huntan zareiño, nahi estuzularik ere xanjant izaren zare.

Kausituko zare batzuetan boskariotan, bertzetan tristezian, batean bakean, bertzean trublean, barean debozìonean, bertzean debozìone-rik gabe; batean berotasunean, bertzean hostasunean, batean grabe bertzean ariñ.

Baiñan egiaski zuhur eta ispirìtuan sabant dena inkonstanzia huntas gorago altxatzen da, eta xaniamendu guzien artean, konstant eta fermu dago.

Estu konsideratzen zer sentitzen duen bere baithan, ez eta ere zeìñ partetarik inkonstantzia- ren haizea heldu den, baiñan bere bidean aitzì-

ñean goatea baizen pensatzen estubela, bere bihotzeko mobimendu guziak bilhatzen eta juntatzen ditu, niri bere askeneko fiñ bakhar eta egiaskoari bezala hek ekhartzeagatik.

Manera huntan bere konszientzia garbiaren begi sinplea ene baithan bethiere fiñkatu eta arrastatua dagokala, konstant eta bethi orobat egon ahal deiteke, mundu huntan arriba ahal deitesken gauza diferenten artean.

Zenbatenas intenzionearen begia garbiago baita, hanbatenas arimak bere baithan kausitzen du indar eta konstantzia, tenpestak dituben egiñ ahal guzien hausteko.

Baiñan intenzione garbiaren begia erreiski hainitzetan trublutzen eta ilhuntzen da, zeren eneganik berehala bereganatzen baitute munduko zenbeit gauzaren gaiñean zeñak haren sensuak lausengatzen baikitu, arrastatzeagatik.

Ezen raro da kausitzea, arima bat osoki libroa eta zeñaren garbitasuna espaita aphurtxo bat tatxatua bere buruaren bilhatze sekretusko baten zenbait nothas.

Ebanjelioak bi intenzione erakuisten daroski-
gu Bethaniarat, Martha eta Mariaren etxerat
ethorri ziren luduetan.

Harat ioan ziren, ez Iesusen ikhusteko desira
sinple bates, baiñan oraiño kuriositatesko ispiri-
tu bates han Lazaro ikhusteagatik.

Beras intenzionearen begiak garbitua behar
du izan, sinple eta zuzen den gatik, eta zuri pre-
sentatzen zaiskitzun gauzen dibersitatean, estu-
zun xoilki fiñ bakhar bat baizen, zeïña baita niri
plazer egitea.

XXXIV. GARREN KAPITULUA

Zeiñ dulce den gauza guzien gaiñetik eta gauza guzietan kreatzaillearen maitatzea

ARIMAK

O Ene Jainkoa! eta ene gauza guzia! zer nahi dut zurekien eta zer dohatsuagorik desira ahal deket? O hitz dulzea, ene lainkoa da ene gauza guzia.

O hitz lainkosko gustus bethea, ordean hitz eternala eta ez mundua eta munduan direnak maite duenarentzat.

Ene lainkoa da, ene gauza guzia! maitatzailleak hitz hau aditzen du, eta bethiere haren errateas atsegiñ hartzen du!

Gauza guziak, zerori present zarenean ene lainkoa dulce dire, eta urrundua zarenean garratz.

Zuk bihotza errepausuan, ematen duzu, eta bake eta boskarios bethetzen.

Zuk irakasten darokuzu gauza guzies ungi jujatzen eta hek guzietan zu laudatzen, zu gabe

deusek ere eziñ denbora handis plazerik eman dezake: baiñan han plazer eta satisfakzione kausitzeko, zure graziak han berean behar du izan, hala nola zure zuhurtziak.

Zer garratz kausi ahal dezake zure baithan plazer hartzen dubenak? eta zer dulze ahal deiteke hañarentzat, zeñari espaitzaisko zu zerori esti?

Baiñan munduko zuhurrek, eta bere plazera; haragian hartzen dutenek, estute bat ere zure zuhurtzian hartzen zeren maite duten gauzetan espaitute gezur, banitate eta herioa baizen kausitzen.

Zu, lurra mesprezatzen eta haragia mortifikatzen dutela segitzen zaitustenak, egiasko zuhurra dire zeren dohatsuki gezurretik egiarat eta haragitik ispirituarat iragaren baitire.

Iainkoa manera hartan presunzi dulze zaiote eta zerere onik kreaturetan kausitzen baitute, kreatzailearen gloriarat ekhartzen dute.

Baiñan hunela Iainkoa gustatzen dutenean, nahis bere baithan nahis bere obretan, denbora berean ezagutzen dute fiñ'gabeko diferentzia bat badela kreaturaren eta kreatzailearen

artean denboraren eta eternitatearen artean, bertze argi bates argitua den argiaren eta argi orijinalaren eta kreatua estenaren artean.

O argi eternala konparazionerik gabe argi guziez gorago altxatua! zerutik zure arraio eta xismistak egortatzu, eta zure khar bizi eta penetratzen duenas ene bihotzaren barne guzia pasean pas egizu.

Argi alegera, klara zazu ene arima bere puxantza guziekin; zurekien boskarioen gaimidures, juntatzeko.

Helas! nois ethorriko da oren dohatsu hura, momentu desideratu hura, zure presentzias fasiatuko bainazu eta zure Apostoluaren erranaren arabera, guzia izaren baitzaiskigu guzietan.

Ene boskariora esta sekulan oso eta perfekta izaren ontasun handi hartas goza naiteken arte-raiño.

Helas! gizon zaharra ene baithan oraiño bizi da esta osoki gurutzefikatu esta perfekti hilla.

Oraiño ispirituaren kontra biolenki eta insolentki alxatzen da, barneko gerla sekretusko bat egiten dio, eta estio permetitzen arimari bakean, bizitzerat.

Baiñan zu ene lainkoa; itsasoaren gaiñean podore eta indar duzuna, haren uhiñak abaxatzen ditutzuna; altxa zaite eta lagun zakiskit. Galaras zatzu niri gerla egiten darotatenak; porrosza zatzu zure beso puxantas, distiaras zatzu zure mirakulluak eta zure esku eskuñaren indarra den glorifikatua, zeren eta espaitut esparrantzarik es eta ere ihes lekhurik, zure baithan xoilki baizen, o ene laun eta ene lainkoa.

XXXV. GARREN KAPITULUA

**Nola preparatu behar den
tentatu eta afljitua izaterat
bizitze hunetan**

IESU KRISTOK

Ene semea edo ene allaba etzare sekulan bititze hunetan segurantzaz izaren, baiñan irau-nen dubeiño, zeruko arma ispirituales bethiere estalia behar duzu izan.

Etsaies inguratua zare eta eskuin eskher atakutzen zaituste.

Baldiñ beras kantoñ guzierarik pazienziaren erredolas baliatzen espazare, etzare denbora hanitzes zauririk gabe izaren.

Baldin zure bihotza ene baithan finkatzen espaduzu, gauza guziak ene amoreagatik erre-soluzione puru batekin sofritzen ditutzula, afaut hura ezin sustengatuko duzu, ez eta ere ardietsi-ko dohatsuen khoroa.

Etsai hek guziak kuraia handi batekin bortxa-tu, eta hekien fletxa guziak, zure erredolas eta

zure besoaren indarras porroskatu behar ditutzu.

Ezen manna etzaiote ematen bentzutzaillei baizen, eta laxoentzat hañitz miseria gelditzen da.

Baldin bizitze huntan bake falso bat bilhatzen baduzu, nola bertzean egiasko eta sekulakoa kausituko duzu?

Estuzu uste behar hemen errepausa ahal zaiteskela, baiñan sofritu, eta hañitz sofritu behar duzula.

Bilha zazu bake egiaskoa, es lurrean, baiñan bai zeruan, ez gizonen eta kreaturen artean, baiñan lainko xoil baithan.

lainkoagatik gauza guziak borondates sofritu behar ditutzu, erran nahi da travaillu, dolore, tetazione, persekuzione, nezesitate, flakezia, induria, hits, erreportxu, humiliazione, konfusio-ne eta korrekzione guziak.

Hek dire bertutearen perfekzionerat igateko eskarelak, Jesusen soldaduen exercizio eta frogak. Hek dire perla, eta diamantak, zeruan prometatutako darotzudan khoroa egiten dutenak.

Nik trabailu xumearentzat sari eternala, eta men men bateko konfusionearentzat gloria sekulakoa emaren darotzut.

Uste duzu bethi justu izaren zarela, eta kon-solazione ispiritualak izaren ditutzula, zuk hek desiratuko ditutzun bezain fite?

Eskitut horla neure sainduak tratatu, baiñan nahi izan dut zuten hañitz aflikzione, hañitz tentazione eta hañitz desolazione.

Baiñan guziak pazienza handirekiñ sofritu dituste zeren eta espaitzuten bere baithan, baiñan bai lainkoa baithan bere konfidentzia guzia ematen, eta zeren baitzakiten estela bizitze hundertako gaitz guzien eta gloriaren handitasunaren artean zeñetas errekonpensatuak baitire, proportzionerik.

Zer? nahi duzu bada berehala eman diezazudan, haiñbertze sainduk, hañitz nigar eta trabailuen ondoan pena handirekin izatu dutena?

Zaude ene laguntzaren begira, zaren fermu eta kuraios, eta borthitz zazu zeure bihotza, duzun esparantza, es nazazula abandona, baiñan ene gloriarentzat zure arima eta gorphutza konstanki hirriskatatzu.

Batentzat ehun emanen daroskitzut, eta zure gaitz guzietan zurekien izaren nais.

XXXVI. GARREN KAPITULUA

Gizonen jujamendu banoen kontra

JESU KRISTOK

Ene semea edo ene allaba etxa zaite ene besoetarat iduk zazu borthiski zure bihotza enekien juntatua, eta gizonen jujamendu guzies estuzun beldurtasunik konszienziak lekhukotasuna errendatzen darotzunean, inozent eta erreportxurik gabekoa zarela ene begien aitzinean.

Ontasun eta dohatsutasun handia horla sofritzea da eta nork ete bihotz humilla izaren baitu, eta lainkoa baithan bere baithan baiño hobeki sustengatuko baita, estu penarik izaren sofritze-ko.

Hainitsek hainitz gauza erraten dute, eta hala gutik kontu egiñ behar zaiote hekien erranei, imposible da guziak gutas, kontent diren.

Eta jondoni Paule guzia guziei egiñ izatu baitzaiote eta lainkoaren arabera guziei plazer egi-terat entsaiatu izan bada, guziarekin erakutxi

izan du etzubela axolarik kondenatu izateas gizonen jujamendues.

Estu deusik egin bertzeren salbamenduaren-tzat baizen, eta guziarekin ezin debekatu izan du gizonek zenbait ordus mespreza edo kondena zezaten.

Hargatik lainkoaganat, zeñak bihotzaren barne guziak ezagutzen baikitu, osoki bere erre-putazionea abandonatu izatu du; eta gaiski pen-satzaileen kontra, etzuben bertze armarik humi-llitate eta pazienza baizen.

Guziarekien zenbait ordus ihardetsi izan diote, ibiaturik menturas, haren ixilik egotea fla-koentzat eskandala bat ahal zeitekela.

Nor zare zu, zeñak ene baithan sinhesten baituzu, gizon mortal batentzat beldur izateko.

Egun bada esta bihar izaren.

Zaren lainko beldurti eta estuzu beldurtasu-nik gizonentzat izaren.

Zer egiñ ahal diezakezuke hitz edo indurias desohoratzen zaituenak? bere buruari gaitz egi-ten dio eta ez zuri, eta nor ere baita, lainkoa haren juje izaren da.

Estuzun beras zure begien aitzinean juje justu hura baizen, eta zure buruaren defensatzat etzatzula ekhar pleintak eta disputak.

Baldiñ badirurizu denbora batetako injustiziarat erortzen zarela, eta konfusiones bethetzen, hargatik etzaitezela asarra, eta etzazula mendra zure inpazientzias zure khororearen distiadura.

Zeure begiak eneganat zerurat heda zatzu, puxant nais zu konfusione eta induriatik libratzeko, eta bakotxari bere merezien araberat errendatzeko.

XXXVII. GARREN KAPITULUA

**Nola lainkoari osoki abandonatu
behar zaion, bihotzeko
libertatearen ardiesteko**

JESU KRISTOK

Ene semea, edo ene allaba, zeure burua
abandona zazu, eta kausituko nauzu.

Estuzun borondate eta hauturarik, eta bertu-
tean abantzatuko duzu.

Ezen grazia handiagoak zeure baitharat isuri-
ko ditut, osoki zeure burua enegangat sakrifika-
tzen duzun bezaiñ sarri.

ARIMAK

Iauna, zenbat aldis manera hortan abandona-
tu behar natzaitzu, eta zer gauzetan neure burua
kitatu behar dut?

IESU KRISTOK

Ene semea, edo ene alaba, bethi, oren guzietan gauza xumetan, handietan bezala eneganat abandona zaite.

Estut deusere kanpoan ematen, baiñan nahi zaitut gauza guzietan gauza guzies billuzia kausitu.

Ezen bertzela nola ahal zaitezke enetzat, eta ni zuretzat, osoki barnean eta kanpoan borondate propioaz billuzia.

Zenbatenas hori egiten baituzu, hanbatenaz hobeki jeneros izaren zare, eta zenbatenaz hori betheki eta sinzeroki egiten baituzu, hanbatenaz plazer gehiago egiñen darotazu, eta gehiago ene graziez aberatstuko zaitut.

Badire, eneganat abandonatzen direnak, baiñan zerbait bere baithan goardatzen dutela, eta nola espaitute ene baithan konfidentzia osoa, hargatik bere buruaz oraiño artha dute.

Badire, berehala, eneganat ofrendatzen direnak, baiñan tentazioneaz atakatuak diren bezaiñ sarri, bere buruaren nausi berriz ere egiten dire, eta halaestute bertutean abantzatzen.

Halako presunek estute sekulan bihotz garbiaren libertatea, eta arimari ematen diodan dultzetasuna eta grazia neure familiertasunean sararasten dudala, gustatuko, baldiñ lehenago bere buruaren sakrifizio oso eta bethiereko batez enegangat diren guzias abandonatzen espaitzaikit, hori gabe nihor eziñ enekien junta, eta nitaz goza deitekenaz geroz.

Erran darotzut maiz, eta oraiño erraten darotzut, utzaku zeure burua abandona zakiskit, eta zure bihotzaren barreanean bake handi batez bozatuko zare.

Ematzu gauza guziak guzientzat, etzazula deusik bilha zeure baithan, etzazula deusik berris ere galdegiñ zeureganik, niri eman zaiskidan ondoan.

Zaude ene baithan garbiki fermuki, eta izaren nauzu.

Orduan izaren zare bihotzean libro, eta ilhuntasunak etzaitu estaliko.

Zeure egiñ ahal, zeure orazione eta desira guzies ontasun handi huntarat arriba ahal dezakezun entsaia zaite, duzunez billustua zarela Iesus gurutzean billusgoritua segi dezazuntzat,

eta zeure buruarentzat hilla zarela sekulakotzat enekien bizi zaitezen amoreagatik.

Orduan imajinazione banoak, orduan truble gaistoak eta artha behar baiño gehiagoak zeure baitharik joaren dire.

Orduan halaber ikhara moderatua ez den hark kitatuko zaitu, eta ungi erregelatua ez den amudio hura ere, zure baithan hillen da.

XXXVIII. GARREN KAPITULUA

Nola kanpoko gauzetan bakea konserbatu behar den

IESU KRISTOK

Ene semea, edo ene alaba, non ere baitzare zer ere egiten baituzu, duzun artha bethiere zeure barnean libro izateko.

Inperio bat zeure baithan konserba zazu, diren gauza guziak zure azpiko, eta ez zu hekien.

Zaren zure akzione guzien laun, eta gidari, eta ez esklabo.

Manera huntan igoal izaren zare haiñekien, zeñak juduez erosiak zirela segidan libro baitziren, eta hebru egiazko egiten zarela, lainkoaren umeen estatu eta libertate egiazkorat iraganen zare, zeñak presenteko gauza hautaz beherago baitaudez, eternalak xoilki kontenplatzeko.

Begi eskerraz baizen munduko pasatzen den figura ikhusten eztutela, eta eskuiñas zeruko ontasunak.

Denborako gauzek ez dituste hek bereganat thiratzen, baiñan hek bereganat thiratzen ditus-

te gauza hek, lainkoa ungi zerbitzatzeko: lainko ofiziale handias ordenatuak izatu diren bezala, zeñak bere kreaturan ez baitu deusik utzi ungi erregelatua ez denik.

Etzatzula juja mundu huntan arribatzen diren gauzes kanpoko itxuren arabera, eta etzazula examina haragisko begi batekiñ ikhusten, eta aditzen duzun guzia.

Duzun artha berehala tabernaklean sartzeko Moise bezala, lainkoa han konsultatzeko zenbait ordus Jainkoaren errepusta adituko duzu, eta hañitz gauza presenteko eta ethorkizunekoez instruituko zaitu.

Ezen ikhusten dugu Moisek bethiere Tabernaklerat errekorsu izatu dubela, kestione gaitzez, eta dudazkoez bere burua argi arasteko: era hirrisku handitan zenean eta lainkoen maleziaz atakatua, orazioneas lainkoaren sustengua izatekotzat, baliaizen zen.

Zuk ere fazoiñ berean zure bihotzeko santuariorat sarthu behar duzu, han lainkoari kontinualki galdegiteko bere graziaren laguntza.

Halaber eskriturak irakasten darotzu Iosue eta Israeleko umeak gabaonites trunpatuak izan

zirela, zeren eta ez baitzuten lehenago Jainkoaren oraklea konsultatu, eta poblu haren hitz dul-tzeak, eta artifizioz betheak ariñkiegi sinhesten zitustela, konpasionen falso batez trunpatuak izatu ziren.

XXXIX. GARREN KAPITULUA

**Nola egon behar den lainkoaren
begira, zeñak gauza guzies
artha baitu**

IESU KRISTOK

Ene semea, edo ene allaba, ene eskuetarat bethiere zure egitekoak erremeti zatzu, nik guziez artha izaren dut, eta bere denboretan nik hetaz ungi disposatuko dut.

Zaude ene ordenen eta ene borondatearen begira, eta handik abantaila handi bat izaren duzu.

ARIMAK

Iauna boskario handirekiñ ene gauza guzien artha ematen darotzut, zeren neronek hura nahi dudanean, frogatzen baitut progotxurik gabe travaillatzen naizela.

Oxala indarrrik aski banu ethorkizuneko inkie-tamenduez enbrasurik ez izateko, baiñan bai neure burua zure borondate sakratuari sakrifika-tzeko.

IESU KRISTOK

Ene semea, edo ene alaba maiz gizonak pasione handia du gauza bathenzat, eta berotasun handirekiñ hura bilhatzen du, baiñan poseditzen duen bezaiñ sarzi hartaz desgustatzen da eta lehen egiten etzuen bezala hartaz jukatzen du, zeren arima bere afekzionetan xanjant baita, eta erreiski batetik bertzera iragaten baita.

Esta beraz bertute xumea, gauza xumetan bere burua abandonatzea.

Gizonaren abantzamendu egiazkoa pietatean bere buruari ukho egitean dago, eta estatu hontan dena libertatean eta segurantzian dabilla.

Horrek estu guziarekiñ debekatzen ispiritu ontasun guzien etsai den hark estezan tenta, eta estiotzan gabaz eta egunaz bere sareak heda, hetan barna atrapatzeko eta tronperiaren thulunbiorat eror arasteko.

Hargatik erran darotzut, ene Apostoluen presunan zaude iratzarririk, eta orazionetan tentazionean sar etzaitezen.

XL. GARREN KAPITULUA

**Nola gizonak estuen deusere
onik bere baitharik, eta
deusetan ere eziñ glorifika
deiteken**

ARIMAK

Jauna zer da gizona zu hartaz orhoitzeko; eta zer da gizonaren semea zuk hura zure presentzias ohoratzeko.

Zer merezitu du gizonak, zuk hari zeure grazia emateko.

Zertaz pleinta ahal naiteke, launa baldiñ abandonatzen baninduzu? edo zer justiziarekiñ ez dezaket on kausi, ez diezadazun niri akhorda galdegiten darotzudana? egiaz zer egiagorik neure buruaz pensa, eta erran dezaket deusik ez naizela baiño, o Ene lainkoa: deusik estukedala baiño, deus onik neureganik estudala baiño, gauza guzien eskas jeneral batean zela baiño, eta bethiere esteuserat noala baiño; eta zuk neure barnean laguntzen eta borthisten ez bainauzu berehala laxo eta ephel egiten naiz.

Zu launa; bethi orobat zare, eternitate guzian on, justu eta saindu zare.

Zure obretan distiatzen duzu zure ontasuna, zure justizia, eta zure saindutasuna, eta zuhurtzia miragarri batean hek disposatzen ditutzu.

Baiñan ni flakeziarat, abantzamendurat baiño pendura gehiago dudana, bethi estatu batean fermu eziñ nagoke, zeren tenporal eta xanjant bainaiz.

Guziarekiñ ene arima hobeki kausitzen da, zuk begiratzen diozun eta zure laguntza egiten diozun bezaiñ sarri.

Ezen zerorek bakharrik, eta nihoren laguntzarik gabe sokorri eta borthitz dezakezu halako maneraz, non haiñbertze bisaia diferent espailake har, baiñan ene bihotz osoa zureganat xoilki turna bailiteke, eta zure baithan xoilki plazerekiñ errepausa.

Baneaki munduko konsolazioneen ungi mesprezatzen, edo debozionearen ardiesteko, edo nezesitatea dela kausa, zeinaz pusatua bainaiz zure bilhatzerat, zeren espaita munduan nihor ni perfekki konsola nazakenik; orduan banuke kure

graziaren izateko sujet handia, hala nola konso-lazione berriaren donuaz bethea izateko.

Graziak errendatzen daroskitzut, o ene lainkoa, ene arimarat heldu den ontasun guzia zureganik heldu denaz geroz.

Ezen ni banitatea, eta esteustasuna bera naiz zure aitzinean, hala nola presuna inkonstant, eta flako bat bainaiz.

Nondik beraz glorifika ahal naiteke, eta zergatik estimatua izatea desiratu behar dut? Ene esteustasunagatik? hori bera da askeneko banitatea.

Egiaz banagloria izurri gaisto bat da, banita-terik handiena, zeren egiasko glorias gabetzen baikaitu, eta gureganik grazia desterratzen.

Ezen gizonak bere baithan plazer hartzen badu, ene lainkoa! estarotzu zuri atsegiñik ematen, eta gizonetarik laudorio banoak nahi ditue-nean, bertute egiaskoa galtzen du.

Arimak egiazko gloria, eta bozkario saindua, ez bere baithan, baiñan bai zu baithan, glorifika-tzen du, zure handitasunas allegeratzean, eta ez bere bertute propioan eta kreatura batetan ere plazerik ez hartzea zure amoreagatik baizen.

Den zure izena laudatua, ez enea: den zure obra handitua, ez enea; zure izen saindua den benedikatua, estudan nik gizonen laudotiorik batere.

Zu zare ene gloria, zu zare ene bihotzaren bozkarioa.

Egunaz eta gabaz zure baithan allegeratuko nais eta boskarios gaiñdi egiñen dut, baiñan nitaz bezanbatean ene flakezez glorifikatuko naiz.

Juduek bilha bezate bata berteaganik bere gloria, nik Jainkoaganik heldu den gloria bilhatuko dut.

Munduko gloria guzia, munduko ohorea, munduaren distiadura zure gloria eternalarekien konparatzen badire, estire banitatea, eta erho-keria baizen.

O ene egia eta miserikordia! ene Jainkoa! Trinitate dohatsua, zuri xoilki laudorio, ohore, bertute, eta gloria sekula sekuloronean.

XLI. GARREN KAPITULUA

**Nola aski den lainkoari
begiratzea, deusez ere ez
tristatzeko mundu huntan**

IESU KRISTOK

Ene semea, edo ene allaba, etzaitezela trista baldiñ ikhusten baditutzu bertzeak ohoretan altxatuak direla, eta zu mesprezatua, eta abaxatua, zerurat enegangat altxa zazu zure bihotza, eta estuzu penarik batere izaren ikhustez gizon-ek lurrian mesprezatzen zaitustela.

ARIMAK

launa! itsuak gare, eta berehala banitateak trunpatzen gaitu.

Baldiñ konsideratzen badut zer naizen, ikhusiko dut egundaiño kreatura batek ere estarotaila bidegaberik egiñ, eta hala estut arrazoiñiz batere zure kontra pleintatzeko.

Ezen zu maiz ene bekhatuez ofentsatu ondolan, justu da zure kreatura guziak arma deitezen ene kontra.

Hargatik konfusione eta desohorea zor zaizkit, nola zuri laudorio, ohore eta gloria.

Eta nahi ez badut kreatura guziez mespreztua, abandonatua, eta esteus bat bezala konsideratua izan, eziñ barneko bakea ardiets dezaket ez eta ere halaber argi jaingoskoa, eta zurekiñ unione saindua.

XLII. GARREN KAPITULUA

Nola ez den bakerik munduko presunetan eman behar

IESU KRISTOK

Ene semea, edo ene alaba, zure bakea presuna batean ematen baduzu, zeren haren konbersazionean eta zure sensuen konformitatean harenekien kausitzen duzun, zure arima trublean, eta inkonstantzian izaren da.

Baiñan egia bethi bizi, eta dagoenaganat baduzu zeure errekersua, etzare tristatuko zure adiskidearen urruntzeas ez eta haren heriotzeas ere.

Zure adiskidearentzat duzun amudioak, ene baithan bebar du izan fundatua, eta enegatik on, bertutez betherikako eta maitagarri diren presunak afekzionatu behar ditzuzu.

Ni gabe adiskidetasuna ez da ez egiaskoa, ez eta ere iraupenekoa, eta bi presunen arteko adiskidetasuna ez da garbia baldiñ neroni ezpainaz hekien amudioaren gathea.

Halako maneras maite tutzun presuna beren afekzioneentzat behar duzu hilla izan, non desiratu behar baitzinduke egiñ ahal bezanbat, gizonen konpañietan ez kausitzea.

Zenbatenas gizona lurreko konsolazione guzietarik urruntzen baita, hanbatenas Jainkoaganat hurbiltzen da, eta zenbatenas bere esdeustasunaren thulunbiorat erortzen baita, hanbatenas zerurat lainkoaganat goititzen da.

Nork ere bere buruari zenhait ontasun atri-
buatzen baitio, debekatzen du Jainkoaren grazia
ethor estakion, zeren Ispiritu Sainduak bethiere
bihotz humilla bilhatzen baitu.

Baldiñ baziñaki zeure buruaren ezdeus erren-
datzen, eta munduko gauzen amudiotik osoki
billusten, ikhusiko nindukezu, zeure baitharat
ene grazia guzien abundantziarekiñ jausten.

Zenbatenas creaturei begiratzen baitiozute,
hanbatenas gutiago zeure kreatzailleari egiten
diozu.

Ikhas zazu zeure buruaren benzutzen, ene
Amoreagatik, eta orduan zure arimak baratxe
ikhasikodu haren ezagutzen.

Den xumeena ere baldiñ bada gauza bat, eta hura maitatu eta begiratu baldin bada, behar esten bezala, amudio hura tatxa bat da biho-tzean, eta hura pisu errendatzen dubena onta-sun suberanoarekiñ juntatzeko.

XLIII. GARREN KAPITULUA

**Nola lainkoak humilen bihotzari
bere zientzia inspiratzen dioten**

JESU KRISTOK

Ene semea, edo ene alaba begirautzu gizonen solas ederrek eta subtillek uki zaitzaten, ezen ene erresuma esta hitzetan baiñan bai egian.

Atenzionerekiñ zure bihotza sustatzen, eta zure ispiritua argitzen ditusten ene hitzak konsidera zatzu, keiñek ariman ximikoa formatzen baitute, eta hura milla manieraz konsolatzen.

Etzazula sekulan ene hitza irakur zuhurrago edo sabantago segidan agertzeagatik.

Estudia zazu zeure pasioneen mortifikatzen, zeren exerzizio hori gehiago baliatuko baitzaitzu ezen ez, kestione gaitzenenen ezagutza.

Hañitz irakurri eta konprenditu duzunean, prinzipio batetarat ethorri behar duzu.

Ni naizela gizonak zuhur errendatzen ditudana, eta munduko gizonen eman ahal liozaketen

baiño argi eta intellijentzia gehiago humilei eta sinpleei ematen diotedana.

Nori ere mintzatzen bainatzaio hark fite posedituko du zuhurtzia, ispiriruko bizitzean mirakuluzki abantzatua izaren da.

Diren dohakabe gizonen zientzietan gauza kurios bilha dabiltzanak, eta guti penetan ematen direnak jakiteko zer egiñ behar duten ni ungi zerbitzatzeko.

Ethorriko da egun bat, zeinetan Iesus aiñgeruen erregea agertuko baita, doktoren doktora bezala, bakhotxaren zuhurtzia eta estudioa examinatzen dubela, erran nahi da bakhotxaren konszientzia.

Orduan, Profetaren hitzkuntzaren arabera, Jerusalem argieran izaren da examinatua, eta bihotzeko ilhuntasun gustiak ixaren dire agertuak, mihiak mutu errendatzen dituela, eta arrozoñamendu banoa konfunditzen.

Nik irakasten diot ispiritu humillari munduko gauzen ostikatzen, presentekoen mespresatzen, zeruko ontasunen bilharasten, eternitatearen gustatzen, ohorei ihes egiten, eskandalen sofritzen, ene baithan xoilki bere esparantza

ematen, deusik nitaz kanpoan ez desiratzen, eta ni gauza guziak baiño gehiago maitatzen.

Nik erakasten diot oihurik gabe, opinione diferenten konfusionerik gabe, anbizione eta ohorerik gabe, eta fiñean argumen eta disputen berotasunik gabe.

Izan dire presuna batzuek, bere bihotz guziaz maitatzen nautela lainkosko sekretuak eneganik ikhasi ditustenak, zeñes segidan manera miragarri batez mintzatu izan baitire.

Gehiago ikhasi izan dute gauza guzien abandonatzean, estudio luze batean egiñen zuten baiño.

Baiñan ez natzaiote igoalki guziei komunika-tzen batzuei gauza komunak erraten diotzatet, eta bertzeei partikularrak: batzuei figuretan, eta seiñaletan dultzeki agertzen natzaiote, eta bertzeei argitasun handirekien ene misterioen sekretuak, eta beheratasunak rebelatzen diotzatet.

Liburuek gauza bera guziei erraren diote, baiñan estute guzietan inpresione bera egiten zeren ni bainaiz arimaren barnean egiaren dok-tora bihotzaren fundatzaillea, pensamenduen

penetratzaillea, akzione eta obren formatzaillea eta ene ontasunen gizonteak ene plazeraren arabera partitzaileak.

XLIV. GARREN KAPITULUA

**Nola munduko kontestei ihez
egiñ behar zaioten bere arimako
bakearen konserbatzeko**

IESU KRISTOK

Ene semea, edo ene alaba hañitz gauzetan ignorant behar duzu izan, eta zeure burua estimatu hilla bezala lurrean, eta zeñarentzat mundu guzia hilla eta gurutzefikatua baita.

Maiz halaber zeure burua gor egiñ behar duzu eta xoilki pensatu, zerk konserba ahal zaitzaken arimako bakean.

Hobeago da zeure begi, eta pensamenduak plazer egiten estarotzuten gauzetarik gibela-tzea, eta bakhotxari bere sentimenduen libertatea ustea, ezen ez disputetan zeure burua enbrasatzea.

Baldiñ borthiski lainkoarekiñ juntatua bazare, eta zure jujeari bezala maiz begiratzen badiozu, estuzu penarik izaren sofritzeas bertzeak zu baiño hobekiago aditu eta sinhetsiak badire.

ARIMAK

Helas! launa noreraiño ethorri gare? nigar egiten dugu munduko kalte bat arribatzen zaikunean: tromentatzen, eta travaillatzen gare esteuskeria batentzat, eta ahansten zaiku arima galtzen dugula, eta halako kalte harrigarria memoriorat ethortzen othe zaikun.

Atenzione handia duzu guri edo esdeus balio duen gauzarentzat, eta erreiski negliatzen duzu infinituki nezesario dena: zeren gizona bere korrupzionearen jaiduras kanporat osoki isurtzen baita, eta plazerekiñ kanpoko gauzen amudioan errepausatzen, zuk zeronek bere baitharat sar arasten ez baduzu.

XLV. GARREN KAPITULUA

**Nola esten gizonen
adiskidetasuna bilhatu behar,
baiñan bai lainkoarena**

ARIMAK

Indazu launa! kausitzen nazen aflikzioneeran zure laguntza, zeren gizonen partetik ahal dukedana gezurra, eta banitatea bera baita.

Zenbat aldis gutien usle nuen lekhuari fidelitatea kausitu, trunpatua izatu naiz eta gutien uste nuen lekhuari hura kausitu izan dut.

Beraz gizonetan den esparantza banoa eta trunpura baita, baiñan zurea ene lainkoa kausitzen da justuen salbamendua.

Zaren benedikatua, o ene latin laun! eta ene lainkoa arribatzen zaiskigun gauza guzietan ez, gure inkonstanzia, eta flakezia bera baizen, berehala instant batez trunpatzen, eta xanjatzen gare.

Zeiñ da gizona bere arima haiñ artha handirekiñ goardatzen duena, non batzuetan esten trunpatzen, edo esperen zenbait ekhexadureta-

ra erotzen? baiñan zure baithan bere esparantza ematen duena eta bihotz sinple batekiñ bilhartzzen zaituena, ez da haiñ erreiski erortzen.

Eta baldiñ zenbait aflikzionetarat erortzen bada, kantoiñ guzietarik inguratua, eta flakatur baldiñ bada ere, berehala zeureganat handik thiraturuko, eta konsolatuko duzu, zeren zure baithan azkeneraiño esparantza dutenak espaikitutzu abandonazen.

Ez da deusere gizonen artean raroagorik adiskide fidel bat baiño, bere adiskidearen maitatzen eta laguntzen bere gaitzetan fermu, eta konstant dagoena.

Baiñan zu launa adiskide bakhar, eta suberanoa zare, eta zutas lekhora esta nihor bertzerik.

Ala Birjina saindu hura, santa Agatha zerutik argitua baitzen, zioenean, bere martirio eta tromentetako errementen bistan! Ala ene arima lesu Kristo baithan bortiski fundatua baita.

Ni estatu saindu hartan banintz munduko bel-durtasunak ez nentzake mobi ez eta bere hitzen fletxek kolpa.

Nork ethorkizuneko gaitzak aitziñetik ikhus eta urrun ahal detzake? baldin aitziñetik ikhusi-

rik; mais kolpatzen baikaituste, nola eskaituste egiñen baldin uste gabe surprenitzen bagaituste: zergatik beras ni bezalako dohakabeak aitzin-
ñetik ez ditu ikhusi; zergatik halaber haiñ erreis-
ki bertzeak sinhetsi ditut?

A launa! gizonak gare, eta gizon flakoak, hañitzek aingerutzat gu estimatuagatik.

Nori beraz fidatu behar natzaio, o ene lain-
koa! nori zuri xoilki baizen?

Zu zare egia bera, eziñ trunpa dezakezuna, eta halaber eziñ trunpatua zaitezkena.

Baiñan kontrarat gizon guziak gezurti, flako, eta inkonstant dire, eta haiñ erreiski bere hitze-
tan trunpatzen dire, non kasik espaikituste sin-
hetsi nahi, itxuran egiaskoak iduri arren hekien hitzek.

Ala zuk konseillu zuhurra eman, o ene lain-
koa! gizonetarik goarda gaitezela ordenatu daro-
kuzunean, eta erran, gizonaren etxekoak direla
haren beraren etsaiak, eta eskitugula sinhetsi
behar erraten darokutenak, Kristo hemen edo
han da.

Estut experientzia triste batez sobra baizen
ikhasi egia hori, eta lainkoak nahi duela balia

dakidan, ni ethorkizunean zuhurrago hobeki errendatzeagatik, ezen ez ni neure inprudentzia iraganaz benzutzeagatik.

Emozu ungi goardia erraren darotzu batzuetan munduko gizon batek, emozu goardia sekretuan idukitzeaz erraten darotzudana; eta sekretuan dadukadan biskitartean, erran darotana berak estu goardatzen niri goardatzerat eman darotana, eta bere burua eta ni trunpatzen gaitu, bertze bati berehala niri erran darozkidanak erraten diotzala.

A launa! halako gizon hitsuntzi, eta ariñetarik guarda nazazu, hekien eskuetarat eror, eta hekien iduritako egiñ esnadintzat.

Ematzu ene ahoan hitz egiasko eta konstantak, eta mihiaren artifizio edo trunperia urrun zazu eneganik; ezen bertze baten baithan eziñ sofri dekakedana, eziñ egitetik ene baithan sobra debeka dezaket.

O nolako bake eta abantailla! o ene lainkoa! bertzeez ixillik egotea, indiferenki gauza guziak ez sinhestea; aditurikako gauzez ez entretenitzea, presuna gutiri bere burua ezagut arastea, zu xoilki bilhatzea, eta zuri gure bihotzeko juje

eta lekhukoari bezala bethiere begiratzea; erran fuerte guziei konturik ez ematea, eta zure borondate sailduaren erregelaren araberat barneko eta kanpoko gauza guziak egiñ ditezela, desiratzeta.

Ala progotxus baita, segurki graziaren tresor zerukoa goardatzekotzat, munduan distiatzen duten gauzei, eta admirazione eta estimu kausa ahal dezatketenei ihes egitea, eta gure eskalak korriji ahal detzaketen gauzei xoilki aplikatzea, manera huntaz su berri bat geure buruari ematen diogula.

Zenbatak izan dire, zeinei kalte handia arribatu izan baitzaiote zeren hekien bertutea laudatua eta denabora baiño lehen ezagutua izan baita?

Baiñan kontrarat nolako progotxua da, grazia bizitze flako huntan sekretuan konserba dadiñ, zein bizitzek dirabeiño gerla edo tentazione bethiereko bat baita.

XLVI. GARREN KAPITULUA

**Nola gizonen jujamenduak
mesprezatu behar diren, eta
lainkoarenak xoilki kontsideratu**

IESU KRISTOK

Ene semea, edo ene allaba, zaude konstant eta duzun ene baithan zure esparantza, ezen zer dire gizonen hitzak, hitzak baizen? airean gora bolatzen dire, baiñan harriaren fermutasuna eziñ kolpa dezakete.

Baldiñ hobenduri bazare, duzun atsegiñ, eta zure kontra erraten duten hitzez balia zaite zeure buruaren korrijitzeko.

Faltadun espazare duzun plazer induria horren lainkoaren amoreagatik sofritzeaz.

Helas! gauza gutia da okasionetan zenbait hitz sinpleki sofritzea, oraiño kapable ez garenaz geroz tromenta handien pairatzeko.

Eta zergatik hitz horiok ariñak izan arren bihotzeraiño ukitzen zaituste lekhat zeren hara-gizkoa zaren, eta zeren behar zinduken baiño

gizonentzat konsideratzione gehiago duzun bai-zen.

Ezen nola beldur baitzare meziprezatua zaren, estuzu nahi zeure faltez erreportxatua izan, eta hek nondik eskusatuko ditutzun trabai-llatzen hari zare.

Baiñan sartzaite oraiño barnago zeure burua-ren ezagutzan eta ikhusiko duzu mundua oraiño zure baithan bizi dela, eta oraiño baduzula nahi superbios bat gizonei plazer egitekoa.

Ezen mesprezatua, eta zure hutsez konfundi-tua izatea nahi estuzunaz geroz ageri da etzare-la egiaski humil ez eta ere egiazki munduaren-tzat hilla, eta mundua estela egiazki zuretzat hilla ez eta ere gurutzefikatua.

Baiñan adizazu ene hitza eta gizonen hitz guziek etzaituste ukituko.

Zu besteagatik, kalomnia pozoiñastatuenak pensa ahal dezaken guzia, publizatzen balute ere, induria hek guziek zer kalte egiñ ahal dieza-kezukete.

Baldiñ airean bolatzen den lastoa bezala hek pasatzera usten bazintu? balukete hek guziek

elkharrekiñ indarrik aski, zure burutik ilerik mendreenaren eror arasteko.

Nork ere espaitu lainkoa bere begien aitzin, eta nor ere bere bihotzaren barnerat erretiratua espaita, erreiski mespreziosko hitzik mendreenak kolpa dezake.

Baiñan bere konfidentzia ene baithan ematen duenak, eta bere buruaz egiten duen jujamenduaren gainean sustengatzen estenak, gizonen partetik arriba ahal dakion deusez ere estu beldurtasunik izaren, ni naiz guzien jujea nik bihotzaren sekretuak penetratzen ditut, badakik gauzak nola egiñ izan diren, ezagutzen dut perfektiki induria emaillea eta haren sofritzaillea.

Ene ordenas hura sofritzen duzu, ene permitenduz frogatua zare, hañitzen pensamenduak bihotzean barna estalirik zaudezenak ager arasteko.

Egun bates klarki inozenta, eta falta duena jujatuko ditut, baiñan bat eta bertzea jujamendu estali batez frogatu nahi ditut.

Gizonen lekhukotasunak maiz trunpatzen du, baiñan ene jujamendua bethiere egiaskoa da,

eta haiñ fermu egoren dena non deusek espaitu xaniatuko.

Maiz estalia da, eta gutiak dire haren sekretuak penetratzen ditustenak gizon bakhotzaren gaiñean dadukadan gida partikularrean.

Gustiarekiñ estu hutsik egiten, eta eziñ egiñ dezake erhoen aitzinean justu ez agertu arren.

Beraz gizonak, lurrean egiten diren jujamendu guzietan, eneganat behar du bere errekor-sua, eta estu bere ispiritu propioaren gaiñean sustengatu behar.

Ezen justua esta trublaturia izaren, zer ere Jainkoaganik arribatzen baitzaito ere.

Injustuki kondemnatzen badute ere guti penetan emanen da, esta halaber banoki boskariotan emanen baldiñ bertze arrazoiñ handirekiñ justifikatzen badute.

Konsideratzen du nik bihotzak sundatzen ditudala, estudala kanpoko iduriaren arabera jujatzen.

Ezen maiz gizonen estimuan on eta laudatze-ko diduriarena ene jujamenduan esta halakoa.

Ene Jainko Jauna, justu, borthitz eta pazienta, zeñak gizonaren flakotasun, eta korrupzioea ezagutzen baituzu, zaren ene sustengu eta indarra, gauza gutia da ene konzientzia propioak ez nazan akusa.

Ezagutzen duzu ene baithan nik neronek ezagutzen estudana, eta hala erreportxu guzietan humiliatu behar dut, eta hek dulzeki sofritu.

Manera huntan gobernatzen ez naizela egiñ ditudan huts guziak barkha dietzakidatzu, eta egidazu grazia ethorkizunean humillago, eta dulzeago izateko.

Zure miseriakodia hobeago zait ene bekhatuen barkhamendua izateko ezen ez ene baithan delako zenbait bertuteen pensamendua zeñak sinhets arasten baitarot, ene bihotzaren funsa estela gaistoa nik hura ez ezagutu arren.

Ezen nik neure burua esteusez hobenduri ez uste arren, hargatik eziñ justifika naiteke, rigoroski eta miseriakodiarik gabe baldiñ jujatzen bagaitutzu gizon bat ere esta justu zure begien aitzinean kausituko.

XLVII. GARREN KAPITULUA

**Nola munduko gaitzak sofritu
behar diren, sekulako ontasunes
gozatzeko esparantzan**

JESU KRISTOK

Ene semea, edo ene alaba, enegatik hartu ditutzun trabailluak direla kausa, etzazula kuraia gal, eta aflikzioneer behiñere etzaitzaten bentzu, baiñan ene promesak zaitzan borthitz eta konsola, bizitze huntan arribatuko zaizkitzun gauza guzietan.

Aski puxant naiz zuri enegatik egiñ tutzun gauza guziak errendatzeko, eta hetaz neurririk gabeko sari bat zuri emateko.

Zuk hemen sofritzen ditutzun trabailluak estire luzeak, eta etzare bethi atsekabe eta dolo-rean izaren.

Zaude aphur bat, eta fite ikhusiko duzu zure gaitz guzien akhabantza.

Ethorriko da oren dohatsu bat, zeinñetan zure trabaillu eta pena guziak fiñatuko baitire, denborarekiñ iragaten dena bethiere labor da.

Egizu artharekiñ, egiten duzuna: trabaila zaite fidelki ene mahastian, eta ni neroni izaren naiz zure errekonpentsa.

Eskriba zazu, irakur kazu, kanta zazu, nigar egizu, zaude ixilik, othoitz egizu, kuraiozki gaitz guziak sofrit zatzu: ezen bizi eternalak merezi du exerzizio, eta gonbat hautas eros dadiñ eta oraiño bai eta handiagoes ere.

Jaunas ezagutua den egun hartan ethorriko da bakea, eta egun hura esta mundu huntako eguna bezalakoa, berehala gabak segitzen duena baiñan hura izaren da sekulako egun bat fiñ gabeko argi bat bake fermu bat, eta errepausu seguratu bat.

Estuzu orduan erranen nork libratuko nau herioaren gorphutz huntarik eta estuzu gehiago oihurik egiñen, emanen duzula helas! ala ene mundu huntako bizitzea luzea baita: zeren herioa destruitua izaren baita eta bizitze sekulako batean zeñetan espaita izaren trublerik eta khexadurarik, sarthuko baitzare, dohatsuen bozkarioz, zeruko konpañiaren dulzetasunaz eta Parabisuaren edertasunaz han gokatzeko.

A ikhus ahal baziñeka ene sainduen dohatsu-tasun eternala, eta hekien khor oak, eta lehen munduan mesprezatutzat pasatzen ziren presu-nak, orai zer glorietarat diren altxatuak, egiaz lurraten barneraiño beheiti zeinteske hobeki desira ziñezake guziek obeditzea ezen ez bati manatzea.

Etziñotzake lainkoari galdegin zure egunak bakean, eta prosperitatean litezen, baiñan bai eman diezazun grazia travaillu handia harenga-tik sofritzeko, eta estima ziñekake irabazi handi bat egiten duzula gizonen artean esdeusatzat esti-matua izateaz.

A egia hauk gustatzen bazintu eta zure biho-tzeraiño penetratzen balute, nola ausarta zein-teske pleinta bat xoilki egitera zure gaitz guzie-tan.

Zer, estire travaillu suerte guziak sofritu behar bizitze eternalaren erosteko?

Esta gauza gutia, lainkoaren erresumaren irabastea, edo galtzea.

Altxa zatzu beraz goiti zerurat zeure begiak; eta kontenpla zazu zerua.

Han nago ene saindu guziekien, zeññak munduan borthiski gonbatitu, eta haiñitz sofritu ondoan, orai boskario, konsolazione, segurantza eta errepausuan baitire, eta fiñik gabe ene aita lainkoaren erresuman enekien sekula sekuloronean egoren dire.

XLVIII. GARREN KAPITULUA

Zeruko bakeaz, eta mundu huntako miseriez

ARIMAK

Zeruko zibitatearen egoitza dohatsua; o Eternitateko egun klara, gau batek ere ilhuntzen etzaituena, baiñan egia suberanoaren arraioez bethiere distiatzen duzuna.

O boskarioz, segurantzaz eta errepausuz betherikako eguna, zeñaren dohatsutasuna espaita xanjamendurat suiet.

Oxala egun hura jadanik ethorria balitz eta tenporal diren gauza guziak denborarekien fiñatuak balire!

Argi eternal batez egun hark saindu eta dohatsuetan klaratzen du; baiñan lurrean desterratuak direnei estiote urrundik edo itzalen medioz baizen, argitzen.

Zeruko Ierusalem hartako burjesek badakite zeñ boskarioz gaindi egiten duen, baiñan Ebaren ume desterratuak bere desterruan nigarre-

tan daudez, bizitze huntako garratztasunak kon- sideratzen ditustela.

Ezen denbora guti hemen bizi gare, eta gure egunak gaistoak, eta mireriez eta doloreez betheak dire.

Gizona hemen milla fazoinez bekhatu lizundua da, haiñitz pasionez amarratua, beldurtasunez trublatur, artha handiz inkietatua, kuriositatez bethea, banitatez poseditua, gezurrez itsutua, travailluz nekhatua, tentazionez inguratua, plazerez galdua, pobrezi az eta miseriaz tromentatua.

O noiz ethorriko da gaitz haukien fiña! noiz bizioen esklabotasun dohakabetarik libratua izaren naiz? noiz zutaz xoilki launa orhoituko naiz? noiz ene boskarioak gairdi egiñen du zutaz xoilki alegeratzen naizela? noiz libertate egiazko hartas gibelamendurik eta gorphutzeko eta ispirituko penarik batere gabe gozatuko naiz.

Noiz bake egiazko hartaz, trublerik gabeko bakeaz, bake segur hartaz, barneko eta kanpoko bakeaz, parte guzietarik konstant eta fermu denaz gozatuko naiz.

O lesus ona! noiz zure aitzinean zu ikhustea-gatik presentatuko naiz? noiz zure erresumaren gloria kontenplatuko dut? noiz izaren zaizkit gauza guzia nazen gauza guzietan?

Noiz izaren naiz erresuma hartan zeina eternitate guztik zu maite zaitustenei preparatu baitiozute?

Helas? pobre eta desterratu bat bezala hemen abandonatua naiz, etsaies betherikako lekhu batean, zeinetan gerla bethiereko, eta gaitz eziñi konda deiteesken benzanbat baitire.

Konsaia zazu ene desterramendua, esti zazu ene dolorea, zeren ene desira guziak zureganat suspiretan baitaudez.

Munduak ene konsolatzeko presentatzen darozkidan gauzak karga zaizkit.

Zutas ene ariman baina goatzera su handi-ekin desiratzen dut, baiñan munduko gauzen amudioak eta ene pasione mortifikatu estirenek bethiere traiñatzen naute.

Nahi nuke gauza guzies gorago ispirituz altxatua izan, baiñan haragiaren flakeziaz neure nahiaren kontra hari berari obeditzerat bortxa-tua naiz.

Hargatik ni dohakabe naizena neure burua-
ren kontra gonbatitzen hari naiz, eta neure
burua eziñ sofri dezaket, ispiritua bethi goiti
hedatzen dela eta haragia beheiti.

O zer estut nik ene baithan sofritzen, noiz eta
ene ispirituan zeruko gauzez meditazio bat
egiten baitut orduan berean kolpe batez milla
fantosma eta pensamendu extrabagant hara-
giak presentatzen daroskit.

O ene lainkoa! etzaitezela urrun eneganik eta
zure koleran etzaitezela zure zerbitzariaganik
aparta.

Etza zatzu zeure ihurtzuriak eta xismistak,
eta kasa zatzu ispirituko estrabagant hek guziak.

Ene etsaiaren artificio gaistoen kontra ego-
rratzu zute fletxak, biltzatzu zeureganat ene
sensu guziak, ahantz aras dietzakidatzu mundu-
ko gauza guziak, eta detzadan mespreza beka-
tuak ene baithan inprimatzen dituen fantasma
hek guziak.

Lagunt zakiskit, o egia eternala! banitatearen
mobimendu batek ere mobi esnazaken bezala.

Jauts zaite ene bihotzerat, o plazer zerukoa!
eta zure aitzinean munduko plazeren lizuntasu-
na dohan ihesi.

Barkha dietzadatzu, o ene lainkoa! eta zure
miserikordiaren arabera trata nazazu zutas ber-
terik ene debozionetan ispirituan baldin badut.

Aithortzen darotzut, batzuetan haiñitz dis-
trakzioe dudala, ezen maiz esta ene ispiritua
ene gorphutza jarria edo xutik dagoen lekhan,
bañan bai hobeki pensamenduek norat ere era-
maten baitute eta han.

Proprioki ene pensamendua den lekhan naiz
eta ene pensamendua ordenarioski maite dudan-
etan da.

Ezen berehala ene ispirituak errekuntratzen
du naturalki eta usantsaz plazer egiten dioena.

Zuk klarki erakusten darokuzuna, o egia eter-
nala? erran darokuzunean: non ere baita zure
tresora han da halaber zure bihotza.

Zerua maite badut, zeruko ontasunes pensa-
tzeaz plazer hartuko dut: mundua maite badut
munduko ontasunez alegranzia eta haren gai-
tzez tristezia izaren dut.

Haragia maite badut, haragiaren gauzak ene imaginazionean ditut, ispiritua maite badut gauza ispiritualez pensatzea plazer hartzen dut, ezen maite ditudan gauzez mintzatzeas edo mintzatzzen aditzeaz ene baithan inklinazione bat sentitzen dut, eta gauza hekien imajinak plazerekien neure buruari errepresentatzen diotzat, hek neure bihotzean konserbatzen ditudala.

Baiñan haiña dohatsu da, o ene lainkoa; zeinak zuregatik kreatura guziak bere bihotzetik desterratzen baikitu, naturari biolenzia egiten baitio, eta ispirituko berotasun saindu batez haragiaren desira gaisto guziak gurutzefikatzen baikitu, estatutan bere burua emateko zuri bere konszienziako bakean othoitz garbi bat ofrendatzeko, bere barne eta bere kanpoan lurreko gauza guziak bereganik urrunarazi ondoan, aiñguru sainduen konpañian lainkoa bere ispirituan adoratzeko kapable errenda dadintzat.

XLIX. GARREN KAPITULUA

**Bizitze eternalaren desiraz, eta
zenbat ontasun prometatutak
diren gonbatitzailearentzat**

IESU KRISTOK

Ene semea edo ene allaba, noiz eta orduz dohatsutasun eternalaren desira zerutik jausten zaitzula sentitzen baituzu, eta duzun gorphutz hortarik ilkitzera desiratzen baituzu, ene argia xanjamenduaren itzalik gabe kontenplatzeko; zabal zazu zure bihotza, eta zure arimaren hedadura guziaz ene inspirazione saindua errezibi zazu.

Ene misericordia suberanoari, zeñak manera xarmant hortaz tratatzen, horrenbertze dulzetasunekin bisitatzen, horlako mobimendu biziez iratzartzen, eta horlako esku puxantaz sustengatzen baitzaitu, grazia extraordinarioak errenda diozotzu; zeure buruz zeure pendura propioaz lurreko gauzen amudiorat eror etzaitezen amo-reagatik.

Ezen estuzu uste behar efektu on horiok zure pentsamenduenak edo zure egiñ ahalarenak direla, baiñan bai ene grazia eta begiratze Jainkoarenak; bertutean abantza dezazuntzat, zure humilitatea borthitzago egiñ dadin amoreagatik, ethorkizuneko gonbatetarat prepara zaitezentzat, eta zure bihotzeko afekzione sustatuez enekien juntatzera eta ni zerbitzatzera travailla zaitezentzat.

Ene semea edo ene alaba maiz suak erretzen du, baiñan haren kharra esta kherik gabe altxatzen.

Hargatik batzuen desirak zeruko gauzetarat altxatzen dire, eta guziarekiñ estire haragiaren tentazionerik gabe. Handik heldu da, niri zeruko ontasunak haiñbertze surekiñ galdegiten baita-roskidate? guziarekiñ mobimendu hori esta osoki garbia, ez eta ere xoilki ene gloriarentzat.

Ezen amudio eta intres propioaz usaindua dena, esta sekulan ez garbi, ez eta ere perfekt.

Galdegiñ diezadazu, ez zure inklinazione eta komoitatearen arabera dena, baiñan bai niri plazer eta ohoresko zaitana: ezen ungi jujatzen baduzu gauzez, ezagutuko duzu bethiere ene

ordena zure plazerari aitzinean eman behar diozula, eta hobeki egiñ behar duzula nik nahi dudana, ezen ez zure nahia.

Ezagutu ditut zure desirak, eta maiz aditu zure suspirak.

Jadanik Jainkoaren umeen gloriaren libertatean nahi zinduke izan: orai berean egoitza eternal eta zerukoak zeruko alegrantziaz betheak plazer egiten darotzu.

Baiñan oren hura esta oraiño ethorri: baiñan bada lehenago bertze denbora suerte bat, erran nahi da, gerlako denbora bat traillausko eta frogantzasko denbora bat.

Ontasun suberanoaz bethea izatea desiratzten duzu, baiñan oraiño eziñ hura ardiets dezakezu.

Ni neroni naiz ontasun hura, zaude ene beira, dio Jaunak, Jainkoaren erresuma ethor ahal deitekeen arteraiño.

Oraiño lurrean exerzatu eta frogatua behar duzu izan.

Batzuetan konsolazione emanen darotzut, baiñan etzare oraiño hartaz abundantki gozatu-ko.

Borthitz zaite beras eta zaren kuraios natura-
ren kontra diren gauza guzien egiteko eta sofri-
tzeko.

Gizon berriaz bestitu behar duzu, eta bertze
gizon batetara zeure burua xanjatu.

Maiz egiñ behar duzu nahi estuzuna, eta
abandonatu gehien desiratzen duzuna, bertzeei
plazer zaiotena abantzatua izaren da, ez zuri pla-
zer zaitzuna.

Bertzeze erranen dutena aditua izaren da,
eta zuk erranen duzuna mesprezatua.

Bertzeak galdegiñen dutena izaren dute, eta
zuk galdegiñen duzuna errefusatua izaren zai-
tzu.

Bertzeak gizonen estimuan handi izaren dire,
eta zu ahantzia egoren zare bertzeek enpleguak
izaren dituste, eta zu hekientzat etzaituste kapa-
ble estimatuko.

Horlako okasionetan natura tristatzeko da,
eta gauza handia izaren da, baldiñ ixilik sofritzen
baduzu.

Horlako fazoiñes Jainkoak bere zerbitzariaren
fidelitatea frogatzen du, ikhusteko ea nola ixas-

ten duen bere buruari ukho egiteko, eta bere borondatea gauza guzietan hautsteku.

Estuzu deusetan ere haiñ behar zeure burua-
rentzat hilla izatea, nola zure borondate propio-
arentzat kontrario dena ikhustea eta sofritzea
obligatua zarenean, eta partikularki gauza guti
arrazoinesko eta progotxusko iduritzen zaiski-
tzunak manatzen daroskitzutenean.

Eta nola zutas goragoko puxantza bati, zeña-
ren aspian baitzare, eziñ resistenzia egiñ baitio-
zokezuke, gogor iduritzen zaitzu zeure burua
haren plazeraren arabera gidatzea eta zeure
sentimendu propioaz biluzia izatea.

Baiñan konsidera zazu ene semea edo ene
alaba travaillu haukien fruktua, laster izaren den
fiña, sariaren handitasuna, eta ez solament estu-
zu penarik hetan sofrituko, baiñan zure pazien-
zia berak han kausituko du indar eta konsolazio-
ne miragarri bat.

Ezen orai egiñen duzun egiñ ahal guti baten-
tzat, bihotz onez zure borondatearen satisfakzio-
nearen kitatzeko, ikhusiko duzu osoki eta doha-
tsuki sekulatzotzat zeruetan satisfatua.

Han kausituko duzu nahi duzun guzia, eta zure desira guziak han konplutuko dire.

Han ontasuna guziez gozatuko zare, hekien galtzeko beldurtasunik gabe, hau zure borondateak enearekin juntatua dela, estu deusere kanpokorik edo partikularrik desiratuko.

Han estarotzu nihork resistenziarik eginen, nihork estu pleintarik zutaz eginen, nihork eskitu zure deseinuak gibelatuko, baiñan zuk desira ahal dezaketzen ontasun guziak present direla, hek guziak elkharrekin zure bihotzesko desira eta hedadura guzia betheko dute.

Han gloria suberano batez, errezibitu dituzun induriak, bozkario abundant batez isuri dituzun nigarrak, eta tronu eder eta sekulako batez zure humilitatea, errekonpensatuko ditut.

Han klarki ikhusiko da obedientziaren fruktu eta prezioa, han alegeratuko da penitentziaren trabaillua, han fiñean arima humillen dependenzia ohorez eta gloriáz khoratua izaren da.

Hargatik halako dohatsutasunaren esparantzán, humilia zaite guziez beherago, eta etzaitezela penetan eman, nork ordenatu zaitzun gauza errañ edo manatu duen.

Baiñan duzun artha, disposizioe hartan iza-tekotz nahiz zure superiorak, edo zure igoalak, edo zutaz beheragokoak zureganik zerbeit desiratu edo galdegiñ arren, hartatzu guziak bihotz onez eta entsaia zaite borondate egiasko batez konplitzera.

Batzuek bilha bezate gauza bat, bertzeek bertze bat, batzuek glorifika beitez abantail batez, bertzeak bertze batez, eta kausi bezate nahi badute milla presuna hek estimatzen eta laudatzen ditustenak.

Zutaz bezanbatean etzazula eman munduko gauza batetan ere zure boskario eta ohorea, baiñan zure buruaren mesprezioan, ene glorian eta ene borondate xoillaren plazerean.

Estuku deusik mundu huntan desiratu behar laundoni Paulek egiten zuena baizen, zeïña baita Jainkoa dela bethiere zure baithan glorifikatua, nahiz zure bizitzeaz nahiz zure heriotzeaz.

L. GARREN KAPITULUA

**Nola arimak aflikzionetan
lainkoaren eskuetarat bere
buruaz ofrenda bat egiñ behar
duen**

ARIMAK

Jainko launa, Aita saindua, zaren orai eta bet-hiere benedikatua, zeren zuk nahi izatu duzun guzia egiñ izatu baita, eta zeren zuk egiten duzun guzia, gauza ona baita.

Zure zerbitzaria, zure baithan alegera bedi; ez bere baithan, ez eta ere bertzetan, zeren zu xoilki baitzare egiazko boskarioa, hala nola ene esparantza, ene khoroa, ene dohatsutasuna eta ene gloria.

launa, zer du zure zerbitzariak zureganik errezibitu duena baizen, eta oraiño hura merezi gabe?

Eman eta egiñ ditutzun gauza guziak zureak dire.

Pobre naiz eta ene gastetasunetik huneraiño travaillutan langitzen hari naiz, eta ene arima

tristatzen da batzuetan nigarrak isurtzeraiño, eta batzuetan nekhatzen duten pasioneak direla kausa bere baithan trublutzen da.

Bakearen boskarioa desiratzen dut, zure umeen bakea, zeñak zure konsolazioneen argian entretenitzen baikirutzu, su handirekiñ nahi dut.

Baldiñ bakea ematen badarotazu, baldiñ zure bozkario saindua isurtzen badarotazu, zure zerbitzariaren arima alegrantziasko kantetan zaren da, eta zure laudoriotan erreko da.

Baldiñ aphur bat erretiratzen bazare maiz, usatzen duzun bezala, eziñ zure manamenduen bidean kurri dabilke.

Baiñan guzia flakatua bethi bere bulharren iotzen hariko da, ikhusten duela egun estela gehiago izaren, atzo eta lehenago zen bezala, noiz eta orduz zure argiak haren buruaren gainean distiatzen baitzuen, eta atakatzen zituen tentazionetarik zure hegalen itzalaren aspian guardatua baitzen.

Aita justua eta bethiere laudatzea merezi duzuna, zure zerbitzariaren frogatzeko orena ethorri da.

Aita bethiere ohoratzea merezi duzuna, huna eternitate guzitik ikhusi duzun orena zein etan zure zerbitzariak erori behar baitu kanporat den bora guti batetako, zurekin bethiere bizitze ispiritual eta barneko batez bizitzeko.

Den beraz aphur bat mesprezatua, abaxatua gizonen estimuan galdua eta pasioneez langitua, zurekin berriz ere argi berriaren hastean eta parabisuko gloriaren posesionean den sarthua.

Aita saindua, manera hortan ordenatu eta nahi izan duzu, eta deusik etzait arribatzen sofritzen dudan gauzetan non estarotazun zeronek manatu.

Hori da zure adiskideei egiten diozuten grazia, bethi zuk permetitzen duzuño sofritzea, eta aflijitua izatea.

Ezen deusik esta egiten lurrean non estuen zure baithan bere kausa, eta non esten zure proidentzia soberanoaren konseilluz erregelatua.

Jauna ontasun handia zait, zutaz humiliatua izatea zuri obeditzerat ikhas, eta neure bihotzeko presunzione eta hantudura guziak itho detzadantzat.

Progotxu da enetzat, ene lainkoa! den ene bisaia ahalkatua, zure konsolazioneak gizonenak baiño hobeki bilha dezadantzat.

Halaber hemendik ikhasi dut beldurtasun saildu batekiñ zure jujamendu eziñ penetra deitieskenen ohoratzen: zeñen arabera justua gais-toarekien aflijitzen baitutzu: ordean zuzenaz eta justiziaz betherikako ordena eder batez.

Graziak, launa, errendatzen daroskizut zeren estiozuten ene gaitzei barkhatu baiñan pena garratzez ene arima kastigatu duzun, barnean eta kanpoan doloreez penetratzen duzula.

Estut zeruaren aspian nihor, o Ene lainko launa, zu zerori baizen konsoka ahal nazakenik, o arimen miriku zerukoa, zeñak kolpatzen eta sendatzen, thonbaraiño eta ifernurairiño eramaten eta handik libratzen baikaitutzu.

Zure besoa hedatu duzu eneganarairiño, eta zure xigorak berak instruituko nau.

Huna ni zure eskuen artean, o Aita soberano-ki maitagarria! zure korrekzioearen xigorraten aspian behekitzen naiz.

Ene lephoa eta buru superbiosa zeha eta beheiti zatzu, zure saildutasunaren aspian ene

borondate gaiski erregelatua eta ezin erabil dezakedana plegaraz dezadanzat.

Egin nazazu zure diszipulu humil eta obedient, zure ispiritu sainduak egiten dakien bezala, zuri gauza guzietan obeditzen, eta zure segitzen baizen pensa estezadan amoreagatik.

Osoki nerori eta ene baithan diren gauza guziak korriji nazazunzat zure eskuetarat abandonatzen ditut, mundu huntan, infinituki korrijitzea hobeago denaz geroz, ezen ez bertzean.

Zuk gauza guziak jeneralak eta partikularrak perfekti ezagutzen ditutzu, eta deusere esta gure konszientzian zuri estaltzen zaitzunik.

Ethorkizuna den baiño lehen badakizu, eta esta nezesario, lurrean zer iragaten den aberti zaitzaten.

Badakizu ene abanzatmenduarentzat zer zaitan konbeni, eta zenbat, aflikziona gure bizioen herdoiltasuna garbitzeko, progotxusko zaitan.

Trata nazazu zure plazeraren arabera, eta ene arima bekhatorosaren langiadura, zeïña nihori ere baiño hobeki ezagutua baitzaitzu, etzazula mespreza.

Indazu grazia ez jakiteko, jakin behar dena baizen, ez maitatzeko maitatu behar dena baizen, ez laudatzeko zuri plazer zaitzuna baizen, ez deusere handi estimatzeko zure aitziñean handi dena baizen, eta zure aitziñean mespreztua dena, dezadan halaber nik ere mespreza.

Etzazula permeti kanpoko bista batez gauzak juia detzadan, ez eta halaber eman dezadan sententziarik presuna inprudenten eta ariñen adituen arabera; baiñan indazu grazia gauza ageri direnez eta estirenez, argi egiasko batez juiatzeko, eta gauza guzien gaiñean zure plazeraren borondatea bethi bilhatzeko.

Gizonek ordinarioski bere sensuaren araberrat juiatzen dutela, trunpatzen dire.

Munduaren maitatzailleak, halaber ontasun ageri direnak maitatzen ditustela trunpatzen dire.

Zer du gehiago gizon batek bertze gizon baten ispirituan handiago izanaz?

Trunpur bat da, bertze trunpur bat laudatzen duena, superbios bat, bertze superbios, bat laudatzen duena, itsu bat bertze itsu bat estimatzen duena, eri bat bertze eri bat lausengatzen

duena, eta hala batak bertzea altxatzen duela,
trunpatzen du, eta falsoki laudatzen duela,
egiaski desohoratzen du.

Ezen San Franzes humilak erran duen bezala,
gizona esta bere baithan handiago, o ene lain-
koa! zure begien aitziñean den baiño.

LI. GARREN KAPITULUA

**Nola kristabak gauza behera eta
kanpokoetan okupatu behar
duen, agortasunean kausitzen
denean**

JESU KRISTOK

Ene semea edo ene alaba eziñ bethi bertutearen berotasunean eta desira handian zaude-ske, ez eta ere kontenplazionearen gradu gorean; baiñan batzuetan nezesario duzu bekhatu orijinalaren korrupzioea dala kausa gauza behere-tarat iauts zaitezen, eta zeure nahiaren kontra penarekiñ bizitze korrumpitu hunen karga pisua ekhar dezazun.

Gorphutz mortal batez bestitua zareino, zure arima nekhatua, eta halako pisu handiaren aspian borthiski travaillatua izaren da; beraz haragi hortaz inguratua zareino, haren pisutasu-naz suspirak egiñ behar ditutzu, zeinak bizitze ispiritualaren exerziziotarat, eta lainkoaren han-ditasunaren kontenplazionerat zeure burua apli-katzeaz debekatzen baitarotzu; orduan progotxu

izaren da zuretzat, kanpoko obra humiletarat errekortu izaterat, akzione onez nekhadura hura errekreazionera xanjatzerat: ene eta ene grazia-
ren isurduraren begira konfidenzia fermu bate-
kiñ egoterat, eta zure desterrua eta ispirituko
agortasuna pazienziarekiñ sofritzea, berriroki
zure bisitatzera eta zure penetarik libratzera
ethor naitekeiño.

Ezen barneko bake, zure travaillu guziak
ahantsaraziko daroskitzun batez, betheko zaitut,
neure eskrituren plazeresco baratzean sararazi-
ko zaitut, eta bihotzeko hedadura miragarri
batekien ene manamenduen bidean kurri erabi-
laraziko zaitut, orduan erranen duzu Jaundoni
Paulerekin: bizitze huntako dolore guziek estute-
la egun batez, lainkoak gure baitan erakutxiko
duen gloriarekin, proportzionerik.

LII. GARREN KAPITULUA

**Nola giristinoak estuen bere
burua estimatu behar kapable
lainkoaren konsolazionearen
izateko, egiasko kontrizioneaz**

Jauna! ez naiz kapable konsola, eta zure prezenziaz bat zuetan ohora nazazun. Hargatik justiziarekien tratatzen nauzu noiz, eta orduz abandonatua usten bainauzu.

Ezen itsasoan ur den bezanbat nigar egiñahal baneza ere, ezniteke kapable zutaz bisitatua izateko.

Kastigatua eta punitua izatea merezi dut, zeren maiz ofensatu baitzaitut, eta zeren ene bekhatuak bere kalitatetan eta nonbrean handiak baitire.

Beraz zor zaitana konsideratzen dudanean, ez naiz kapable zure konsolazionerik mendree-naren izateko.

Baiñan zu, o ene lainko miserikordiaz eta ontasunez betherikakoa! zeure obrak galzerat, miserikordiaren untzien gaiñerat zure ontasuna-

ren aberatstasunak distiarasteko, utzi nahi eskitutzauna, zure zerbitzaria bere merezimenduz gorago manera lainkosko batez konsolatzen duzu.

Ezen, ene lainkoa! zuk ematen ditutzun konsolazioneak estire munduko hitzuntzikeriak bezalakoak.

Zer egiñ dut, launa! zuk ni zenbait orduz zeruko dulzetasunaz konsolatzeko?

Ez naiz orhoitzen ontasunik batere egiñik, baiñan bai kontrarat bethiere bekhatu egiterat prunt izatu nazela, eta neure korrijitzera alfer.

Egia da, eta eziñ ukha dezaket bertzela erra-ten banu, ene kontra zinteske eta nihor ene sustengatzerat ezliteke ausarta.

Zer merezitu dut ene bekhatuentzat, Ifernua, eta sekulako sua baizen.

Egiaz aithortzen dut ene lainkoa! merezi dudala izatea kreatura guzien hirrigarri, eta mesprezio, eta estela arrazoin eman nazaten zuretzat debot direnen nonbrean.

Eta penarekiñ hori erran arren, guziarekiñ egiari gloria errendatzeko neure buruaren kontra mintzo naiz, eta neroni neure bekhatuez akusa-

tzen naiz, erreiskiago zure grazia eta miseriakordia ardiets dezadantzat.

Nik hobenduri, eta konfusioez betherikakoa zer erranen dut.

Eziñ ahoa idik dezaket hitz xoil hau errateko baizen, bekhatu egiñ dut, launa! duzun nitaz konpasione eta barkha diezadazu.

Ustazu aphur bat neure doloreaz nigar egitera, lur ilhun eta herioaren itzalaz estalirikako hartarat jautsi baiño lehen.

Zer bekhatore miserableari handiagorik galdegiten diozu, bere bekhatuentzat humilia, eta bihotza dolorez arraillatua duen baizen?

Bihotza kontrizione eta humiliacione egiaskoan denean barkhamenduaren esparantza sortzen da, konzienzia trublaturik dardaritzen da, grazia galdua erreparatzen da, ethorkizuneko kolektatik guardatzen da: eta lainkoa arima penitentaren aitzinera joaten dela besartatzen du, eta musu saindu bat ematen dio bakearen eta errekonziliacionearen zigillua bezala.

Bekhatoreen kontrizione humilla, o ene lainkoa! sakrifizio plazerako bat zaitzu, zeinaren

usaiña konparazionerik gabe intsentsuarena baiño dultzeago baitzaitzu.

Kontrizionea ungentu preziatu hura da, zeiña nahi izatu baituzu zure oiñ sakratuetarat isur zediñ, zeren egundaiño bihotz dolorez bethea eta humiliatua espaituzu mesprezatu, han da gure ihes lekhua etsaiaren koleraren aitziñetik.

Han bizitzearen xanjamendu egiasko batez gure tatxa guziak urratuak eta garbituak dire.

LIII. GARREN KAPITULUA

**Nola othoitza eta bakhartasuna
maitatu behar diren
lainkoarekiñ bethi aplikatua
izatekotz**

IESU KRISTOK

Ene semea edo ene alaba, ene grazia prezia-tua da, gauza kanpokoekiñ eta lurreko konsola-zioneekien estu nahaskatua izan nahi, beraz kasatu behar ditutzu zeureganik ene grazia debeka ahal dezaketen gauza guziak, nahi badu-zu zureganat hura isur dezadan.

Bilha zazu bethi sekretua, zaitzun lakhet zeure buruarekien bakharrik egotea; etzazula nihoren ere konsolazionerik desira, baiñan kons-zientzia garbi baten izateko artha hartzen duzu-la, eta zure ariman ximikoa konserbatzen duzu-la, egidazu zure othoitz debota.

Esteus estima zazu mundu guzia, eta lainko-aren bokazioneaz kanpoko gauza guziez baiño gehiago duzun estimu.

Ezen inposible da eneganat zaudezen apikatu, eta denbora berean munduko gauza iragaten direnetan, zeure boskariora kausi dezazun.

Ezagutzen eta maite ditutzun presunetarik urrundu behar duzu, eta iduki arima munduko konsolazione guzietarik gabetua.

Manera huntan Jaundoni Petrik othoisten gaitu fidel guziak, mundu huntan garbitasunean eta kontinenzian pelegriñ eta kanpotar batzuek bezala bizi gaitezen.

O nolako konfidentzia izaren duen gizon batek bere heriotzeko denboran, ikhusteas bere arima, munduko gauza batentzat ere estuela jaidurarik.

Baiñan ispiritua oraiño eri eta langisant deiño, eziñ konprendi dezake, zer den manera huntan gauza guzietarik bihotza separatua idukitzea; eta gizon animalak eziñ gizon barnekoaren eta ispiritualaren libertate hau ezagut dezake.

Guziarekien baldiñ nahi badu egiasko ispiritual izan, haiñ ungi urrunekoei nola hurbillekoei nezesarioki ukho egiñ behar diote, eta bere buruari bertze guziei baiño hobeki goardia egiñ behar dio.

Zeure burua perfekti bentzu ahal badezazu, berzeak erreiski egiñen ditutzu.

Biktoriarik handiena bere buruaz triunfatzea da.

Ezen bere burua bentzutua dadukanak, sensuak arrazoiñari gauza guzietan obeditzen dioela, eta arrazoiñak niri, haiña bere buruaren biktorios, eta munduaren nausi egiaskoa da.

Nahi baduzu perfekzione gora hartarat altxatua izan, kuraioski hasi behar duzu, eta arbolaren erroari haiskora eman, zeure baithan inklinazione sekretu eta ordenarik gabeko hura, zeure buruarekiñ juntatzen zaituena, eta ontasun materiel eta partikular batetarat bethiere pendura emanarasten darotzunaren, destruitzeko eta errotik atheratzeko.

Pasione haiñ natural eta haiñ biolenta, zeinaz gizonak bere burua sobra maitatzen baitu, ithurri bat da, zeinetarik erro batetarik bezala bentzutu eta destruitu behar ditugun pendura gais-to guziak dependitzen baitire.

Hek bentzutu ondoan bake eta errepausu mirakuilusko batean bethiere kausituko zare; zeren gutiak baitire bere buruarentzat perfekti

hiltzerat travaillatzen, eta bere inklinazionetatik osoki ilkitzen direnak; bethiere amarratuak hetan daude, eta bere buruaz gorago ispinituz eziñ altxa deiteske.

Baiñan enekien libertate osoan ibiltzerat desiratzen duenak, bere afekzione gaisto eta ungi erregelatu estirenak nezesarioki mortifikatu behar ditu, eta bere pasione eta amudio propioas etzaio kreatura bati ere juntatu behar.

LIV. GARREN KAPITULUA

Naturaren eta graziaren mobimendu kontrariosko eta diferentes

IESU KRISTOK

Ene semea edo ene alaba, emozute ungi goardia naturaren eta graziaren mobimenduei, zeren hagitz subtil eta osoki kontrarioak baitire, eta gizon batek hagitz ispiritual eta argitua behar du izan, hekien ungi ezagutzeko.

Guziek ona desiratzen dute, eta zerbait on bere erranetan eta egiñetan pretenitzen dute; hargatik onaren itxurak hañitzak trunpatzen ditu.

Natura artifizioz bethea da, eta haiñitz bere peitez eta xarmez bereganat thiratzten, irabasten eta trunpatzen du; eta bere satisfazione propioa du xedetzat.

Baiñan grazia kontrarat sinpletasunean dabil; gaitzaren aparentziarik mendreenei ihes egi-ten diote, esta artifizioz baliatzen, eta xoilki gauza guziak lainkoagatik, zeña baithan bere

askeneko fiñean bezala errepausatzen baita, egiten ditu.

Naturak estu hil nahi, estu presatua eta bentzutua izan nahi, pena du obeditzeko, eta estu nahi sujet errenda dezaten.

Baiñan graziak kontrarat arimak bere burua mortifika dezan, sensuei resistentzia egiñ diozoten, azpiko den, bentzutua den libertaterik estuen nahi du, baiñan bai instrukzionearen aspian arrastatua den, estu nahi izan nihoren nausi baiñan lainkoaren aspian bizi eta egon nahi du, eta prest da Jainkoaren amoreagatik beheratasun handirekien kreatura humanoari humiliatua izateko.

Natura bere intres propioarentzat trabaillatzen da, era zer abantailla bertzeetarik thira ahal dezakeen konsideratzen du.

Graziak zer zaion progotxusko eta bere komoitatearentzat estu konsideratzen, baiñan bai zer hañitzen abantzamenduarentzat zerbitza ahal deiteken.

Naturak ohoratua eta errespetatua nahi du izan.

Grazia ohore eta gloria guziak Jainkoari errendatzerat fidel da.

Natura konfusione eta mesprezioarentzat beldur da.

Graziak Iesu Kristoren amoreagatik boskario-rekien hek sofritzen ditu.

Naturak alfertasuna, eta gorphutzeko erre-pausua maite du.

Grazia eziñ alfer dagoke, eta bihotz handire-kien travaillua besarkatzen du.

Naturak gauza eder eta kuriosak bilhatzen ditu, eta grosier direnentzat abhorrimendua du.

Graziak gauza sinpletan eta behera direnetan plazer hartzen du, estu gogor dena mespreza-tzen, eta estoakote bestimenda zahar eta erabi-liei ihesi.

Naturak denborako gauzei begiratzen diote, irabazi batez boskariotan da, eta kalte tenporal batez tristatu ondoan, induriasko hitzik men-dreenaz asarratzen da.

Baiñan graziak sekulako gauzak konsidera-tzen ditu, etzaiote munduko gauzei juntatzen, esta munduan arriba ahal dakiskion deusez ere trublutzen, eta esta halaber hitz gogorrez asa-

rratzen, zeren bere thresor eta boskarioa zeruan eman baitu, zeinetan baitaki deusik estela gal-tzen.

Natura abaritios da, nahiago du hartu eman baiño, bere zaiskon gauza propio eta partikula-rretan plazer hartzen du; grazia kharitatetsu da, ontasun komuna maite du, bakhar zaionari ihes egiten dio, gutiz kontentatzen da, eta uste du dohatsutasun handiago bat dela ematea ezen ez errezibitzea.

Naturak kreaturetarat du bere jaidura, hala nola gorphutzaren satisfatzerat, banitaterat eta solas banoetarat.

Baiñan graziak lainkoaganat eta bertuterat thiratzen du, kreaturei ukho egiten diote, mun-duari ihes egiten dio, haragiaren desirentzat abhorrimendua du, entretenimendu eta bisita progotxu gabekoak gutitzen ditu, eta publikoki agertu behar duenean ahalkatzen da.

Naturak atsegiñ hartzen du zenbait konsola-zione kanpoko errezibitzeaz, zeinetan bere sen-suen satisfakzionea kausitzen baitu.

Graziak kontrarat lainko xoilak baithan kausi-tzen du bere konsolazionea; eta ageri diren

guziak mesprezatzon dituela, ontasun suberanoan baizen estu kaustzen bere boskariora.

Naturak bere intres propioa dela kausa, gauza guziaz egiten ditu, zenbait ontasun nobre baita egiten badiu, esparantza du bertze okasione batena ontasun bera edo handiagoa errezibituko dela; eta hartaz pagatua izaren dela, edo errezibituko duen fagoreaz, edo ematen diotzetan laudoriez, eta desiratzon du oraino egiñ duena; eta ematen duena hagitz konsidera dezaten.

Guziak kontrarat estu denborako gauzarik bilhatzen, estu bertze saririk Jainko xola baizen, eta ontasun tenporal beharrenak eskitu desiratzon, eternalen ardiesteko zerbitza ahal dakiskion bezanbat baizen.

Naturak atsegiñ hartzen du ahaide eta adiskide hauñitz izateaz, nobleziaz eta ethorki handitarik izateaz glorifikatzon da, presuna puxanten alderat konplazent da, aberats lausengari da, eta bere iduritakoak aprobatu ondoan, hekiekiñ plazer eta kurentamendu hartzen du.

Graziak kontrarat bere etsaiak maite ditu; eta esta adiskideen nonbre handiaz altxatzen. Haren errespeturat nobleenak bertutetsuak dire.

Pobreei aberatsei baiño fagore gehiago egiten diote, eskitu gehienik puxant direnak lausengatzen, baiñan inozent aflijituarekien sofritzen du; arima sinple eta sinzeroak maite ditu, eta ez dobleak eta artifizios betheak.

Onak bethiere biderik perfektenean gerotik gerora abantza dezatela, eta bertute guzien praktikaz lainkoaren semearekiñ igoal egiñ deitekela, exhortatzen ditu.

Natura eskasaz eta faxeriaz pleintatzen da.

Graziak pena eta pobrezia konstantki sofritzen ditu.

Naturak bere burua bilhatzen du, eta gauza guziak bereganatzen ditu, bere buruarentzat gonbaratzen da, eta kontra egiten diotenei, hark ere halaber orobat egiten diote.

Graziak kontrarat gauza guziak lainkoaganat lehenbiziko prinzipio eta ithurrirat bezala, zeñetarik isurtzen baitire, ekhartzen diotza, estio bere buruari ontasunik batere atribuatzen, estu abantailik batere hartzen, estu kontestatzen,

estu bere abisua bertzeena baiño gehiago estimatzen, baiñan sentimendu eta ahal dituskeen argi guziak zuhurtzia eternalaren, eta lainkoak hetaz egiñ behar duen jujamenduaren azpian, ematen ditu.

Naturak sekretuak eta berriak desira handirekiñ jakin nahi ditu; kanpoan agertu nahi du, eta sensuez ezagut ahal deiteken guzia tentatu eta frogatu nahi du, halaber desiratzen du ezagut-hua izateaz, eta fiñean laudorioak eta gizonen admirazionea ardiets ahal diozoketen gauzen egitea.

Baiñan grazia esta gauza kuriosen jakiterat, eta berrien aditzerat penetan ematen, zeren eta baitaki pasione hori gure baithan gizon zahararren korrupzionetik lortzen dela, eta deusik estela lurrean berri eta iraupeneko denik.

Sensuen bridatzen konplazentzia banoei ihes egiten, justuki laudatuak eta admiratuak ahal leitesken gauzen humilitatearen aspian estaltzen, gauza eta zientziako argi guzietan arimaren progotxua eta lainkoaren gloria bilhatzen, irakasten daroku.

Hura poseditzen duenak estu sekular laudatua nahi izan, ez bere baithan, ez eta ere bere gauzetan, baiñan nahi du lainkoa bere dohaiñetan den benedikatua, zeinak kharitate liberal batez gauza guziak abundantki ematen baikitu.

Grazia hori argi naturaz goragoko bat da, eta lainkoaren ontasun partikular bat.

Propiki hautatuen zigillu eta salbamendu eternalaren bahi bat da, haek gizona lurreko gauzen amudiotik altxatzen du, zeruko gauzak hari maitarasteko, eta haragisko zenetik, egias-ko ispiritual errendatzen du.

Zenbatenaz beraz natura flakatuago eta bentzutuago baita, hanbatenaz grazia handiagoa komunikatzen da, eta barneko gizona egun guziko bisita berriez baratxe baratxe lainkoaren imajina eta iduriaren arabera berriz formatzen da.

LV. GARREN KAPITULUA

**Nola graziaren eta haren
efektuen beharra dugun gure
ariman**

ARIMAK

Ene Jaun eta ene Jainkoa zure imajina eta idurirat kreatu nauzuna, indazu grazia hura zeïña haiñ puxant ta nezesarioa dela salbamenduarentzat erakutxi baitarotazu, ene natura korrupituarentzat, zeïñak bekhaturat eta damnazionerathiratsen bainau, jaidura gaistoak bentzudet zadantzat.

Ezen sentitzen dut ene haragian bekhatuaren lege bat, ene ispirituaren legearekiñ gonbatitzen dena, eta hañitz gauzetan esklabo errendatzen nabena sensuei obediasten darotala: eta hekien Pasionei eziñ resistentziarik egiñ diozoketet, zerorek sustengatzen espanauzu, zure grazia sainduaren sua ene arimarat isurtzen duzula.

Badut zure graziaren beharra, eta grazia borthitzarena naturaren bentzutzeko, zeïñak

bethiere bere gastetasunetik gaistakeriara baitu bere inklinazionea.

Ezen lehenbiziko gizonaz erori ondoan; eta bekhatuaz korrumpitu, lehenbiziko korrupzioe hunen pena gizon guzietarat iragan izan da.

Naturaren izen bera inozentzian eta justizian kreatu duzuna, orai natura korrumpituaren bizio eta flakeziarentzat hartzen da, zeren haren mobimenduak, graziaz lagundua estenean, bekhaturat eta gauza baxoen amudiorat thiratzten baikaitu.

Gelditu zaioen indar flakoa hautsean estalia dagoen su pinta bezala da, eta hori da arrazoïñ naturala, ilhuntasun handi batez estalia, oraiño on eta gaistoaren, egia eta falsoaren, ezagutza duena, ez puxant izan arren aprobatzen duenaren konplitzeko, egiaren argi osoaz eta afekzio-neen erregela on eta sanoaz gozatzen estenaz geros.

Hargatik ene lainkoa! zure legean, barneko gizonaren arabera plazer hartzen dut, dakidanaz geroz on justu eta saindua dela, gaitz guziak kondemnatzen dituela, eta bekhatuari nola ihes egiñ behar diogun irakasten darokula.

Baiñan denbora berean bekhatuaren legeari obeditzen diot, sensuei, eta ez arrazoiñari egiten diodanean, zeren ene baithan ungi egiteko borondatea kausitu arren, estut haren konplitzeko bidea edireten.

Handik heldu da maiz deliberatzen baitut haiñitz ontasun egiterat, baiñan nola ene flakezaren laguntzekotz grazia faltatzen baitzait, errekuntzatzen dudan resistenziarik mendreenean guziak usten ditut, eta flakezian erortzen naiz.

Handik oraiño heldu da perfekzionearen bidea ezagutzen, eta zer egiñ behar dudan ikhusten dudala, guziarekiñ ene korrupzione propioaren pisuaz neure burua sentitzen dut nekhatua, eta esnais gehien perfekt ahal leitekenarenganat altxatzen.

Ala, launa! ala zure grazia nezesario baitzait, ontasunaren hasteko, han abanzatzeko, eta haren perfekti konplitzeko!

Ezen deusik hura gabe eziñ egiñ dezaket, baiñan gauza guziak zure baithan egiñ detzaket zure graziaren sustenguarekiñ.

O grazia egiaski zerukoa zeïña gabe ezpaita merezimendu propiorik, eta zeïña gabe natura-

ren present guziek ezpaitute deusere konsideratu behar.

Arteak, aberatstasunak, edertasunak, kuraiak, espirituak, elokuentziak deusik ez dire, o ene lainkoa, zure grazia gabe?

Ezen naturaren presentak komun zaискote on eta gaistoei, baiñan grazia edo kharitatea hautatuen dohaiñ propio bat da, eta hura dutenak bizitze eternalaz gozatzeko kapable dire.

Grazia hunen exzellentzia haiñ handia bada, non Profeziaren donua, mirakuilluen egiteko podorea, eta kontenplazionerik gorena hura gabe deusik espaitire.

Fedea bera eta esparantza, eta halaber bertze bertuteak zure kharitatea eta grazia gabe espaitzaiskitzu agradatzen.

O grazia infinituki dohatsua, ispirituz pobre eta bertutean aberats gizona errendatzen duzuna, eta dohaiñik handienetan aberats dena, bihotzez bethiere humil egonarasten duzuna?

Zato eneganat, o grazia saindua jauts zaite, goizetik bethe nazazu zure konsolazionez, ene arima, ene ispirituko agortasunen artean flakezarat eror estadiñ.

Estut bertzerik desiratzen, ene Jainkoa; zure begien grazia kausitzea baizen.

Ezen zure grazia bakharra aski dut, zureganik naturak desiratzen dituen bertze gauza guziak errezibitu espanitu ere.

Tentatua eta Tribulazionez tromentatua banaiz ere, ez naiz deusen beldur izaren, zure grazia enekien bada.

Hura da ene indarra, hark konseillatzen, eta sustengatzen nau.

Ene etsai guziak baiño puxantago, eta zuhur guziak baiño argituago da.

Hura da egiaren nausia instrukzionearen erregela, bihotzeko argia; kaltetan konsolatzaillea, tristeziaren etsaia, beldurtasunaren kasatzaillea, debozionearen entretenitzaillea, eta nigar sainduen ama.

Zer naiz hura gabe, egur idor bat surat etxatzeko xoilki on dena baizen?

Beraz zure grazia, o ene lainko! aitzinatz ethor bekik eta nazan bethi lagun, eta obra onetarat aplikatua iduk, Iesu Kristo zure semeaz zein sekula sekuloronean bizi baita. Halabis.

LVI. GARREN KAPITULUA

**Nola geure burua mesprezatu
behar dugun eta Iesu Kristo
imitatu, haren gurutzea
ekhartzen dugula**

JESU KRISTOK

Ene semea edo alaba, zenbatenaz zeure bait-
harik ilkitzo baitzare, hanbatenaz ene baithan
sarthuko zare.

Nola barneko bakea, kanpoko deusik ez desi-
ratzetik ardiesten baitha, halaber bere barnean
bere burua kitatzeaz bibotzaren barnean lainko-
arekiñ juntatzen du.

Nahi dut ikhas dezazun zeure buruari perfek-
ukho egiten, ene borondateari, kontradikzione
eta murmurazionerik gabe odedi diozozun.

Segi nazazu, ni naiz bidea, egia eta bizitzea,
eziñ bidean baizen nihor ibil ahal deiteke; eziñ
nihork egiaren medioz baizen ezagut ahal deza-
ke, eta eziñ bizitzeaz baizen bizi ahal deiteke.

Ni naiz segitu behar duzun bidea, sinhetsi behar duzun egia, eta esparantza behar duzun bizitzea.

Ni naiz bide eziñ ganbia naitekena, ni naiz egia eziñ tronpa naitekena, eta fiñean ni naiz bizitze eziñ akhaba naitekena!

Ni naiz bide infinituki xuxena, egia haltoa, bizitze egiaskoa, dohatsua, eta kreatu izatu ez naizena.

Ene bidean egoten bazare ezagutuko duzu egia, eta egiak libratuko eta posediaraziko darotzu bizitze eternala.

Bizitzean sarthu nahi baduzu, manamenduak goarda zatzu.

Egia ezagutu nahi baduzu, ene baithan sinhets ezazu.

Perfekt nahi baduzu izan, ditutzun gauza guziak sal zatzu.

Ene diszipulu nahi baduzu izan, zure buruari ukho egiozu.

Bizitze dohatsua poseditu nahi baduzu, presenteko bizitzea mespreza zazu.

Zeruan altxatua nahi baduzu izan, lurrean humillazaite.

Eneki en erregiñatu nahi baduzu, gurutzea eneki en ekhar ezazu.

Gurutzearen adiskide xolek dohatsutasuneko bidea kausituko dute, hala nola argi egiaskoarena.

ARIMAK

Ene laun eta ene lainkoa, zure bizia horla munduaz hertsia eta mesprezatu izatu denaz geroz; egidazu grazia imita zaitzadan, eta munduak mesprezaten nabenean, pazienki mesprezio hura har dezadan.

Ezen zerbitzaria esta bere launa baiño handiago, eta diszipulua ezta bere nausia baiño gehiago.

Zure zerbitzaria exerza bedi zure bizitzearen imitazionetan, ezen hartan da ene salbamendu eta saindutasun egiaskoa.

Hartaz lekhora irakurtzen eta aditzen dudan guziak ez nau konsolatzen, ez eta ere osoki behiñ ere satisfatzen.

IESU KRISTOK

Ene semea edo alaba, irakurri duzunaz eta dakizunaz geroz ene bizitzean egiñ ditudan gauza guziak, hek fidelki pratikatzen baditutzu, dohatsu izaren zare.

Norbaitek ene manamenduak baldiñ badakizki eta goardatzen baditu, hark maite nau, eta halaber nik ere hura maitatuko dut, hari agertuko natzaio, eta ene aitaren erresuman, jarraraziko dut.

ARIMAK

Ene Iesus launa! zuk erraten eta prometatzen darrotasuna arriba dakidan, eta grazia handi horren errezibitzeko kapable errenda nazazu.

Errezibitu dut, ene salbatzaillea, errezibitu dut zure eskutik gurutzea, zeïña heriotzeraiño ekharriko baitut.

Ezen egia bada fraide baten bizitzea gurutze bat dela, baiñan gurutze hura bide bat dela hura zerurat daramana.

Behiñ bide hartan ibiltzen hasi izan naiz, ezta permis gibelat bihurtzea, eta gutiago haren kitatzea.

Kuraia, ene anaiak; guziok elkharrekien ibil gaiten, Iesus gurekien izaren da.

Iesusen amoreagatik gurutzea besarkatu dugu, haren berarengatik persebera zagon.

Gure buruzagi eta gidaria dena, gure sustengu eta indarra izaren da.

Huna gure errege gure aitziñean non doan, guratzat gudukatzerat.

Kuraia handi batekien segi zagon; estadiñ nihor flaka, estuen nihork beldurrik.

Garen prest jeneroski gerla hortan hiltzeko, eta gure gloria etzagula lizun eta tatxa, gurutzetik ihes egiten dugula.

LVII. GARREN KAPITULUA

**Nola pazienziarekien bederen
sofritu behar den, boskariorekiñ
eziñ egiñ baditeke**

IESU KRISTOK

Ene semea edo ene alaba, arimako aflikzio-netan pazientzia eta humilitatea konparazionerik gabe gehiago agradatzen zaikit, ezen ez prosperitatean haren konsolazioneak eta gustuak.

Zergatik zure kontra erran ahal duketen gauza xume bates horrenbertze tristatzen zare.

Inportantago baliz ere etzinduke mobitu behar.

Utzazu beraz denarentzat iragaterat, esta lehenbizikoa ez eta ere askena, baldiñ hañitz bizitzen bazare.

Deusik sofritu behar estenean kuraiaz bethea zare, eta bertzeak ere konseillatzen, eta borthisten ditutzu jeneros izaterat zure hitzez; baiñan tribulazione bat zureganat ethortzen den bezaiñ sarri, berehala konseillu eta indarra flakatzen zaikitzu.

Konsidera zazu haiñ maiz errenkuntra xumetan frogatzen duzun askeneko ftakezia, eta sinhets horiok guziak zure salbamenduarentzat arribatzen direla.

Gaitzak zure bihotzean egiñ ahal detzaken inpresione guziak ahalik hobekiena zure bihotzetik kasa zatzu, eta ukitu bazaitu etzazula guziarekiñ permeti zure ispiritua denbora handiz flaka eta enbraza dadiñ.

Pazientziarekiñ bederen sofri zazu, boskario-rekiñ eziñ egiñ ahal badezakezu.

Zure kontra erraten ditusten gauzen aditzeaz pena baduzu, eta koleratua bazare, zeure burua brida zazu, eta etzazula permeti zure ahotik ilkhi dadiñ hitz ungi erregelatua esten batere, den xumeena mespreza ahal dezakenik.

Zure baithan altxatu den kolera hori fite iragaren da, eta zure arimaren dolorea ene graziak dulzatuko du.

Oraiño bizi naiz dio launak, eta egundaiño baiño gehiago, zure laguntzeko eta konsolatzeko prest naiz, baldiñ zure konfidentzia ene baithan ematen baduzu, eta debozienerekiñ othoisten banauzu.

Harzazu beraz kuraia, da konstanziatz arma zaite, oraino sofritzen duzun baiño gehiago sofritzeko.

Estuzu uste behar gauza guzietan esparantza galduta dela, zeren maiz biolenki aflijitua eta tentatua zaren.

Gizona zare, eta ez lainkoa; haragia zare eta ez ispiritu puru bat aingerua bezala.

Nola bertutearen eta indarraren estatu berean bethi egon ahal zaiteske, fermutasun hori aingeruari zeruan, eta lehenbiziko gizonari parabisu lurrekoan faltatu zaioenez gero?

Nik bere lamgiaduretan suspiretan daudezenak sendatzen eta altxatzen ditut, eta bere flakeziaren beheratasuna ezagutzen dutenak, ene lainkotasunaren partizipazioneraino altxatzen?

ARIMAK

Den sekulan, ene lainkoa! zure hitza benedikatea, zeina ene bihotzari estiaio baitzaio; ezen ez ene ahoari estirik exzelentena.

Horrelako tribulazione handien artean, zer egin ahal dezaket, zure hitz sainduaz borthisten espanauzu?

Zer axola behar dut zer nahi sofritzeaz,
fiñean salbamenduko porturat arribatzen banais.

Indazu launa! fiñ on bat, indazu mundu hun-
tarik zerurat pasaia dohatsu bat.

Nitaz orhoit zaite ene lainkoa, eta zure erre-
sumaren dohatsutasunerat biderik hertsienaz
gida nazazu. Hala bis.

LVIII. GARREN KAPITULUA

**Nola sainduak imitatu behar
diren, eta ez disputatu, ea zein
den hetarik handiena**

IESU KRISTOK

Ene semea edo alaba begirautzu materia gora eta lainkoaren juiamendu estaliez disputa-tzeaz; zergatik bat abandonatzen duen, eta ber-tze bat bere gloriarat altxatzen, zergatik bat afli-jitua den, eta bertzea ohorez eta glorian berre-giñdua.

Gauza hauk gizonen argiak iragaren dituste, eta haukien penetratzeko egiñ ahala egiñ arren, sekulan ene jujamenduan beheratasuna bere arrazoiñez estute fundatuko.

Etsaiak beraz suiet hunen gaiñean tentatzen baitzaitu, edo esperen zenbait kuriosek zurega-nik jakin nain badute, ihardets diozozute Profeta-ren hitz hura; justua zare, launa! eta zure juja-menduak zuzenak dire, eta bertze hitz hau hala-ber, launaren jujamenduak egian fundatuak dire, eta berenez justifikatuak.

Ezen gizonei dagote ene jujamenduez beldur izatea, ez hek examinatzea, zeren gizonaren ispirituak eziñ konprendi baitetzake.

Etzaitezela halaber penetan eman nezesario estiren kestione eta disputez, sainduen merezimenduen gaiñean, ea bata sainduago den bertzea baiño, eta zeñ den handiena zeruko erresuman.

Gauza horiok maiz kontestatzen direnean, progotxu gabeko gauzak kausatzen dituste, eta superbiasuna banagloriarekiñ entretenitzen dute; zeñetarik gero jelosiak sortzen baitire; batak superbiasunekin sustengatzen duela saindu bat, bertzeak bertze bat.

Halako gauzak bilhatzea edo jakin nahi izatea, estute frukturik ekhartzen, baiñan ene Sainduei hagitz desplazer egiten zaiote.

Ezen ez naiz diferentziasko lainkoa; baiñan bai bakeskoa, eta bake hau estago nork bere burua goratzean, baiñan bai humilitate egiaskoan.

Batzuek Saindu batzuen aldetat zelo edo afekzione gehiago dute, ezen ez bertze batzuen-

ganat, baiñan afekzione hura hobeki da gikoneskoa ezen ez lainkoskoa.

Nik kreatu ditut Saindu guziak, nik hei eman diotet grazia, nik errekonpensatu ditut gloriáz.

Hekien bakhotxaren mereziak nik ezagutu ditut, eta ene zeruko estitasunaren benedikzio-neaz aitziña joan natzaiote.

Nik mende guzien aitziñetik ene maiteak ezagutu ditut, eta mundutik hautatu, eta ez hek ni.

Nik ene graziaz hautatu, ene miseriakordiaz thiratu, eta haunitz tentazioneen artean asken fiñeraiño gidatu ditut.

Nik hekien bihotzetarat konsolazione sainduak isuri izan ditut.

Nik perseberanzia hei eman ondoan, gaitz guzietan hekien pazientzia khoroatu izan dut.

Nik hek guziak lehenbizikotik askenekoraiño ezagutzen eta amudio eziñ explika deiteken batez, maitatzen ditut.

Nik merezi dut ene Saindu guzietan laudatua, eta gauza guzien gaiñetik benedikatu eta ohortua hetarik bakhotxean izatea, gloria handirat predestinatu eta altxatu ondoan, hekien merezimendu aitziñeko propiorik gabe.

Nork ere beraz ene saindutarik mendreena mesprezatzen badu, estu handiena ohoratzen.

Eta nork ere ene Saindutarik bati ere induria egiten baitio, niri eta zeruan diren guziei egiten dio.

Ezen guziak amudioaren gatheaz bat dire, sentimendu eta borondate bat dute; eta guziak haiñaren bakhartasunean, zeïña guzia guzietan baita, elkhar maite dute.

Baiñan oraiño guziak (baiño estimatzekoago dena) bere buruak eta merezimenduak baiño, gehiago maite naute.

Ezen bere buruaz eta amudio propioaz gorago rabituak direla osoki ene amudioan barna sartzen dire zeïnaz gozatzen baitire, eta zeïñetan bere dohatsurasun eta errepausu guzia kausitzen baitute.

Goratasun huntarik eziñ behiñere jauts deiteke, ezen egia eternalaz betheak direla, sekulan hilen esten amudioren khar batez erretzen hari dire.

Beudez beraz ixillik haragizko eta animalias-ko gizonak, espezate arrazoiña sainduen esta-

tuaz, bere abantail eta satisfakzioe propioa bai-
zen maite estutenaz geroz.

Ene egia eternalaren erregelaren arabera
eskituste kontsideratzen; baiñan bere inklinazio-
ne eta fantasiaren arabera, altxatzen eta behei-
titzen dituste.

Haiñitzetan ignorantzia da, eta partikularki
guti argituetan, zeñak espaitire kapable amudio
perfekt, eta ispiritual batez nihoren maitatzeko.

Inklinazione natural eta afekzioe osoki
humano batez Saindu bat, bertzea baiño maitea-
go dute, eta nola ere baitire lurreko gauzetan,
zerukoetan ere orobat dire.

Baiñan bada diferentzia bat hurren fiñ gabe-
koa perfekt estirenen pensamenduen, eta gizon
argituek Iesus Kritoren rebelazionetik errezibi-
tzen duten ezagutzaren artean.

Emozu beraz ene semea edo alaba, goardia
zeure buruari, eta etzazula kurioski trata zure
jakintasuna ixitzen duten gauzez: baiñan den
zure artha guzia nondik zeruko erresuman izaren
dutzen lekhu, askenekoa izaren bada ere.

Eta norbaitek baliaki ere nor den zeruko erre-
suman sailduen eta handiena, zertako luke eza-

gutza hura, baldiñ handik bere buruaren gehiago ene begien aitziañean humiliatzeko eta su handia-goarekien glorifikatzeko, suiet bat hartzen espadu?

Hagitzez maiteago dut bere bekhatuen handitasuna, eta bere bertutearen flakotasuna, eta zenbat ene saindutan distiatu duen perfekzione hartarik urrundua den konsideratzen duena, ezen ez hekien handitasunaz, edo xumetasunaz disputan hari dena.

Hagitzez hobeago da orazionez eta nigarrez sainduen ohoratzea, eta hekien bitartekotasunaren laguntza puxanta, bihotz humil eta behera batekien galdegitea, ezen ez hekien sekretuak glorian banoki bilhatzea.

Sainduak zutaz perfeki kontent izaren dire, baldiñ zeure buruaren kontentatzen, eta zure solasen bridatzen badakizu.

Estire bere mezimendu propioez glorifikatzen, zeren bere baithan duten ontasunik batere espaitote bere buruari atribuatzen, baiñan guziak niri egiten doroskidate; zeren nik hei, ene kharitate fiñ gabekoaz guziak eman baitiotzatet.

Haiñ betheak ene lainkotasunaren amudioaz, eta plazeraren gaindiduraz badire, non nahiz hekien gloriari, nahiz hekien dohatsutasun suberanoari espaita posible deusik saltatzea.

Zenbatenaz sainduak gorago baitire zeruko glorian, hanbatenaz bere baithan humillago dire, hanbatenaz eneganat hurbilago, eta ene amudioaren suaz penetratuago dire.

Hargatik da eskritura sainduan errana, bere khor oak lainkoaren tronuaren aitziñean etxatzen ditustela, eta bildotsaren aitziñean bere bisaietar erortzen direla, eta eternitate guzian bizidena adoratzten dutela.

Haiñitzek bilhatzen dute, ea nor den lainkoaren erresuman saindurik handiena, zein ek biskitartean espaitakite hetarik mendreenaren artean lekhurik batere izaren dutela.

Zeruan xumeena izatea handi izatea da, zeren han guziak handi, eta lainkoaren seme deithuak, eta egiaskoak izaren baitire.

Xumeak millen artean altxatuak izaren dire, eta bekhatoreak bizitze luze baten ondoan, sekulan fiñatuko esten heriotze batez hillen dire.

Hargatik ene diszipuluek egun batez galdegiten zarotatela, ea zein zen handiena zeruetako erresuman, ihardetsi izan nioten, baldin konbertitzen eta haur xumetxoak bezala egiten espazarete, etzarete zeruko erresuman sartuko.

Nor ere beras haur hau bezala humiliatuko baita, hura izaren da zeruko erresuman handiena.

Diren dohakabe xumeekien borondateski beheititu nahi estutenak, zeren zeruko athea xumea baitha, eta handik eziñ iraganen baitire.

Beha gaitz dagitela aberatsek mundu huntan bere konsolazioneak ditustenek, zeren pobreak lainkoaren erresuman sartzen direla, hek oihus eta suspiretan kanpoan egoten baitire.

Humilak allegera zaiteste, pobreak boskario; gaindi egizue, zeren zeruko erresuma zubena baita, gustiarekin egian ibiltzen bazarete.

LIX. GARREN KAPITULUA

**Nola lainkoak gure ontasunetan
frogatzen gaituen, eta nola
haren baithan xoilki esparantza
behar dugun**

ARIMAK

Zer da Jauna, mundu huntan ene sustengua?

Zeiñ da, zeruaren aspian ageri diren gauza guzietan ene konsolazionea, zu baizen, o ene lainkoa, zeinaren miserikordiak espaitu eremu-rik.

Non izan da ungi eta bere gogara zu gabe; eta nois gaski izan da zure presenzian?

Nahiago dut zure amoreagatik pobre izan, ezen ez zu gabe aberats.

Nahiago dut pelegriñ izan lurrean zurekien, ezen ez zu gabe zerua poseditu. Zu non, zerua han da, eta ifernua herioarekien gu etzaren lek-huan da.

Zu zare ene nahi guzien fiña. Hargatik eziñ deusere bertzerik egiñ dezaket, zu othoistea,

zuri oihu egitea, eta zure ondotik suspiretan ego-
tea baizen.

Fiñean eziñ nihoren baithan osoki fida naite-
ke, eta estut nihor kausitzen, gu baizen, o ene
lainkoa, ene behar guzietan ene sokorritzerat
prestago dagoenik.

Zu xoilki zare, ene esparantza, zu zare ene
konfidentzia osoa, zu zare ene arimaren konsola-
tzaillea, eta adiskiderik fidelena.

Bertze guziek bere satisfakzione eta intresa
dute bilhatzen, baiñan zuk ene lainkoa, ene sal-
bamendu eta abanzamendua egiten duzu, eta
gauza guziak onerat konbertitzen ditutzu.

Zuk ni tentazione eta aflikzione diferenteta-
rat mais eman arren; guziarekiñ ene progotxuko
hek guziak ordenatzen ditutzu, kostumatu duzun
bezala milla fazoiñ eta maneras zure maitatuen
frogatzerat.

Froga hetan etzaitut gutiago maitatu eta lan-
datu behar, ene arima zure zeruko konsolazio-
nees bethetzen bazindu baiño.

Hargatik, ene laun, eta ene lainkoa, zure bait-
han ene esparantza eta ihes lekhua ematen dut,
eta ene aflikzione eta pena guziak, zure galtza-

rrerat egortzen ditut, zeren zutas kanpoan espai-
tut deusik kausitzen, non esten flako eta inkons-
tant.

Ezen estut kausituko, ene lainkoa, adiskide
zerbitza ahal nazakenik, puxantza sustenga ahal
nazakenik, zuhur konseilla eta gida ahal nazake-
nik, ez eta ere libururik konsola nazakenik, ez
eta ere halaber thresorik goarda nazakenik, ez
eta fiñean lekhu sekretuskorik segura ahal naza-
kenik; zuk zerorek, o ene lainkoa, laguntzen,
sustengatzen, borthisten, argitzen eta goarda-
tzen espainauzu.

Ezen bake eta dohatsutasunaren izateko
diruriten gauzak, zu gabe deusik estire, eta
dohatsu ezin, egiaski errenda gaitzakete.

Zu zare beras ene lainkoa, ontasun guzien
fiña, bizitzearen zentroa, zuhurtziaren thulunbio
behera, eta zure zerbitzarien konsolazionerik
borthitzena, zure baithan bere konsolazionea
ematea da.

Zuganat altxatzen ditut ene begiak, ene lain-
koa, zu baithan dut ene esparantza, miserikordia
guzien Aita.

Zuk zeruko benedikzioneas ene arima benedikta eta sanktifikatu zazu, zure egoitza Saindu, eta zure gloria eternalaren tronu egin dadintzat, eta zure tenpluan, zure Majestate lainkoskoaren begiak kolpa ahal dezaken deusere, kausi estiteken bezala.

Zure ontasunaren eta zure miseriakordien handitasunaren arabera begira diezadazu, eta zure zerbitzari pobreen orazionea adizazu, zeina zureganik desterratua herioaren itzalean jarria baitago.

Zure zerbitzariaren arima bizitze korrupitu hantako perikulu guzietara esposatua, goardia eta konserba zazu, eta nazan zure graziak bethi lagun, bakesko biderik, eternitateko argitasunaren herrira, zeina zeruko gloria baita, gida nazantzat. Halabiz.

HIRURGARRIN LIBURUAREN AKHABANTZA

JESU KRISTOREN IMITAZIONEAS
LAUGARREN LIBURUA

ALDAREKO
SAKRAMENDU ADORAGARRIAS

LEHEN KAPITULUA

lesusek erakuisten darokun askeneko amudioas, bere gorphutz Saindua ematen darokula

JESU KRISTOK

Zatoste enegangat travaillatuak, eta kargatuak zaretenak, nik solejituko eta arinduko zaitustet.

Nik emaren darotzuedan ogia ene haragia da, zeïña munduaren biziarentzat eman behar baitut.

Har ezazue eta ian; hau da ene gorphutza, zuentzat libratua izaren dena, egizue hori ene orhoitzapenetan.

Ene haragia jaten duena, eta ene odola edaten, ene baithan dago, eta ni haren baithan.

Nik erran daroskitzuedan hitzak ispiritu eta bizia dire.

Horiok zure hitzak dire, o Iesus egia eternala, denbora eta lekhu berean erranak, eta eskribatuak ez izan arren.

Zureak beraz direnaz geroz eta egiaskoak; fedearakiñ eta graziasko akzioneerien hez guziak errezibitu behar ditut.

Zureak dire, eta zuk erran ditzuzu; baiñan halaber eneak dire, ene salbamenduarentzat pronontzatu ditzunaz gerostik.

Boskariorekiñ zure ahotik errezibitzen ditut; ene bihotzean barnago inprimatuak direntzat.

Borthiski ontasunez, samurtasunez, eta kharitatez betherikako hitzez, neure burua kausitzen dut ukitua; baiñan neure hobenek ikharatzen naute, eta ene konszientziaren lizuntasunak debekatzen nau, horlako misterio handiarenganat hurbiltzetik.

Zure hitzen dulzetasunak thirutzen nau, baiñan ene bekhatuen pisuak eta nonbre handiak gibelatzen naute.

Konfidentziarekiñ zureganat hurbil nadilala, baldiñ zurekiñ parte nahi badut; eta inmortalitatearen neurrimendua, errezibitzerat bizitze eta

gloria eternala ardietsi nahi badut, manatzen darotazu.

Zatoste diogu, travaillatuak eta kargatuak zaretenak, eta nik solejituko zaitustet.

O hitz dulce eta maitagarriak bekhatorearen beharrian, zeñes, zuk ene laun, eta ene lainkoa gonbidatzen baituzu hobenduri pobrea, zure gorphutz Sainduaren komunionerat.

Baiñan nor naiz, o launa, zureganat hurbiltzera ausartatzeko?

Zeruko hedadura guziak ezin konprendi zaitzake, eta diozu: zatoste guziak eneganat.

Nork zure ontasuna konzebi dezake, zeñetarat haren bertze amudiorekiñ deitzen bainauzu?

Nola zureganat hurbiltzera ausartatuko naiz, ontasunik batere neure baithan, aski konfidentzia eman ahal dezakenik zureganat joateko sentitzen ez dudanas geroz?

Nola ene arimaren etxean sarraraziko zaitut, zure aitziñean haiñbertze bekhatu egiñ, eta haiñbertzetan zure ontasuma ofensatu dudana geroz?

Aingeruek eta Arkanjeluek ohoratzen zaituste; Sainduak, eta justuak zure aitzinean ikharan daude, eta erraten darokuzu, zatoste enegana.

Nork hau sinhets ahal dezake, ene launa, zeronek seguratzeko espagintutzu: eta nor ausarta ahal leteke zureganat hurbiltzerat, zeronek manatzeko espagintutzu.

Noe justua ehun urtez traballatu zen erre-konziliazionearen arka egiten, hartan barna zenbait jenderekin bere burua salbatzeagatik?

Nola beraz oren batez ni prepara ahal naiteke, ene ariman zor zaion reberentziarekin, munduko kreatzaillea, errezibitzeko?

Moise zure zerbitzari handi eta zure adiskide haien partikularrak, eziñ korrunpi zeiteken zurez Arka bat egiten, eta urte hagitik garbier guzia estaltzen du, han legeko thaulak emateko; eta ni, korruptioa eta usain gaistoa bera, nola lege egilea eta bizitzearen authora neure ariman errezibitzerat, ausartatuko nais?

Salomon Israeleko errege guzietarik zuhurrenak, zaspia urte enplegatzen ditu zure izenaren ohoretan Tenplu magnifiko bat egiteko, zortzi egunez haren dedikazioa zelebratzen du, milla

bakesko hostia sakrifikatzon ditu, eta badoa solemnitate handirekiñ akhordamenduaren Arka ematera, hari preparatu zitzaion lekhuari tronpetak soñus, eta bere poblu guziaren alegrantziasko oihuben artean.

Eta ni dohakabea eta gizonetan den pobreena, nola zure errezibitzaileak ene baitan ausartutako nais, oron erdi bates eziñ pena handirekiñ baizen debozitionean nagokenas geros? eta oxala denbora hura ere behiñ bederen sailduki enplegatu banu?

O ene lainkoa; zenbat gauza Sailduak zuri plazer egiteagatik egiñ izan dute.

Eta nik, helas! ala guti egiten, eta neure burua komunioerak prestatzeko denbora laburra enplegatzon baitut, raro da osoki neure baitan nadiñ bildua, eta oraiño raroago da ene ispiritutik distrakzio guziak kasa detzadan.

Egiaski justu eta arrazoiñ liteke, ene arima zure majestate Sailduaren aitziñean behar esten pensamendues esliteken trublaturak, ez eta ere kreatura batez okhupaturak, estudinas geros aingeru bat bihotzean, baiñan bai aingeruen lainkoa errezibitu behar.

Gustiarekiñ bada diferentzia handia Noeren arkaren bere baithan zituenekien batean, eta zure gorphutz garbiaren artean, zeña grazia baita eta donu eziñ erran deitekenas bethea.

Legeko sakrifizio egiñ behar zintuen mirakui-luen figura hekien artean, eta zure gorphutz sakratu hostia egiaskoren artean.

Zergatik beras zure presenza adoragarriaren aitzinean ez nais beroago? Zergatik ez nais artha gehiagorekien preparatzen zure misterio Sainduen errezibitzerat, lehenagoko Patriarkek eta Profeta Sainduek; errege eta prinzeek harenbertze pasione bere pobluekiñ batean erakutsi dutenas geros, zor zaiskitzun lainkosko ohoreak zuri errendatzeko.

Errege Dabid debota bere indar guzies arka-ren aitzinean dantzatu izan da, eskritura sainduak dioen bezala; bere memorioan haren Aitei lehenago lainkoak egiñ ziotzaten ontasun seinataluak errepasatzen zituela.

Musikako hainitz instrument eragiñarazi ditu, halaber Psalmuak konposatu, eta boskariorekiñ kantatuko ditustela ordenatu ditu, eta berak Ispi-

ritu Sainduas bethea dela bere harparku gaiñean haiuitz aldiz hek kantam ditu.

Istakleko umezi bere bihotzes lainkoaren laudatzen, eta egun guzies bere muGka ederrez haren benedikatzen, eta predikatzen irakatsi diote.

Baldiñ testamenteko arka haiñ bertze debozionerekiñ ohoratua izan bada, eta laudoriosko kantes haren aitzinean lainkoa ohoratua; zer errespetu eta debozionerekiñ hurbildu behar dut, Iesusen gorphutz adoragarriaren errezibitzerat? hanitz kurri dabilta hanitz lekhutarat, Sainduen erlekien ohoratzerat.

Hekien biziaren akzioneak admiratzen dituste, hekien ohoretan dizen elizen handitasuna eta magnifizentzia admiratzen dute, eta urrean eta sedan diren hekien hezur sakratuei musu ematen diote.

Eta nik ikhusten zaitut present hemen Aldarearen gaiñean zu ene lainkoa, Sainduen Saindua, gizonen kreatzaillea eta aingeruen launa.

Maiz gizonak badoas elizetarat kuriositates, eta oraiño ikhusi estuten gauzen berritasuna dela kausa, eta hala bere konbersionearentzat

fruktu guti handik eramaten dute, prinzipalki haiñ arinki hetarat doazenean; kontrizioe egias-ko batez ukituak estirela.

Baiñan aldareko Sakramenduan, o Iesus, osoki present zare, lainko eta gizon bezala han zare, eta debozione bero batekien errezibitzen zaitugun aldi guzies, grazia eternitate guzian dohatsu errendatu behar gaitustenes bethetzen gaitutzu.

Etzaitu arintasunesko, kuriositatesko edo sensualitatesko mobimendu batek gureganat thirutzen, baiñan bai fede fermu, esparanza bizi, eta kharitate egiasko batek.

O munduko kreatzaille ageri etzarena, nork estu gure alderat dadukagun gida ederra, admiratuko?

Nork aski altxa eta konsidera ahal dezake, zure hautatuei erakuisten diozuten dulzetasun eta ontasuna, zeinei janharitzat, Sakramendu adoratzeko huntan ematen baitzaiskote?

Horrek gure pensamendu guziak ixitzen ditu, horrek lainkotiarren bihotzak thirutzen eta susta-tzen ditu.

Sakramendu miragarri huntan zure zerbitzari fidelek, zeñak bethiere ditusten inperfekzionetarik garbitzen hari baitire, debozionearen, amudioaren eta bertutearen handitasuna errezibitzen dute.

O Sakramenduaren grazia miragarri, eta estalia, xoilki Iesusen ume fidelez ezagutua! Ezen federik estutenek, eta bekhatuaren esklabo direnek, estute hura sekulan frogatzen.

Misterio hunek Ispiritu sainduaren grazia isurtzen du ene arimarat, galdu zituen indarrak errepararasten diotza, eta hobenaren itsusitasunak eraman zioen edertasuna, hari errendatzen dio.

Batzuetan hain abundanta bada grazia hau, eta hain debozionearen su eta khar handia gizonari ematen dio, non ez solament haren arima, baiñan haren gorphutza bera ere bere flakotasunean, borthistua gelditzen baita.

Geure buruas beras pleintatu, eta gure alferkerias eta epheltasunas nigar egiñ behar ginduke, konsideratzen dugula hain afekzione gutirekiñ goazela Iesu Kristoren errezibitzera, zeña gure esparantza baita, eta bere hautatu guzien merezimendua egiten duena.

Ezen hura da gure santifikatzaille eta erreskatatzaillea.

Hura da bizitze huntako miserian gure konso-latzailea, hala nola zeruan baita bere sainduen dohatsutasun eternala.

Damu handia behar dugu izan, ikhustear hainbertze presuna haiñ guti misterio saindu huntas ukituak, zeña zeruko boskario, eta mundu guziko salbamendua baita.

O bihotz humanoaren itsutasun eta gogortasun harrigarria, haiñ reflexione guti horlako present eziñ explika deitekenas egitea, eta egun guziko usantza bates halako maneras han kostumatzea, non segidan indiferentzia batetarat nior erortzen baita.

Ezen sakramendu saindu hau lekhu batean baizen zelebratzen espalis, eta mundu guzian Aphes bates baizen konsekratua espalis.

Zer errespetu eslukete Gizonek, Aphes xoil harentzat, eta nolako khar eta desira handirekiñ eslioaske lekhu hartarat, lainkosko misterioen zelebratzen ikhusterat?

Eta biskitartean hortan berean lainkoak, Gizonei ekhartzen dioten amudioa eta egiten

dioten grazia, distiarasten du, nahi izan duenas geros, haiñitz Aphes diren, eta haiñitz lekhutan Iesu Kristo ofrendatua den, manera huntan munduko parte guzietarat, bere gorphutz Sainduaren komunionea hedatzekotzat.

Graziak errendatzen diotzat zure ontasunari; o Iesus Arzain eternala, zereb gu pobreak eta desterratuak, zure gorphutz eta odol preziatuas fasiatu baikaitutzu, eta zure aho propioko hitzes misterio haukien errezibitzerat gonbidatu, erraten darokuzula.

Zatoste eneganat travaillatuak eta kargatuak zaretenak, eta nik solejituko eta arinduko zaitustet.

II. GARREN KAPITULUA

**Nola humilitate, ezagutza eta
halaber boskario handirekien
hurbildu behar den komunione
saindurat**

ARIMAK

Zure ontasunean eta miserikordia infinituan sustengatzen naizela, launa heldu nais zureganat, eri naizen bezala ene miriku eta salbatzailleaganat; gose eta egarsu dudan bezala, bizi-tzearen ithurrirat; pobre bezala, zeruko erregeaganat; esklabo bezala, laun suberanoaganat; kreatura bezala, ene kreatzailleaganat; aflijitu eta abandonatua bezala, ene penetan konsolatzzen nabenganat.

Baiñan, ene lainkoa, nondik heldu zait grazia hori, zu eneganat hurbil zaitezela; eta ni nor nais, zuk niri zeure burua emateko?

Nola ausarta ahal deiteke bekhatorea zure aitzinean agertzerat; eta nola nahi duzu, ene lainkoa, bekhatoreaganat hurbildu?

Ezagutzen nauzu nor naizen, eta badakizu estela ene baithan ontasunik batere, zuk niri grazia hori egiteko.

Aithortzen dut beras, ene lainkoa, zure aitzinean ene beheratasuna; ezagutzen dut zure ontasuna, laudatzen dut zure miserikordia, eta zure kharitate infinituari graziak diotzat errendatzen.

Ezen zeuregatik horla hari zare ene lainkoa, ez ene mereziak gatik, niri klarkiago misterio handi huntan zure ontasunaren handitasuna, zure amudioaren hedadura, eta zure lainkosko beheratasunaren gaindidura konprendiarasteko.

Manera hori plazer zaitzunas geros, eta hori horla egiñ dadintzat manatu duzunas geros; boskariorekiñ errezibitzen dut fagore hori, zeñtas ohoratzen bainauzu, eta lainkoari nahi estakiola neure hobenek inkapable errenda nazaten.

O Iesus dulzea, zer errespetu, zer laudorio etzaitzu zor, zure gorphutz sailduaren partizipazionearentzat, estenas gerostik munduan gizonek Sakramendu saildu hunen excellenzia aski explika ahal dezakenik.

Baiñan komunione saindu huntan, ene Jaunaganat hurbilduko naizenean, eziñ baduket behar den bezanbat errespetu, eta zeïña debotki erre-zibitzerat desiratzen baitut, nolakoak izaren dire ene pensamenduak?

Zer hobeagorik ene salbamenduarentzat pensa ahal dezaket, zure aitziñean neure burua osoki humiliatzea, eta zure ontasun nitas gora-gokoa, adoratzea baiño?

Laudatzen zaitut ene Jainkoa, eta eternitate guzian benedikatua zaren desiratzen dut.

Neure burua mesprezatzen dut, eta ene beheratasunaren thulunbioan zure aitziñean abaxatzen naiz.

Zu zare sainduen saindua, eta ni nais lizuntasun eta bekhatua bera.

Eneganat behehitzen zare, kapable esnaizelarik zuri begiratzeko.

Heldu zare eneganat, enekiñ nahi duzu, zure banketerat gonbidatzen nauzu, zeruko ogia jaterat eman nahi darotazu, aingeruen ogia, ez bertzerik zu zerori baizen, diot zu zerori, zeïña baitzare ogi bizia zerutik jautsia, eta munduari bizia ematen diozuna.

Horra zure amudio, horra zure beheratasun, eta ontasunaren gaingidura non den, eta nork horiontzat, graziak eta laudorioak zor zaizkitzun bezala errenda ahal dietzatzuke?

O konseillu progotxusko eta salbamenduskoa; zeñas Sakramendu hau ordenatu baituzu!

O banket dultzea, zeñetan zerori janharitzat ematen baitzare.

Ala zure obrak miragarri Jauna, eta zure esku eta zure egia eziñ explika deitekena puxant baitire.

Mintzatu zare, eta gauza guziak egiñ izan dire, eta zuk manatu duzuna egiñ izatu da.

Mirakuillu bat da gizonaren argi guziak ixitzen dituen, fedear xoilki konzebitua, zu ene Jainkoa, gizona eta Jainkoa, zaren osoki ogiaren eta arnoaren iduriaren aspiaren zarratua, eta errebitzen zaitustenas kunsumitu gabe, jana.

O gauza guzien Jauna, deusen beharrik estuzuna Sakramendu saindu hunen medios gure baithan egon nahi izan duzu.

Konserba zatzu beraz tatxarrik gabe ene bihotz eta gorphutza, maizago konszientzia garbi eta boskarios betherikako bates zure misterioak

zelebra detzadan, eta ene arimaren salbamen-
dutan errezibi, hala nola zure gloriarentzat, eta
zure ontasunen orhoitzapena egiteko prinsipalki
ordenatu baituzu.

O ene arima alegera zaite, eta lainkoari hor-
lako present handiarentzat, eta zure konsolazio-
ne bakharrarentzat, zeñak zure salbatzailleak
nigarresko lekhu huntan utzi baitarotzu, graziak
errenda diotzotzu.

Ezen misterto hau zelebratzen eta Iesusen
gorphutza errezibitzen duzun guzian, zure
redenzionearen obra erreberritzen duzu, eta
Iesu Kristoren merezi guzien partizipant egiten
zare.

Iesu Kristoren kharitatea esta behiñere men-
dratzen, eta erreskatatzearen aberatstasunak,
zeñak izanarazi baitaroskigu, estire behiñere
husten.

Hori dela kausa bethiere zeure burua ispiritu-
ko, eta bihotzeko berritasun batez grazia harta-
ra disposatu behar duzu, eta geure salbamendu-
ko misterio handi hau, atenzione bethi berri
batekiñ konsideratu.

Mezako Sakrifizio Saindua ofrendatzen edo aditzen duzunean, haiñ handi, haiñ maitagarri, eta haiñ berri agertu behar zaitzu, nola Iesu Kristo bera egun hartan jausten balitz bezala, zerutik birjinaren galtzarrera gizon egitera, edo gizon guzien salbamenduarentzat gurutzean gurutzefikaturik sofritzen balu edo hiltzen.

III. GARREN KAPITULUA

**Nola arima debotak bere indar
eta boskariora Komunione
Sainduan kausitu behar duen**

ARIMAK

Huna non launa heldu naizen zureganat, zure grazia eta benedizionetan parte izatera, eta zure banket sakratuan boskarios gaindi egitera, zein boskario: zure pobrearentzat preparatu baituzu, o miseriardiaren lainkoa zure dulzetasunaren abundanzian.

Desira ahal dezakedan, eta desiratu behar dudan guzia zure baithan kausitzen da.

Zu zare ene salbamendu eta redenzioea; esparantza eta indarra, zu zare ene ohore eta gloria.

Beras zure zerbitzariaren arima gaur alegera zazu, zeren o Iesus ene salbatzaille eta ene lainkoa zureganat ene arima altxatu baitut.

Orai errespetu eta zor zaitzun debozionearekin desiratzen dut zure errezibitzera, ene etxean sar zaiten, da ene nahia, Zakeerekin benedikat-

tua izateko dezadan merezi, eta Abrahamen umeen balsam emana, kausi nadiñ.

Ene arima zure gorphutz Sainduaren errezibitzeko, eta ene bihotza zurekiñ juntatua izateko desiras, erretzen hari dire.

Eman zakiskit eta aski zait: ezen zure baitharik kanpoan konsolazione fuerte guziak falsoak dire.

Eziñ naiteke zu gabe, eta zure bisita gabe eziñ halaber bizi naite.

Hargatik mais zureganat hurbildu behar dut; eta errezibitu behar zaitut, sendatu behar naben erremedioa bezala, bidean flaka eznadintzat zeruko janharias gabetua banas.

Hori bera irakatsi darokuzu, o Iesus miseri-kordiaren Jainkoa! noiz eta ordus pobluei predikatzen baitziñoten, eta hañitz eritasun diferente-tarik sendatzen zintuela, erraten diozute zure diszipuluei.

Eskitut hek bere etxetarat egorri nahi barurik, bidean flaka esteitezentzat.

Egidazu beras zure ontasunetik parte, ene salbatzaillea zeure Sakramenduan zure gorphutza utzi duzuna zure fidelen konsolazionearen-

tzat, ezen zu zare arimaren neurrimendu plazerreskoa, eta zu digneki jaren zaituena zure gloria eternalaren partizipant eta primu izaren da.

Nola maiz bekhatu egiten baitut, eta gauza guti aski faltatzeko, nezesario da, bethiereko orazioneez, konfesioneez, eta komunionez, erreberri, susta, eta garbi nadiñ, beldurrez zure gotphutz sakratuaren denbora handis ez errezi-bitzeas, neure desira sainduz baratxe baratxe hots nadiñ.

Ezen gizonaren inklinazioneak, eskritura sainduak dioen bezala, gastetasunetik gaitzerat ekharriak dire; eta zure laguntza sainduak sendatzen espadu, gerotik gerora korrupituko da.

Beras komunione sainduak gaitzetik erretiratzten gaitu, eta onean borthisten.

Ezen orai komuniatzen, edo misterio sainduak ofrendatzen ditudan berean, haiñ neglijent eta ephel baldiñ bainas, zer egiñ neiteke halako erremedioa hartzen, eta halako laguntza handia bilhatzen espanu?

Eta zelebratzeko estatuan egun guzies kausitzten espanas disposatua, guziarekiñ egun guzies misterio sainduak denbora suerte batzuetan

errezibitzeko, eta grazia handi hartan partale izateko, artha izaren dut.

Ezen hau da arima fidelaren konsolazione prinzipala eta kasik bakharra, bere gorphutz mortalean behere huntan estranjer deiño bere lainkoaz maiz orhoitzea, eta bere bihotzeko debozione osoas bere maitea errezibitzea.

O ontasun miragarria! o humilitate eziñ konprendi deitekena! zu ene kreatzaille, ene laun, eta ene lainkoa, Ispiritu guziei bizitze emaillea, ethor zaitezen arima pobre batetarat, eta zure lainkotasun eta gizontasunaren aberatstasun guziak enplega dezatzun, hura ontasunez bere beharrean betetzeko.

O arima dohatsua! zeñak sainduki eta debo-ki bere laun eta lainkoa errezibitzeko ontasuna baitu, eta hura errezibitzen duena boskario ispiritual batez betetzen baita.

O zeñ laun handia errezibitzen duen! ala hark errezibitzen duen ostalera maitagarri baita! ala konpañia egitera heldu zaiona dultze baita, ala ikhusterat heldu zaion adiskidea fidel baita! ala juntatzen zaion esposa eder, handi eta maitatzea mezezi duena baita, infinituki mundu hun-

tan maita eta desira deiteken guzia, ixitzen duenas geros.

O ene maitea! ene arimaren plazera, zeru eta lurra eman diozuten distiadura guziarekiñ ixil eta estal beites, zeren espaitute deus eder eta miragarririk zuk eman diozutena baizen, eta zeren hekien edertasuna espaita zurearekiñ igoal izaren, zu zeinaren izena eziñ konprende baititeke, eta zeinaren zuhurtzia infinitua baita.

IV. GARREN KAPITULUA

**Arimaren othoitza Iesu Kristori,
arren disposa dezan digneki
Aldareko Sakramendu Saindurat
hurbiltzerat**

ARIMAK

Ene Jaun, eta ene Jainkoa, zure dultzetasunaren benedikzioees zoasko aitzinatz ene arimari, debozione zuretzat digne den batekin, zure Sakramendu handirat hurbil nadin.

Iratzar zazu ene bihotza, eta thira zureganat, eta kausitzen nazen pisutasunetik libra nazazu, zure grazia Saindua ene arimarat isur zazu, ene ispirituan zure dulzetasun zerukoa, zeinaren bethetasuna Sakramendu hunetan bere ithurrian bezala zarratua baitha, gusta dezadan.

Ene begiak argi zatzu, horlako misterio handia kontenpla dezadan, eta haren fermuki sinhesteko, ene fedea borthitz zazu.

Ezen misterio hori, xoilki puxantza lainkosko baten obra bat da, esta gizon baten pensamen-

dua, baiñan bai zure zuhurziarena, zeñak hura ordenatu baitu.

Ezen esta nihor bere izatez munduan haren excellenzia eta handitasuna konprendi ahal deza-kenik, zeren aingeruen argi eta penetrazionea bera ixitzen baitu.

Zer beraz horren sekretu handi eta sakratuaz konzebi ahal dezaket, bekhatore indigne bat, lur edo herrauts guti bat naizenas geros?

Ene bihotzeko sinpletasunean, o ene lainkoa! fede fermu eta egiasko batekiñ, konfidenzia eta errespetu handirekiñ zeren manatzen darotazun, heldu nais zugarat, eta hemen zure Sakramen-du lainkoskoan nahiz lainko bezala, nahiz gizon bezala zarela present egiaski sinhesten dut.

Nahi duzu beraz launa, errezibi zaitzadan, eta amudioaren gatheaz zurekien junta nadiñ.

Othoisten dut beraz zure ontasuna, eta gra-zia partikular bat galdegiten darotzut, arren ene arima bera zerbait ere manieraz urt dadiñ, eta dohatsuki zure amudioan gal, zure baithan xoilki ethorkizunean bere konsolazionea kausi dezan-tzat.

Ezen Sakramendu Saindu hau arimako eta gorphutzeko salbamendua da, eta gaitz ispiritual guzien erremedioa, hunek gure bizio gustiak sendatzen ditu, hunek gure pasione guziak bridatzen ditu, hunek atakatzen gaitusten guziak flakatzen, eta osoki arrastatzen ditut, hunek grazia handiago bat gureganat isurtzen du, hunek sortzen hasten den bertutea handiarasten du, hunek fedea fermu errendatzen du, hunek esparantza bortisten du, eta fiñean, hunek gerotik gerora amudioaren sua hedatzen eta sustatzen du.

Ezen, ene lainkoa! ene arimaren salbatzaillea! gizonaren flakezaren erreparatzaillea! eta barneko konsolazione guzien distribuatzailea; Sakramendu huntan eman izan duzu, eta oraiño bethi ematen ditutzu haiñitz grazia zure maiteei, digneki haren errezibitzerat hurbiltzen direnei.

Sakramendu hunetan zure konsolazione ispiritualak hetarat hedatzen ditutzu, hekien aflikzione diferentak dulzarasteko.

Eta bere mespreziosko beheratasunetik altxatzen ditutzu, zure protekzioneas esparantzatzen ditutzula, eta zure grazia berri bat hetarat

isurtzen duzula, boskarioz eta argiz bethetzen ditutzu.

Hargatik komunione aitziñean inkietatuak eta trublatsuak, afekzionerik eta mobimendurik gabe zirenak, zeruko janhari eta edari hautaz fasia-tuak direnean; bere buruak kolpe batez hobeagoko estaturat xanjatuak kausitzen dire.

Manera hortan zure hautatuak tratatzen ditutzu, o ene lainkoa! zure zuhurtziaren ordena miragarrias, bere esperienzia propioaz egiaski ezagut eta froga dezaten, zenbat flakezia duten bere baitarik, eta zenbat ontasun eta grazia zureganik ahal duketen.

Ezen berenes hotzak, gogorrak, eta debozionerik estutenak dire, baiñan zure partetik beroak, alegerak eta debotak dire.

Eta egiaski nor da zeruko plazeraren ithurrira humilitaterekiñ hurbiltzen dena, bere bihotzean bederen zenbait dulzetasun handik ekhartzen estutenik.

Nor da su handiaren ondoan dagoenik, non handik estuen zenbait berotasun errezibitzen?

Zu zare ene lainkoa, ithurri bethea, eta gain-di egiten duzuna, zu zare su hura, bethi behine-re hil gabe erretzen duzuna.

Baldiñ permis espazait ithurri horren betheta-sunetik fasiatua izan arteraiño, edatea: bederen permeti diezadazu neure ahoa ur lainkosko horren kanalerat hurbil dezadan, handik neure egarsuaren hiltzeko xortaxo bat har dezadan, eta osoki egarsus hil eznadiñ.

Baldiñ ene arima eziñ guzia zeruko izan badi-teke, ez eta ere guzia suz bethea, hala nola Khe-tubiñak eta Serafiñak, gustiarekiñ ensajatuko naiz debozionearen pratikatzera, eta bihotzaren preparatzera, lainkosko su handiaren kharra Sakramendu amudioskoaren errezibitze humillas ardiets dezadan.

Bertze falta zaiskidan gauzentzat, o Iesus ona! ene salbatzaille, eta santifikatzaillea, zure ontasun infinituaz hek bethe zatzu, gizon guziak zeureganat gonbidatu ditutzunak geroz, erraten diozutela: zatoste enegangat traillaatuak eta kargatuak zaretenak, eta solejituko zaitustet.

Nitaz bezanbatean, ene lainkoa! ene bekho-kiko izerdian traillaatzen naiz! ene bihotzeko

tromentatzen nauten penak sentitzen ditut bek-
hatuz kargatua naiz, tentazioneek inkietatu
naute, eta pasione diferentek bere gathetan
amarratua nadukate: esta nihor fagora, libra eta
salba nazakenik zu baizen: o ene salbatzaille!
eta ene lainkoa!

Zuri neure burua ditudan gauza guziekien
erremetitzen darotzur arren guarda, eta bizitze
eternalerat gida nazazun.

Errezibi nazazu, zure izenaren gloriarentzat,
nahi izatu duzun geros preparatu zure gorphu-
tza, ene arimaren janharitzat, eta zure odol pre-
ziatua edaritzat.

Egidazu grazia, ene Jainko Jauna zenbatenas
maizago Sakramendu Saindu huntarat hurbildu-
ko bainais, hanbatenas debozionearen eta pieta-
tearen mobimenduak ene baithan handi deite-
zen.

V. GARREN KAPITULUA

**Aphezen dignitate exzellentas,
eta zenbat hekien biziak garbi
eta exenplu on emaille behar
duen izan**

JESU KRISTOK

Aingeruak bezain garbi eta jondoni launi Baptista bezain Saindu baziñe ere, etzinteske halere kapable Sakramendu Saindu hunen errezibitzeko, ez eta ere ofritzeko.

Ezen gizonaren mereziaz gorago den gauza bat da, Sakramendu hunen konsekratzea, eta bere eskuen artean idukitzea, eta aingeruen ogiaren jatea.

Misterio hau handia da, eta Aphezen dignitateak handia behar du izan, aingeruei akhordatu etzaioten podorea errezibitu dutenaz geros.

Ezen Aphez xoillek elizas lejitimoki ordenatuek misterio hunen zelebrazteko, eta ene gorp-hutz sakratuaren konsekratzeko podorea dute.

Apheza lainkoaren zerbitzaria da Sakramendu hunetan, eta lainkoaren ordenantzaren, eta

manuaren arabera, haren hitzas baliatzen da: baiñan lainkoa da haren author prinzipala, hark ageri esten maneran obratzen du, nahi duen guziaren ahala eta podorea duenaz geros, eta manatu duen men menean, bere burua obedia-rasten duela.

Beras Jainko puxantza guzia duenari hobeki sinhetsi behar diozu Sakramendu hunetan, ezen ez zure sensu propioei, edo zenbait seiñale ageri direnei.

Hargatik beldurtasun, edo erreberenzia handirekiñ obra hortarat hurbildu behar duzu.

Guardia beras zeure buruari, eta zer ministerio lphispikuaren eskuez eman izan zaitzun konsidera zazu.

Aphez egiñ, eta misterio hunen zelebratzeko konsekratua izan zare.

Trabaila zaite beras fidelki, eta debotki, behar den denboran fede eta pietate bero batekien hunen ofrendatzerat Jainkoari, zeure burua erreportxurik estukezun bezala errendatzen duzula.

Ordena hau errezibitu duzunean, eskitutzu zeure obligazioneak xumetu, baiñan kontrarat

gauza guzietan erregelatuago izaterat engajatua zare, perfezione eta saindutasun handiago batetarat obligatua zarenas geros.

Aphezak bertute guzies berregindua behar du izan, bere baithan bizitze sainduaren exenplu eta mirailla bertzeei erakuisteko.

Haren biziak estu bertze gizon komunekoen igoal behar izan, baiñan bai zeruetako aingeruenarekien, eta lurlean diren gizonik perfektu direnecien.

Aphezak bestimenda sakratuez bestitua denean, Jesu Kristoren plaza daduka, humilitate behera batekien Jainkoari bere othoitzen ofrendatzeko, nahis bere buruarentzat, nahis bere poblu gustiarentzat.

Bere aitzin gibeletan Iesusen gurutzea dakharkie, haren pasione sainduaren orhoitzapena, bethiere present duentzat.

Ekhartzen du hura bere aitzinean kasolan, Iesusen markak, edo seinaleak artha handirekien konsidera detzan amoreagatik, eta bere bihotz guzias hekien segitzerat entsaia dadintzat.

Ekhartzen du oraiño bere gibelean, gizonak egiñ ahal diotzoketen gaitz guziak pazienziarekien sofritzerat ikhas dezantzat.

Ekhartzen du oraiño bere aitziñean, bere hoben propioes nigar egiñ dezantzat; ekhartzen du gibelean, bertzeenez halaber nigar egiteagatik, hetas duen konpasioniaz; eta iakiñ dezantzat lainkoaren eta gizonen artean bitarteko izateko ordenatua izan dela.

Hargatik lainkoari orazioneak eta sakrifizioak kontinualki ofrendatu behar diotza, hei grazia eta desiratzen dioten miserikordia izan arteraño.

Aphezak zecelebratzen duenean, lainkoa ohoratzen du, aingeruak allegeratzen ditu, Elizari exenplu ona ematen dio, bizizi grazia, eta hillei errepausua emanarasten diote, eta bere arima ontasun fuerte guziez bethetzen du.

VI. GARREN KAPITULUA

**Nola ez komuniatzeas bizitzeari
ihetz egiten zaion, eta indignoki
komuniatzeas hobenduri nihar
egiten den**

ARIMAK

launa zure handitasun eta ene ezdeustasuna
konsideratzen ditudanean, hagitz ikharatzen
naiz eta neure baithan konfunditua naiz.

Ezen zureganat hurbiltzen espanaiz, bizitzeari
ihetz egiten diot, eta indignoki hurbiltzen
banaiz, falta handi bat egiten dut.

O beraz ene lainkoa! ene sustengatzaille! eta
ene beharretan konseillu eta argi ematen darotazuna,
zer egiñen dut.

Zerorek iduki behar dudana bide xuxena irakats
diezadazu, eta zenbeit pratika labur komunion
sainduarentzat, erregelatzen zerbitza
dakidan bat, eman diezadazu.

Ezen abantail hagitz handi bat zait jakitea,
nola neure bihotza preparatu behar dudana
progotxurekien misterio Saindu hori errezibitzeko,

eta sakrifizio handi, eta lainkosko hori zor zaitzun pietate eta erreberenziarekien zuri ofrendatzeko.

VII. GARREN KAPITULUA

**Nola eskas guzien gaiñean
konszienza examinatu behar
den, mahaiñ saindurat hurbildu
baiño lehen**

IESU KRISTOK

Gauza guzien gaiñetik bihotzeko humilitate handirekien, eta errespetu behera batekien, hala nola fede oso batekiñ Sakramendu Saindu hunen zebratzerat, traktatzerat eta errezibitzerat, lainkoaren Aphezak hurbildu behar du.

Artha handirekiñ zure konszienza examina zazu; eta kontrizione egiasko, eta konfesione humil bates garbi zazu hura; halako manieraz bai, non estukezun bezala deusere zure konszientzia hura pisa, eta hari ximikorik eman ahal diozakenik, hala nola ontasun handi hartarat libertaterekiñ hurbiltzetik debeka ahal zaitzakenik.

Duzun jeneralean zure bekhatu guziez dolore handi bat, eta egun guziez egiten ditutzun falta

partikularrez dolore handiagoarekien nigar egizu.

Denborarik aski baduzu, zure bihotzeko sekretuan zure miseriak zeinetan zure pasio-neek, ematen baitzaituste, lainkoari aithor diotzotzu.

Egizu nigar, zeren oraiño haiñ mundano eta haragisko zaren, haiñ guti zure pasionetan mortifikatua, haiñ mobimendu eta nahi erregelatuak estirenez bethea.

Haiñ neglijent zeure sensuen goardan, haiñ maiz imajinazione, eta fantasia banoez enbraztua.

Haiñ pendura handia gauza kanpokoetarat, eta haiñ alfer barnekoetarat.

Haiñ ariñ hirri egiterat, eta haiñ gogor nigarrarentzat.

Haiñ prunt gorphutzaren plazerentzat, eta haiñ luze mortifikazionearentzat, hala nola bertasun ispiritualarentzat.

Haiñ kurios berrien aditzeko, eta gauza ederrren ikhusteko; eta haiñ laxo bihotzez humilen denaren besarkatzeko.

Haiñ bero nahi duzun gauzarentzat, eta haiñ goardatua haren ematekotzat, eta haiñ zarratua haren idukitzekotzat.

Haiñ konsiderazione gutitakoa mintzoan, eta haiñ ixillik eziñ egona? zeure akzionetan haiñ guti erregelatua, eta diskreta.

Haiñ atenzione handitakoa bianden ungi gus-tatzen, eta haiñ gor lainkoaren hitzaren ungi adi-tzen.

Haiñ prunt errepausuarentzat, eta haiñ alfer trabailluarentzat; haiñ iratzarria elheentzat, eta haiñ lotiar beilla sakratuentzat, eta gabeko ofizio sakratuarentzat.

Haiñ inpazient berehala Psalmuen kanta akhabatzeko, eta haiñbertze distrakzione hekien aditzeko.

Haiñ laxo eguneko orazioneen errateko, haiñ ephel sakrifizio sainduaren zelebrazteko; haiñ agor komunione sainduan.

Haiñ mais gauzarik mendreenarentzat disipa-tua, eta haiñ gutitan osoki bildua.

Haiñ fasil koleraz mobitua izateko, eta haiñ erreiz bertzeen kolpatzeko.

Haiñ fite zeure jujamendutan zoazena, eta zure erreportxutan haiñ garratza.

Haiñ allegera prosperitatean, haiñ flako atsekabetan.

Haiñ abundant erresoluzione onen formatzeko, eta haiñ agor hekien efektuen egiteko.

Huts hauk konfesatu, eta bertze haukien iduritakoez nigar egiñ ondoan, dolore bizi eta handi batekien ikhustetas oraiño haiñ flako zarela; egizu zure bizitzearen korrijitzeko erresoluzione fermu bat, eta gerotik gerorat bethiere abantzatzeko.

Ondoan enegangat borondate bethe eta oso batekien zeure burua abandonatzen duzula, zure bihotzaren Aldarean bethiereko biktima bat bezala, ene izenaren glorietan ofrenda zaite, zure Arimako eta gorphutzeko artha guzia fede perfekt batekien, ene eskuetarat erremetitzen duzula; manera huntan digneki lainkoaganat hurbil zaitezentzat, edo hari sakrifizioa ofrendatzeko, edo progotxurekiñ ene gorphutz sakratua errezibitzeko.

Ezen esta ofrendarik Jainkoaren grazia mereziago duenik, ez eta ere satisfakzionerik bekha-

tuen satisfakzionetan handiagorik, nola baita komunione Sainduan intenzione garbi eta perfekt batekiñ, bere burua sakrifizioan edo komunionean Jainkoari ofrendatzea, ene gorphutz eta ene odola sakrifikatuak zaiskonean.

Gizonak bere egiñ ahala orduan egiten badu, eta penitencia egiaskoaz ukitua bada, eneganat grazia, eta miserikordia izateagatik hurbilduko den guzian, juramentu egiten dut, dio launak, nola espaitut nahi bekhatorearen heriotzea, baiñan bai konbersioa edo bizitze ispirituala, esnaizela gehiago haren bekhatues orhoituko, eta hek guziak barkhatuko diotzadala.

VIII. GARREN KAPITULUA

**Nola Iesu kristok osoki bere
burua guretzat eman izan baitu,
manera berean hari gu ere eman
behar gaizkola**

JESU KRISTOK

Nola neure aita lainkoari gurutzeko aldarean, eskuak hedatuak, eta gorphutza bilhusgorria dudala zure bekhatuen barkhamenduarentzat borondateski ofrendatu izan baiñaitzaio, halako maneras bai, non deusik espaitzait gelditu sakrifizio huntan, zeñak lainkoa mundu guziarekien errekonziliatu behar baitzuen, zerbitzatu estenik; manera berean mezako sakrifizioan egun guziez borondateski zeure burua, ofrenda puru eta garbi bat bezala ofrendatu behar duzu, lainkoari zure afekzione, indar, eta bihotzeko hedadura guziez abandonatzen zaizkola, zer gehiago zureganik desiratzen dut, lekhat osoki eman zakiskidan baizen?

Zeure burua gabe ematen darotazun guzia esdeus izaren zait, ezen zu xoilki bilhatzen zaitut, ez zure presentak.

Guziak poseditzen ditutzula egiaski etzinduke deusik, nerori poseditzen espaninduzu; hala zuk eman ahal dietzakedatzuken deusek eziñ plazerik eman diezaket, zu zerori ofrendatzen ezpaizaiskit.

Ofrenda eta osoki eman zakiskit, eta orduan zure ofrenda ederra izaren zait.

Konsidera zazu osoki, ene aita lainkoari zure amoreagatik sakrifikatu natzaiola, eta zure ari-maren bazkatzat ene gorphutz, eta odol guzia eman izan dudala, osoki ni zurekiñ, naizen, eta zu halaber enekien.

Zeure baithan egoten bazare, eta zureganik osoki ahal detzakedan gauzei borondateski abandonatzen ezpazaiskote, zure ofrenda esta osoa eta gure artean izaren den unionea inperfekta izaren da.

Ofrenda horrek beraz, edo ene eskuetarat zeure buruaz egiñen duzun abandonamendu borondateskoak, zure obra guzien aitziñean joan

behar du, baldiñ ene graziaren donua, eta libertate egiaskoa ardietsi nahi baitutzu.

Hargatik gutiak dire bere barnean libro, eta argituak direnak, zeren osoki bere buruari ukho eziñ egiñ baitiozakete.

Ezen bethiere nik pronuntzatu dudan oraklea fermu izaren da, nork ere dituen gauzei ukhazten ezpatriote eziñ daiteke ene diszipulu. Nahi baduzu beraz ene diszipulu izan, zerori ofrenda zakiskit zure afekzione eta desira guziekien.

IX. GARREN KAPITULUA

**Nola Sakrifizio Saindua
ofrendatzean, beretzat eta
bertze guzientzat othoitz egiñ
behar den**

ARIMAK

Jauna! zeruan eta lurrean diren gauza guziak zureak dire.

Borondatesko ofrenda batez zuri neure burua konsekratzerat, eta Zurekiñ eternitatean izate-rat; hagitz desiratzen dut.

Beraz ene lainkoa! ene bihotzeko sinpletasu-nean egun ofrendatzen natzaitzu bethiere zure esklabo izateko, zuri obeditzeko eta laudorisko sakrifizio bat kontinualki zuri ofrendatzeko.

Errezibi nazazu zure gorphutz preziatuaren ofrenda Sainduarekiñ, zeïña egun aingeru alda-rearen aldean ageri estiren maneran, laguntzen hari direnen presenzian ofrendatzen baitarotzut, arren zutas ene salbamendu, eta zure poblu pro-pioarentzat den errezibitua.

Jauna! zure miseriardiaren aldarearen gainean ofrendatzen daroskitzut, zure aitziñean egiñ ditudan bekhatu eta falta guziak, zure ofentsatzeko kapable izatu naizen egunetik oren hundertaraino.

Hek guziak ene Jainkoa! zure Karitatearen suas erre zatzu, eta ene hobenen tatxa guziak urra zatzu, ene konszientzia bekhatu guzietarik garbi diezadazu, eta zure grazia bekhatu egiten hari naizela galdu dudana errenda diezadazu, eta zure ontasun infinituak, ene falta guzien barkhamendu osoa diezadan errenda, bere adiskidetasunean errezibitzen nabela, eta bakearen musua ematen darotala.

Ene bekhatuentzat zer egiñ ahal dezaket hek humilki konfesatzea baizen, miserias nigar egi-tea baizen, eta bethiere arren miseriardia egiñ diezadazun, zu othoistea baizen?

Othoisten zaitut beraz, o ene Jainkoa! zure aitziñean presentatzen naiz, arren adi nazazu.

Ene bekhatu guziez askeneko dolorea dut, geiago ez hetarat erortzerat erresolitzen dut.

Hetaz nigar egiten dut, eta ene bizitze guzian nigar egiñen dut, hetaz penitentzia egitera, eta

hei satisfatzerat ene indarren arabera prest naitzenaz geroz.

Barkha diezadazu ene lainkoa! barkha dieztakidatzu ene hobenak zure izen Sainduaren gloriaren ohoretan.

Ene arima zure odol preziatuaz erosi duzuna salba zazu.

O ene salbatzaillea! zure miserikordiari abandonatzen natzaio, osoki zure eskuetarat erremetitzen naiz, zure ontasunaren araberat trata nazazu, ez ene gaistakeriek merezi duten bezala.

Halaber ene on guziak imperfektak izan arren, ofrendatzen daroskizut; o ene launa! zuk hek korriji ata sanktifica detzazuntzat, agradagarri ditutzun amoreagatik, eta ungitik hobeagorat thira detzatzuntzat; zure graziak, alfer eta negligent izan arren sustengatzen nabela, fiñ saiñdu eta dohatsu bathetarat gida nazantzat.

Halaber ofrendatzen daroskitzut, ene lainkoa! arima lainkotiarren desira Sainduak, ene ahaideen, ene adiskideen, ene anaien, ene arreben, maite ditudanen, zenbeit ontasun niri edo

zure zerbitzariei, zure amoreagatik egiñ darokutenen nezesitateak.

Halaber haiñen beharrak ofrendatzen daroskitzut, zeñnek desiratu, edo galdegiñ izan baitute ofrenda dietzadatzudan, hekientzat, edo hekientzat ene othoitzak, eta Sakrifizio Saindu hau, nahiz biziak, nahiz hillak direla.

Galdegiten darotzut launa! presuna hek zure graziaren benedikzioea errezibi dezaten, ofrenda saindu huntaz dezaten frogaz, zure laguntzaz konsolatzen, perilletan goardatzen, eta aflikzio-ne eta penetarik libratzen ditutzula; bere gaitz fuerte guzietarik libratuak direla, bere bihotzeko boskario, eta hedadura handirekiñ, grazien akzioeak errenda dietzazutentzat.

Halaber launa! ene othoitzak, eta errekonziliacionearen Hostia Saindu hau, zenbeit gauzetan ofensatu, aflijitu eta blamatu nautenentzat ofrendatzen daroskitzut, hala nola zenbait industria, edo pena egiñ darotatenentzat.

Oraiño errezibi zazu Hostia Saindu hura, hitzez, obraz, jakinez, edo iñorantziaz, tristatu, trublatsu, eta eskandalizatu ditudan guzientzat;

zure edo batak bertzearen kontra egiñ ditugun bekhatu guziak barkha dietzakigutzuntzat.

Gure bihotzetarik xuspitza, kolera, eta disputa guziak khien zatzu launa! hala nola kharitatea kolpa, eta gure anaien amudioa flaka ahal deza-keten gauza guziak.

Miserikordia galdegiten darotzutenei barkha diozozute, zure graziaren beharra dutenei, hura emozute: eta gu zure graziaz gozatzeko, eta bizitze eternalerat abanzatzeko digne edo kapable, egiñ gaitzatzu. Halabis.

X. GARREN KAPITULUA

Nola Komunione saindutik esten gibelatu behar sujet lejitimo bat gabe

IESU KRISTOK

Zure pasione eta bizio guzietarik sendatua, eta deabruaren tentazione eta artifizio guzien kontra borthistua zarentzat, enegangat graziaren eta miserikordiaren, ontasunaren eta garbitasunaren ithurrirat bezala, behar duzu izan zure errekersua.

Nola deabruak baitaki Komunione sakratuan, fruktu eta erremedio hagitz handiak direla, bere egiñ ahalaz entsajatzan da, arima fidel eta egias-ko lainkotiararak handik gibelatzerat.

Handik heldu da, batzuek Komunione saindurat bere buruak preparatzerat, disposatzen direla Satanen tentazione borthitzagoak, eta gaistogak sofritzen baikituste.

Maleziaz betherikako ispiritu gaisto hura, lainkoaren semeen artean kausitzen da, Job sainduaren liburuan eskribatua den bezala, eta

bere ordinariosko maleziaz trublutzen ditu, bel-
durti eta erresoluzionerik gabe errendatzen
dituela, manera huntan hekien afekzioeen hos-
teko, eta duten fedearen sentimendu guziak
khentzeko, sekidan behiñere mahaiñ saindurat
hurbil estaitezen, edo egiten badire ere ephelta-
sunekiñ.

Baiñan ispiritu gaisto haren artisizioez; eta
presentatzen daroskitzun fantomez ahalkaga-
rriak eta harrigarriak izan arren, estuzu axolarik
behar izan; baiñan kontrarat hari berari hekien
abominazione eta harrigarritasuna etxatu behar
diozu.

Mesprezatu behar da ispiritu dohakabe hura,
eta hartaz hirri egiñ, eta arima atakatu, eta
haren baithan zenbait mobimendu altxatu arren,
hargatik estuzu Komunione saindutik gibelatu
behar.

Maiz halaber presa handirekien debozionerat
bere buruaren exzitatzea, eta konfesatzeko khe-
xadura, debeku batzuek dire akzione saindu
harentzat.

Segi zazu beraz zuhurren konseillua; esku-
pula eta inkietamendu banoak urrun zatzu,

zeren lainkoaren grazia debekatzen, eta arimako pietate egiaskoa desegiten baitute.

Etzazula uts Komunione saindua truble xume, edo ispirituko pisutasun batengatik, baiñan zoas berehala konfesatzerat zure kontra egiñ ditusten ofensa guziak bihotz onez barkha diotzotzute.

Zuk zerorek norbait ofensatu baduzu, barkhamendu humilki galdegiozu, eta lainkoak zure hoben guziak barkhatuko daroskitzu.

Zer progotxu da zuretzat, konfesionearen luzatzea eta halaber komunionearen gibelatzea?

Lehen bai lehen xahu zazu zeure arima: eta etxa zazu kanporat, hura eritzen duen pozoiña, hartzazu fite salbamenduko erremedioa, eta hobeki izaren zare, ezen ez denbora luzez egotu izan baziñe hartaz baliatu gabe.

Egun, arrazoiñ batengatik komuniatzerat luzatzen baduzu, menturaz bihar, handiagoa arribatuko zaitzu.

Hargatik komuniatzerat, denbora luza ziñezake, eta segidan dispozizionerik gabe zeure burua kausi.

Lehen bai lehen langiadura eta pena horietarik ilki zaite, zeren espaita deusik irabasten manera hortako inketamendutan bere buruaren entretenitzeaz, bere trubleen nahasteaz, eta egunetik egunerat Sakramendu hortarik separatzeko, debeku berriak kausitzeaz.

Kontrarat denbora handia komunionearen luzatzeak, arimari kalte handia egiten dio, zeren ordinarioski osoki lothan balago bezala errendatzen baitu.

O dolorea! badire presuna batzuek haiñ laxoak eta neglijenziaz betherikakoak, non raro ki konfesatzeaz, eta bere konunioneak luzatzeaz, bere arimen artha handiagoarekien goardatzerat obligatuak estitezentzat, atsegiñ hartzen baitute.

Helas! ala halako jendeek amudio eta debosizone guti baitute, zeñak haiñ erreiski komunione saindutik gibelatzen baitire.

Ala haiña dohatsu baita, eta lainkoari miragarri, zeña halako manieraz bizi baita; non bere konszienza bethi garbi baitaduka, eta egun guzietz komuniatzeko permis balitzaio, disposa-

tua bailiteke, egiñ ahal baleza, bertzeak ez beza-lakotzat bere burua iragan gabe.

Baldiñ giristiño bat humilitatez, edo zenbeit debekatzen duen bertze arrazoiñez, gibelatzen bada Sakramendu Saindu hunen errezibitzetik, laudatua behar du izan huni ekhartzen dioen errespetua dela kausa.

Baiñan uste badu epheltasunerat, baratxe baratxe eroria dela, berak bere burua exzitu, eta bere baithan duena egiñ behar du; eta lain-koak duen borondate onaren hedaduraren ara-bera, zeñari partikularki gure laguntzeko begira-tzen baitio, bere nahian fagoratuko du.

Zenbeit arrazoiñek komunionetik gibelatzen badu, gustiarekiñ barneko nahi, eta intenzione saindu batez ispirituan egiñ behar du, eta orduan errezibituko du Sakramenduaren efek-tua.

Ezen egiaski debot dena, egun eta oren guziez nihork debekatu gabe lesu Kristoren komunione ispiritual eta hagitz progotxuskorat hurbil deiteke.

Gustiarekiñ egun, eta denbora suerte batzue-tan, bere salbatzaillearen gorputz sakratua,

afekzione errespetuz betherikako batekien deboki errezibitu behar du, eta halako akzione saildu batean lehen lainkoaren gloria, ezen ez bere konsolazione propioa, bilhatu behar da.

Ezen zenbatetan arimak mistikoki komuniatzen, eta ageri esten maneran egiasko naurrimendu ispirituala errezibitzen baitu, hanbatetan Iesusen Inkarnazioneko misterioa, eta pasione sakratua bere ispirituan sailduki iragaten du, eta haren amudioan sustatzen da.

Norere komunione saildurat hurbiltzen baita, zeren besta bat hurbiltzen den, edo zeren usantza den, maiz gaiski prepatatua izaren da.

Ala haiña dohatsua baita, zeina lainkoari sakrifizio bat bezala, misterio saildu hori zelebratzen duenean, edo komuniatzen denean, ofrendatzen baitzaio.

Meza erraten duzunean, etzaren ez luze ez labur, baiñan haiñen usantza ona, segi zazu zeinekien bizi baitzare.

Estuzu nekhagarri izan behar, baiñan zure Aitek segitu duten bide komuna itxiki behar duzu, eta lehen bertzeak satisfatu behar ditutzu,

ezen ez zure inklinazione edo debozione partikularra.

XI. GARREN KAPITULUA

**Nola Iesu Kristoren gorphutza,
eta eskritura saindua, arima
fidelari hagitz nezesario zaiskon**

ARIMAK

O Iesus! miserikordiaren lainkoa, nolakoa eta zein handia da arima jainkotiar, zure banket sakratutik jateko ohorea duen baten boskarioa, zeinetan espaitu bertze biandarik zu zerori, haren adiskide maitea baizen, zeinaren poseditzea, gehiago infinituki nahi baitu, ezen ez mundu huntan desira ahal detzaken gauza guziak.

Nitaz bezanbatean hagitz gauza estia litzaike, ene Jainkoa, ene bihotzaren barrenetik ene nigarrak zure presentzian isurtzea, eta Magdale-na dohatsuarekien nigar hetaz, zure oin Sakratuak ihinstatzea.

Baiñan non haiñ debozione bizia, eta nigar sainduen isurdura abundanta, kausi ahal deiteke?

Egiaz, ene bihotzak, zure eta zure aingeru sainduen aitzinean guzia sustatua behar luke izan, eta gero boskarioz nigarretan urthua.

Ezen zure sakramenduan egiaski present zaitut; bertze iduri baten azpian zu eztaba izan arren:

Ezen ene begiek eziñ sofrituko zintuskete, baldiñ zure argi lainkoskoez inguratua agertzen baziñe, eta zure Majestate sainduaren gloriaren aitzinean eziñ hagoan legoke.

Grazia handia beraz egiten darotazu naizen flakezan, zeren zure Sakramenduan barna estaltzen zaren.

Aingeruek zeruan adoratzeko dutena, hemen egiaski poseditzen eta adoratzeko dut, baiñan estut fedearen medioz eta itsalen azpian baizen egiten, hek klarki eta ilhuntasunik gabe, egiten duten bezala.

Gustiarekin egiasko fedeari kontentatu, eta haren argian ibilli behar dut, argitasun sekulakoren egunak argi dezaken, eta figuren itsalak iragan deitesken arteraino.

Estatu perfektu hori ethortzen denean, Sakramendu hau esta izaren, zeren dohatsuek lain-

kosko Sakramendu hunen beharrik espaitute, zeruko gloriaz osoki betheak direnaz geroz.

Eternitate guzikotz, lainkoaren presentzian boskarioz gaindi egiten dute, haren gloria bekhoz bekho kontenplätzen dutela, eta argitik, lainkotasuneko argirat iragaten direla lainkoaren hitza, ez haragi egiñ den bezala, baiñan munduaren hastetik izatu, eta sekulan izaren den bezala, gustatzen dute.

Mirakuillu hauk ene ispirituan iragaten ditudanean, konsolazione suerte guziek, baita ispiritualek ere, unhatzen naute, zeren ene Jauna bere glorian ikhusten estudaiño, munduan ikhusten eta aditzen ditudan gauza guziak, ezteuskeria bat bezala iragaten zaiskit.

Lekhuko zare ene Jainkoa, deusetan ere eziñ konsola naitekela, eta kreatura batetan ere eziñ errepausurik ediren dezakedala, baiñan bai zu baithan, ene Jainkoa.

Ene bihotz guziez, eternitatean zure gloria, ikhusterat desiratzen dudala.

Baiñan hori eziñ deiteke bizitze mortal hunek dirabeiño, eta hala pazientzia handi batean

eman behar naiz, eta neure burua zeureganat ene nahi guzietan behar dut abandonatu.

Manera huntan zure erresuman, ene lainkoa! orai zutaz gozatzen dire zure sailduak, mundu huntan zireiño zure gloriaren begira zaudezen fede eta pazientzia handirekiñ.

Hek sinhetsi dutena sinhesten dut, hek beza-la esparantzetan naiz, eta konfidentzia handi bat dut hek joan diren lekhu bererat, arribatuko naizela.

Biskitartean saildu handi hekien exenpluaz borthistua naizela, bethiere fedean ibilliko naiz.

Ene konsolazionea eta ene bizitzearen miraila liburu Sailduak izaren dire, eta guzien gaiñetik zure gorputz saildua izaren da ene ihez lekhu, eta ene erremedio suberanoa.

Ezen bizitze huntan, bi gauza hagitz nezesarrio zaiskit, zeinak gabe miserable hura, eziñ sofri bainezake.

Nola gorputzaren presondegian zarratua bainaiz, aithortzen dut bi gauzen beharra dudala, neurrimenduaren eta argiaren.

Hargatik ene arimaren eta gorputzaren janharitzat, zure haragi sakratua eman dorotazu;

eta ene urratsen argitzat, zure hitz Jainkoskoa oraiño eman darotazu.

Bi gauza horiok gabe eziñ bizi neiteke, zeren lainkoaren hitza ene arima argitzen duen argia den bezala, zure Sakramendua bizitzea ematen duena baita, bi present horiok, zuk eliza Sainduan eman ditutzun bi mahaiñ deit ahal deiteske.

Bata Aldare sakratuko mahaiña da zeineta baita ogi Saindua, erran nahi da Iesusen gorp-hutz adoragarria.

Bertzea da lainkosko legearena, Doktrina Saindua, lainkoaren fediaz instruitzen gaituena, bere baithan duena, eta segurki sanktuarioraiño zeineta baita Sainduen Saindua, gidatzen gaituena.

Graziak errendatzen daroskitzut, o Iesus ene lainkoa, argi eternalaren distiadura, zure Doktrina sakratuaren mahaiñaz, zure zerbitzari fidelez, Profetez, Apostoluez, eta Doktor Sainduetz preparamu baitarokuzuna.

Graziak errendatzen daroskitzut, o gizon guzien kreatzaille eta erreskatatzaillea, zeren zure amudioa mundu guziari erakuisteagatik,

banket handi bat preparatu duzun, zeinetan ez bildoits bat, figura xoilki zena, baiñan zure gorphutz eta odol Sakratua.

Manera huntaz zure fidelek boskarioz gaindi egiten dute, eta zure khalizeko arnoaz banket sakratu huntan horditzen ditutzu, zeinetan Parabisuko plazer guziak kausitzen baitire, eta zeinetan aingeruek gerekien jaten baitute, baiñan manera dohatsuago eta ispiritualago bates.

Ala Aphezen ofizioa handi eta ohoreskoa baita, hei eman zaiotenaz geroz majestatearen Jainkoa bere hitz sakratuez konsekratzeko, espainez benedikatzeko, bere eskuetan idukitzeko, bere aho propios errezibitzeko, eta bertze fidelei haren emateko, podorea.

Ala Aphezen eskuek, ahoak era gorphutz guziak garbi behar baitute izan, eta halaber saindu haren bihotzak, haiñ maiz bere ariman, garbitasun guziaren lainkoa errezibitze duenaz geroz.

Aphezaren ahotik esta ilki behar hitz batere, non esten saindua, honesta, progotxuskoa, salbatzaillearen haragi sakratua haiñ maiz han sartzen denas geroz.

Haren begiek sinple eta garbi behar dute izan, Iesu Kristoren gorputzari begiratzerat kostumatuak direnas geroz.

Haren eskuek garbi eta zerurat altxatuak behar dute izan, zeru eta lurra kreatu dituen maiz ukitu duenaz geroz.

Partikularki Aphezei erraten zaiote lainkoaren legean, zareten saindu, zeren zuen laun eta lainkoa baiñaiz.

Lainko puxantzaz bethea, zure graziaz lagun gaitzatzu, arren Aphetasuneko kargurat nola deithuak baitzare, digneki eta debotki garbitasunean eta konszientzia onean zerbitza zaitzaguntzat.

Eta gure bizitzea behar luken bezaiñ garbi eta inozent espada posible errendatzea; bederen egiguzu grazia gure hobenez dezagun digneki nigar egiñ ethorkizunean, ispiritu humil eta borondate konstant batean, berotasun gehiagorekien zerbitza zaitzaguntzat.

XII. GARREN KAPITULUA

**Nola Komunione sainduaren
aitziñean preparatu behar den,
eta ondoan iratzarririk egon**

JESU KRISTOK

Ni naiz garbitasunaren adiskidea: eta saindu-
tasun guziaren emaillea.

Bihotz garbi bat dut bilhatzen, eta han kausi-
tzen dut ene errepausua.

Prepara diezadazu zure ariman sala handi
eta berregiñ bat, eta ene diszipuluekien zure
etxean baskoak eginen ditut.

Baldiñ nahi baduzu ethor nadiñ zureganat,
eta zurekiñ egon; lemami zaharraz garbi zaite,
eta zure bihotzeko etxea garbi zazu.

Desterra zazu mundua eta bizioak.

Zure arimaren parterik gorenean hintz xoria
bakharrik dagoen maneran egon zaite.

Eta zure ispirituan, bihotzeko garrastasunean
zure bizitzeko zoramenduak iragan zatzu.

Ezen adiskide batek, lekhurri hoberen eta
ederrena, maite duenari bethiere preparatzen

dio; zeren manera huntaz beraz erakuisten baitu, zenbat errezibitzen duena maitatzen duen.

Gustiarekiñ jakiñ behar duzu zuk egiñ ahala egiñ arren, eziñ digneki prepara ahal zaiteskela akzione saildu hunen egiteko, urthe osoa enplegatzen bazindu ere, ispirituan hori xoilki izan arren.

Ene ontasunak eta graziak permetitzen darotzute ene mahaiñ saildurat hurbil zaitezten: hala nola aberats batek pobre bati berekien janharasten balio, zeññ pobrek espailuke deusere ontasun handi haren ezagutzeko, haren aitzinean beheititza, eta graziasko akzioneak errendatzea bai-zen.

Egizu zure baithan den guzia, eta artharekiñ egizu, eta ez kostumaz, ez eta ere beharrez baiñan beldurtasun, erreberenzia eta amudio handirekiñ errezibizazu, zureganat ethorri nahi duen lainko laun maitearen gorputza.

Nik ere mahaiñerat deitzen zaitzu, nik manatzten darotzut.

Zato eta errezibi nazazu, eskaz den guzia nik bethekodut.

Debozionesko eta berotasunesko mobimenduak ematen daroskitzudanean, niri, zure lainkoa nazenari eta donu hori egiten darotzudanari, eskerrak errenda diotzotzu; ez zeren digne eta kapable zaren, baiñan zeren miserikordia egiñ darotzudan.

Mobimendu hetaz gabetua bazare, eta kontrarat agor eta idor kausitzen, egizu othoitz presatuki; egizu nigar, eta io zazu athea, salbamenduko grazia horren papur eta xorta bat merezi dezakezukeiño.

Zuk ene beharra duzu, ez nik zurea.

Etzare heldu ene saindustatzerat, baiñan ni heldu naiz zure santifikatzerat, eta hobeago errendatzerat.

Eneganat heldu zare Saindutasunaren kausitzeko, eta enekien juntatua izateko; grazia berri bat kausitzeagatik, eta berotasun berri bat korrijitua izatekotz gerotik gerora konzebi dezazunat.

Etzazula utz grazia handi hau, baiñan artha handirekiñ zure bihotza prepara zazu zure mai-tearen baithan sarrarastekotzat.

Estuku xoilki komunionearen aitzinean debotzonerat preparatu behar, baiñan artha handirekin Sakramendu Saindua errezibitu ondoan zeure burua han konserbatu behar duzu.

Esta artha gutiago behar izan komunionearentzat, ondoan aitzinean baino.

Ezen ondoko artha hori preparazione exzelent bat izaren da, grazia handiago baten segidan errezibitzeko.

Ni errezibitu ondoan kanpoko konsolazionearentzat berehala ematen dena, handik beretik ageri da; estela disposatua ene errezibitzerat.

Orduan begirautzu sopra solas egitetik, zaude sekretuan eta zure lainkoaz goza zaite, ezen hura bera duzu, eta mundu guziak estieza-kezuke eraman.

Niri osoki zaren guzia eman behar zaiskit, ene baithan xoilki bizitzen zarela, bake egiasko batez goza zaitezen amoreagatik.

XIII. GARREN KAPITULUA

**Nola arima debota komunione
sainduan Iesu Kristori perfekti
juntatu behar zaion**

ARIMAK

Noiz izaren nais aski dohatsu o ene lainkoa!
zu baxharrik kausitzeko, zuri neure bihotza idiki-
tzeko, eta ene arimako nahiaren arabera zutaz
gozatzeko, nihork gehiago mespreza eznazan-
zat, zure espoz Sainduak bere Kantikoan dioen
bezala; zu xoilki mintza zakiskit, eta ni ere zuri,
maitatzaillea bere maiteari, edo adiskidea bere
adiskideari mintzo zaion maneran.

Ene desira eta ene othoitz guzia esta bertze-
rik, o ene lainkoa! eurekien osoki juntatua izatea
baizen, eta neure bihotza kreatura guzien afek-
zionetik urrundua, maizago misterio Saindu hau
ofrendatzen darotzudala, eta errezibitzen duda-
la, gerotik gerora zeruko gauza eternalen gusta-
tzen, ikhas dezadan amoreagatik.

Helaz! ene salbatzaillea noiz zurekiñ unione
perfekt hortan izaren naiz.

Noiz izaren naiz zutaz halako manieraz poseditua, osoki neure buruaren orhoitzapena galduko baitut?

Ene baithan zare, eta zure baithan naiz.

Indazu grazia manera huntan eternitatean juntaturik gaudezen.

Zu zare egiaski ene maitea (millen artean hautatua) zure baithan ene arimak eman du bere afekzione guzia, ene bizitzeko egun guzietan zurekien egotekotzat.

Zu zare egiasko ene arimaren bakea; zure baithan errepausu eta bake suberanoa kausitzen dire, zutaz kanpoan esta travaillurik, dolorerik eta miseria infiniturik baizen.

Zu zare egiaski Jainko estalia gaistoekien komunikazionerik estuzuna, simple eta humillekiñ solastatzen zarena.

Ala zure ontasuna handia baita, o ene lainkoa, zure umeei ekhartzen diozuten amudioaren samurtasuna erakuisteagatik, zerutik jautsirikako ogi plazeret betherikakoaz entretenitzen ditutzunaz gerostik.

Egiaz esta nazionerik haiñ handirik, bere lainkoa haiñ familierki komunikatu zaionik, nola zu

ene lainkoa, zeure fidelei egiten baitzaiskote, egun guzies ematen zaiskotenaz gerostik zutaz hazi eta gozatu ondoan bethiere konsolazione berri bat zeure baithan kausturik bethiere bere bihotza zerurat altxatua dutentzat.

Bada poblurik haiñ ohoraturik, nola baita kristabena?

Zeruaren aspian zeñ kreatura da haiñbertze lainkoaz maitatua denik, nola baita arima debota, zeñetan barna Iesu Kristo sartzen baita haren baskatzeko bere haragi glorioz eta imortalaz.

O grazia eziñ konprendi deitekena!

O fagore adoragarria! o neurri gabeko amudioa lainkoak gizonari xoilki erakuisten dioena!

Zer lainkoari errendatuko diot horlako ontasun handiarentzat, horlako seiñale extraordinarioarentzat.

Eziñ deusik gehiago agradatzen zaitzunik egiñ dezaket, neure bihotza osoki zuri ematea eta hertsiki zurekien juntatua idukitzea baizen.

Orduan ene barne guziak boskarioz gaindi egingen du, noiz eta orduz ene arima zurekien perfekti juntatua izaren baita.

Orduan ene lainkoak erranen darot enekien nahi baduzu izan, nik ere halaber zurekien nahi dut; eta ihardetsiko diot, arren launa egon zaite enekiñ, ezen ene desira xoilazurekien izatea da, hau da ene nahi guzia, ene bihotza osoki zurekien juntatua den.

XIV. GARREN KAPITULUA

Sainduen debozione beroaz Sakramendu Sainduaren alderat

ARIMAK

Ala, launa, zeure beldurtasuna dutenentzat, dulzetasun handia eta eziñ konprendi deitekena estali baituzu!

Noiz eta ordus orhoitzen bainaiz, arima Saindu batzuek nolako afekzione eta debozione beroarekiñ Sakramendu Saindurat hurbiltzen diren, neure baithan maiz gorritzen naiz, eta denbora berean konfunditzen ikhustear, nolako epheltasun eta hostasunekiñ hurbiltzen naizen zure aldaretarat eta mahaiñ saindurat.

Gorritzen naiz (diot nik berrisere) ikhustear neure baithan haiñbertze agortasun, eta haiñ guti bihotzean mobimendu; haiñ su guti ene lainkoaren aitzinean; ahalkatzen naiz ez sentitzeaz ene baithan berotasun eta xarma sakratu hek, hañitz arima sainduak bere baithan egiñ ditustek, zeinak komunionearen desiraz eta hekien bihotzean erretzen zen amudioaz rabituak zirela,

nigarretan bere buruak urtzetik eziñ debeka baitzetzaketen.

Nola zutaz egarri eta gose baitziren, hargatik bere bihotzeko eta gorphutzeko ahoa maiz idekitzen zuten, zu ur bizen ithurria bezala, eta bere gose handiaren fazegatzeko zure gorphutz sakratua, boskario ispiritual esta nuharroiñtasun saindu batekiñ, errezibitzeko.

O fede egiaski beroa, misterio saindu hune-tan present zarela erakuisten duena!

Arima saindu hek egiaski ezagutu dute launa ogiaren haustean, eta bi Diszipulu hek bezala erakuisten dute Iesu Kristo hekiekien dabillala, hekien bihotza hartaz haiñ sustatu eta bethea denaz geroz.

Helas! ala halako debozionetik eta amudiosko mobimenduetarik maiz urrundua bainaiz.

O Iesus infinituki ona eta estia, egidazu miserikordia.

Errumes eta Pobre bat naiz zure aitziñean, zure bihotza animatzen duen amudiosko suaren zenbait khar estiezadazula errefusa, bide hortaz gerotik gerora ene fedea handi dadiñ, esparantzaz zureontasunean borthitz, eta fiñean kharita-

tea behin perfekki bistua dela, zeruko manna gustarastzen darotala, sekulan hil estadiñ.

Desiratzen dudan grazia zuk niri akhordatzekotzat, eta susko ispirituan ni bisitatzekotzat miserikordiaren egunean, zure ontasuna aski puxanta da, ene Jainkoa.

Ezen zure maite partikularrek bezaiñ desira, eta su handia nik ez izan arren, gustiarekiñ desira edo nahi saildu hetaz poseditzeko desira ematen darotazu.

Hargatik othoisten zaitut zu haiñ beroki maite zaitustenen arimen merezimenduetan parte ematerat; neure burua hekiekiñ, gorphutz beraren konpaiñian bethiere juntatua idukitzen dudala.

XV. GARREN KAPITULUA

**Nola grazia galdegiñ, iduriki,
errezibitu eta konfesatu behar
den**

IESU KRISTOK

Debozionearen grazia su era khar Saindu batekien bilhatu behar duzu, hala nola konfidentzia eta pazientzia Saindu batekien haren begira egon, eta grazioski errezibitu ondoan konserbatu, harekien travaillatzen zarela, lainkoari denbora, eta bisitatuko zaituen manera, erremetitzen diozula.

Hagitz humiliatu behar duzu zeure baithan; debozione guti edo batere estuzula sentitzen duzunean, baiñan hargatik estuzu hagitz edo gaindiski tristatu behar.

Maiz lainkoak denbora luzez errefusatu duena, kolpe batez ematen du, batzuetan othoitzaren fiñean, hastean ematerat luzatu duena, akhordatzen du.

Gizona haiñ flako bada bizitze hunetan, non denbora gutiz bethi izaten balu grazia bere nahiaren arabera, eziñ ekhar bailezake.

Zaude beraz konfidentzia Saindu eta pazientzia humil batekien debozionearen graziaren begira. Gustiarekiñ hura espaduzu, edo sekretuki khentzen baitzaitzu, zeure buruari edo zure hobenei atribuatatu behar diozute.

Maiz gauza xume bat aski da, debekatzeko-tzat grazia arimarat ethor estadiñ, edo han bada ere, erretira dadiñ; gustiarekiñ xumea deithu behar baldiñ bada, eta ez lehenago handia, hala-ko ontasuna debekatzen duena.

Zureganik ordean gauza xume edo handi den hori osoki urruntzen baldiñ baduzu, galdegiten duzuna izaren duzu.

Ezen zure bihotz guziaz zure lainkoari emaren zaiskon bezaiñ sarri, bilhatu gabe batzuetan gauza bat, bertzean bertze bat zure inklinazio-nearen araberat, haren baithan osoki errepausatzzen zarela; egiasko errepausuan izaren zare, zeren deusek espaitzaitu hala kontentatu, nola lainkoaren borondatea perfekki konplitua dela ikhustek.

Nork ere bada bihotz garbi eta simple batekien bere intenzionea lainkoaganat goratua idukiko baitu, eta bere arima kreaturen afekzionetarik hustua, hekientzat amudio erregelatu estenik, eta desplazer sentimenduskorik estuela, orduan kapable eta propi izaren da graziaren errezibitzeko, hala nola digne pietate bero baten ardietsteko.

Ezen lainkoak toki hutsetarat bere graziak, eta benedikzioneak ordinarioski isurtzen ditu.

Eta zenbatenaz presuna batek gauza baxoei ukhatzen baitiote, eta bere buruarentzat bere mesprezio propioaz hiltzen baita, hanbatenaz grazia fiteago ethortzen zaio eta abundankiago komunikatzen, bihotzeko libertate handiago batetarat haren arima altxatzen duela.

Orduan kolpez aberastuko da, orduan mudantza hori admiratuko du, eta haren bihotza bere baithan mirakuilluski zabalduko da, zeren lainkoak bere presentzia erakuisten baitio, eta hura halaber haren esku sainduetarat osoki eta sekulakotzat abandonatzen baita.

Manera huntan benedikatua izaren da lainkoa bere bihotzez bilhatzen duena, eta gauza

progotxusko estirenei, bere arimako entrada zarratzen diotena.

Estatu huntan izaren denak, grazia handi bat Sakramendu Sainduan errezibituko du, zeinak lainkoarekiñ borthiski juntatua idukiko baitu, zeren espaitu Sakramendu huntan haiñbertze bere debozione edo konsolazione partikularra estimatzen, nola lainkoaren gloria eta ohorea egiten baikitu.

XVI. GARREN KAPITULUA

**lesa Kristori othoitzza,
errezibitzen duen arimarat bere
graziak isur dezantzat**

ARIMAK

O jaun infinituki dulze eta maitagarria; ala egiasko pietate batekien desiratzen baitut presentean zure errezibitzerat, ene flakezia eta sofritzen ditudan beharrak ezagutzen ditutzu.

Badakiskitzu zeññ diren ene arimako gaitzak eta bizioak, eta zeññ maiz arima hura kausitzen den penatua, trublaturatua, tentaturatua, bai eta ere bekhatuez lizundua.

Erremedioaren bilha zureganat heldu naiz; eta othoisten zaitut ene konsolatzeaz.

Gauza guziak ikhusten eta ezagutzen dituenari, hala nola laguntza eta konsolazione perfekt bat eman ahal dezakenari, mintzo natzaio.

Badakizu nihork ere baiño gehiago arimako ontasunen beharra dudala, eta zenbat bertutean pobre naizen.

Pobrezia huntan ene lainkoa osoki billusgorria presentatzen naiz zure aitzinean, zure grazia eta miseriak galdegiten darotzudala.

Emoku jatera zureganik gauza guziak uste dituen pobreaki, zure amudioaren suaz ene arimako ormak urt zatzu, eta zure presentziaren klaritateaz ene begiitsuak argi zatzu.

Egizu arren lurreko plazer guziak garratz, eta mundu huntako gaitz eta pena guziak dulze kausi detzadan, eta manduko gauza guziak baxo eta ezdeusa bezala konsidera detzadan.

Zurekien juntatua eta zerurat goratua iduk zazu ene bihotza, eta arren etzazula permeti lurrean zora eta korrunpi dadiñ.

Men men huntarik estezadala bertze dulzetasunik sekulako gusta, zure baithan baizen; zeren zu baitzare en arimako janhari eta edaria; zu zare ene amudioa, ene boskariora, ene plazereak eta ene ontasun suberanoa.

Egizu arren plazer baduzu, o ene salbatzaillea, zure presenziak bero, susta eta osoki zureganat tranforma nazan, barneko unione borthitzaren graziaz, eta amudio bero baten isurduraz zurekien ispiritu bat osoki egiñ nadiñ.

Etzazula permeti ene arima zureganik huts-
tua, eta lehen bezaiñ agor eta idor erretira
dadiñ, baiñan Sakramendu Saindu huntan zure
miserikordiaren zenbeit efektu ene alderat age-
rraraz zazu, hala nola zure sainduen alderat zure
puxantzaren mirakuilluak distiarazi baikitutzu.

Gauza estraiñioa othe liteke guzia zure bait-
han su egiten banintz, eta ene amudio propioa
osoki ene baithan hiltzen baliz? Zu zarenaz geroz
su bethi bero zarena, eta sekulan eziñ hil zeites-
ke, zu zarenas geroz amudio bat bihotza garbi-
tzen eta ispiritua argitzen duena.

XVII. GARREN KAPITULUA

**Nola arima Sainduak desiratzen
duen, Iesu Kristo den
Sakramendu Saindu huntan
glorifikatua**

ARIMAK

Jauna debozione perfekt batekiñ, amudio bero batekiñ, eta ene bihotzeko afekzionearen hedadura oso batekien nahi zaitut errezibitu, hañitz sainduk eta arima garbiek egiñ duten bezala, zeñak bere pietatearen berotasunaz eta bere bizitzearen saindutasunaz zure begien aitzinean hagitz miragarri agertu izan baitire.

O ene lainkoa, amudio eternala, ene ontasun osoa, eta dohatsutasun suberanoa zarena; egundaiño sainduak izatu ahal luketen desira bero eta errespeturik humilenarekiñ, desiratzen nuke zure errezibitzerat.

Eta neure baithan debozionesko sentimendu horiok guziak frogatzeko, ni ez kapable izan arren, guziarekiñ zure alderat, ene bihotzean ahal deiteken afekzione eta amudio guziak

ofrendatzen daroskitzut, saindu guzien desira bero hek neronek xoilki baldiñ banitu bezala.

Halaber, launa ene bihotz barnetik ofrendatzen eta ematen darotzut arima egiaski zuretzat denak, Sakramendu Saindu huntan zure ohortzeko, konzebi eta desira ahal dezaken gustia.

Deusik estut neuretzat goardatu nahi, baiñan osoki neure burua eta ene baithan direnak bihotzeko bethetasun batekiñ sakrifikatu nahi daroskitzut.

Ene laun, eta ene lainkoa, ene kreatzaille eta erreskatatzaillea, desiratzen nuke egun zure errezibitzerat afekzione, errespetu, eta ohorerekiñ; ezagutza, amudio eta saindutasun perfekt batekien, fede esparantza eta garbitasun miragarri batekien, hala nola zuek ama birjina Sakratuak baitzituen zu errezibitu zintuenean, eta zure posiditzerat desiratu zuenean, noiz eta orduz aingeruak inkarnazioneko misterioaren berria ekhartzen zioela, ihardetsi baitzioen debosio eta humilitate handirekien; huna launaren zerbitzaria, egiñ dakidan zure hitzaren arabera.

Hala nola jondoni launi Baptista zure enbaxadoreak, eta Sainduetan izan den handienak Ispi-

ritu Sainduaren mobimendu batez boskarioz gaindi egiñ baitzuen, oraiño bere amaren sabelean zarratua zegoela, eta gerostik gizonen artean ziñabiltzala, zutaz humilitate behera eta afekzione bero batekien, erran izan baitzuen; esposaren adiskidea xutik dagoena eta hura aditzen duela, rabbitua da boskarioz bere esposaren bozaren aditzeaz.

Orobat desiratzen dut, o ene lainkoa, zure desira sainduetz sustatua izateaz zu errezibitzen zaitudanean, eta zurez mahaiñt saindurat ene bihotzeko afekzione guziekien presentatzen naitzenean.

Halaber ofrendatzen daroskitzut, o ene lainkoa, ene boskario guziak, afekzione sustatu guziak, ispirituko goratasun guziak, argi extraordinario guziak, arima sainduen, zure donuez fagoratu ditutzunen, zeruko bisione lainkosko guziak.

Oraiño zeruan eta lurrean errendatzen eta ethorkizunean errendatuko daroskitzuten laudio guziak presentatzen daroskitzut.

Hek errezibi zatzu, plazer baduzu, ene lainkoa enetzat, eta ene othoitzetan gomendatu

behar daroskitzudanentzat, sekulakotz digneki laudatua eta glorifikatua zarentzat.

Ene lainko launa, errezibi zatzu ene botu eta sentitzen ditudan desira guziak, gloria infinitu eta neurri gabeko benedikzionez, ohoratua zarentzat, zure handitasun zein explika deitekenak, laudorio guziez gorago ematen zaituenaz geroz.

Zuzen hau, errendatzen darotzut, o ene lainkoa, eta oren eta men men guzian hura zuri errendatzerat desiratzen dut, eta oraiño egiñ ahal dezakedan afekzione guziez, gonbidatzen ditut zeruko ispiritu eta zure fidel guziak, arren enekien junta deitezen zuri Kantiko sainduak kantatzeko, eta grazien bethiereko akzioneak errendatzeko.

Zaren laudatua, ene lainkoa, poblu eta nazio-ne guziez, eta boskario eta debozione bero batez dezaten zure izen saindua glorifika.

lainkosko misterio hau erreberentzia eta debozionerekin zelebratzen, eta fede bethe batekien errezibitzen dutenek, dezaten zureganik errezibi grazia eta miserikordia, eta ene

hobenen barkhamenduarentzat bere othoitzak dietzakitzuten ofrenda.

Eta bere nahi sainduen berotasuna Sakramendu Saindu huntan saristatu dutenean, zure unione sakratuaren plazerez gozatzen direla, eta mahaiñ sakratu huntarik osoki konsolatuak eta fasiatuak erretiratzen direnean, estitezela bere arimako pobreziaz orhoit.

XVIII. GARREN KAPITULUA

**Nola misterio hunen
beheratasuna esten fundatu
behar, eta nola arrazoiña
fedearen aspian eman behar
den**

JESU KRISTOK

Begirautzu misterio handi hunen beheratasuna penetratu nahi izatetik, bilhatze kurios era progotxu gabeko batez, sinhetsgortasunaren thulunbioan eror etzaitezen.

Iainko goraren majestatea fundatu nahi duena, bere gloriaren pisuan nekhatua izaren da.

Gizonak konprendi dezaken baiño gehiago Iainkoak egiñ dezake.

Sofri deiteke bilhatze humil eta arrazoineskotzat, bethi instrukzioneen errezibitzeko prest dena, aita sainduen oiñ urratsen ondoan arthatsuki bilhatzeko, hekien doktrina xoilki segitzen dela.

Haiñaren sinplizitatea dohatsua da, zeïña, kestione gaitz eta nahasietan nekhatzen estela, lainkoaren manamenduetan segurantzarekien baitabilla.

Hainitzek debozionearen grazia galdu dute; bere buruaz goragoko gauzak penetratu nahi izan ditustenean.

Gizonenganik fede egiasko eta bizitze garbi bat galdegiten dut, eta ez intelijentzia gora eta ene misterioen penetrazione behera bat.

Baldiñ gauzaren beherenak eziñ konzebi ahal baitetzaketzu, nola nahitutzu egiñ zutaz infinitu-ki gorago direnak!

Fedearen obediencian, zure ispiritua beheiti zazu ene aitziñean, eta zienziaren argia emaren darotzut, zure salbamenduarentzat progotxusko eta nezesario izaren den araberat.

Badire borthiski misterio hunen sinhesteaz tentatuak direnak, baiñan hori hekien etsaiaren maleziatik hobeki heldu da, ezen ez hetarik beretarik.

Etzaitezela zeure pensamenduekien disputa; ez hekiekiñ penetan eman, ez ihardets deabruak zure arimarat ematen dituen dudei, baiñan fer-

muki sinhetz diozozute lainkoaren hitzari, Profeten Orakleei, Sainduen autoritateari, eta maleziaren ispirituia zureganik ihesi joaren da.

Batzuetan hagitz progotxusko da lainkoaren zerbitzariarentzat manera huntan tentatua izateaz.

Ezen deabruak eskitu fazoiñ huntan gaistak eta infidelak maitatzen, zeren hek bakeski poseditzen baikitu, baiñan milla manera suertez lainkoarentzat fidel direnak, eta berotasunekien hura zerbitzatzan dutenak, tentatzen eta tromentatzen ditu.

Gauza horiotan etzaitezela arrasta, baiñan fede fermu eta sinple batekien, hala nola errepetuz betherikako debozionearekien, mahaiñ saindurat hurbil zaite.

Etzaitezela penetan eman misterio huntan eziñ konprendi dezakezunaz, baiñan lainkoa baithan zeinak gauza guziak ahal baituske, errepausa zaite.

lainkoak estu nihor haren baithan fidatzen denik, trunpatzen; baiñan gizona bere baithan fidatzen bada, enganatzen da.

lainkoa sinpleekien dabila; humilei agertzen zaiote, xumeei intelijenzia ematen diote, arima xahuen ispirituak idekitzen eta argitzen ditu, eta kuriosei eta superbiosei bere grazia estaltzen.

Gizonaren arrazoiña flakoa da, eta engana ahal deitekena, fede egiaskoa eziñ egiñ deiteke.

Arrazoiñak eta argi naturalak fedea suposatu eta segitu behar dute, ez destruitu ez eta ere aitziñean joan.

Ezen amudioak eta fedeak partikularki misterio handi huntan distiatzen dute, eta manera sekretusko eta ezin erran deiteken batez obratzen.

Iainko eternal denak, zeinaren puxantzak eremurik espaitu, zeruan eta lurrean mirakuilu eziñ konprendi deiteskenak egiten ditu; eta haren obren handitasuna gizonen ispirituak eziñ penetra dezake.

Iainkoaren obrak esliteske miragarri, eta eslukete deituak behar izan, eziñ erran deieskenak direla, baldiñ gizonak bere arrazoiñaren argiaz erreiski konprenditzen balitu.

FINA

Iainko xoilari ohore eta gloria